



ZEZENAK ERREPUBLIKAN

Jean Hiriart Urruti

Iturria: *Zezenak Errepublikan*, Jean Hiriart Urruti. Jakin, 1972.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/H/HiriUrruZezenak.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

IGANDETAKO LANA

Deusetarik ez duzu hobeki ezagutuko zer heinetan den herri batean erlisionea, baizik ere ikusiz herri hartako jendeak nola begiratzten duen igande eguna. Gure Eskual-herrian berean ikus azu zertaratuak giren, duela hogoi urte hautarik hunat. Oroit zaite zure herrian berean, nungo nahiko izanagatik, nola iragaiten zen bertze orduz igande eguna, goizetik arrats. Eta orai aldiz...! Garbiki, ahalgegarri da zertaratuak giren.

Ez naiz mintzo meza bezperen entzuteaz, nahiz balitaken nun zer erran. Ez naiz mintzo ere, igande egunetan egiten diren sal-erospenez, libertimenduez; ez eta ere igandean hor gaindi harat-hunat, herriz-herri, bidez-bide, batzu ihizin, bertzeak arraintzan, gehienak bere burua zoin bere lekuetan ezin jasanez, iduri ez dakitela nola jan denbora; ez naiz mintzo *ase eta pasea*, alfer daudenez edo dabiltzanez. Banuke gaurko eta biharko lan, orotaz mintzatzekotz.

Mintzo naiz bakarrik lanaz, igandetako lanaz. Bertze orduz Eskual-herrian, ez eta ere nehungo giristino herrietan nehork ez zuen lan dorperik hunkituko, baitezpadako ezin-bertzean baizik. Horrelako behar orduetan langilek galdatzen zuten herriko artzainaren permisionea. Jainkoari esker, oraino ere badira herri onak, usaia zuhur hori daukatenak. Bainan asko tokitan galdua da edo galtzen ari usaia hori. Horrela, nahi eta ez, jendea laztatzen da, igandearen lege sailduari buruz. Batek lan poxi bat, bertzeak puska bat egin; erdietan behar handirik gabe, emeki-emeki jendea sorraiotzen da; zer ere ikusten baitugu bertzeer egiten, hari jartzen gare. Den gutieneko estakurua aski dugu igande betean lanean artzeko. Estakururik ez duenak, bilatuko du... ba eta errexxki hatzemanen. «Hau egin behar, hura egin gabe ezin utz; alabainan bizi nahi; eta futxo, igandetan lan hau edo hura egin gabe, ezin bizi». Ehun mila zinkurina. Bardin-bardina mintzo dira hor gaindi igande egun edo goiz guzia, burdin-bide horietan eta bertze asko lanetan igande goiz guzia ari direnak.



Bainan nunbaitikako langile dohakabe hek bederen paganoak dira; edo giristino bezala bateiatuak badira ere, pagano bilakatuak dira. Gu, Eskual-herrian, ez gira oraino pagano bilakatuak; ez nahi ere! Ongi, ederki. Bainan ez dezagun sobera espantu egin. Ni beldur naiz, paganoak ikusiaren bortxaz, eta heiekin bizitzearen bortxaz, ez ote giren, ohartu gabe, paganoak bezelakutzen ari. Beldur naiz ez ote giren zonbeit lekutan jadanik hortaratuak.

Nork erranen denbora batez, ikusiko gintuela Eskual-herrian, *herri-ko langileak*, igande egunaren legea kolpatzen, goiz osoak lanean, aitzur-lanean?

Nik badazkit Eskual-herrian horrelako Eskualdunak, horrelako giristinoak. Nahi duena eskandalisa bedi: ez nauke begien aintzinean dudana erran gabe. Ez dut izendatzen herria, ez nahiz herri hartako erretora eta hango giristino egiazkoak ahalge-arazi. Neroni ahalgetzen naiz, erran behar izaitiaz baditezkeela eta badirela Eskualdun giristinoak beren buruen nausi ez direnak, eta igande eguna lanean deramatenak, erranez asteko lana gal lezaketela bertzela eginez. «Bizi nahi...»

Orai arte nola bizi izan dira? Bainan debalde duzu deusen erratea. Hortan gira...!

Eskualduna, 1892-01-08

LUR-IKARA

Lur ikara bat izigarria izan da egun hautan, Txinako eskualdean, Japonia deitzen den tokian. Hamar egunez eremu handi batetan, jende guzia harritua egon da. Duela berrogoi urte gauza bera gertatu zen Japonian. Bainan oraikoan bazter guziak errautsi omen ditu. Iragan urriaren 25-ean. Ohartu zen behin jendea lehen inarros-aldiari; izialdura bat ona izan zuten; bainan gehiagokorik ez, egun hartan. Biharamunean, lurra geldidageldia zagon; bainan zerua gorri samur batean; airea gorriegosi; jasan ahala epel eta pisu. Bazterrak kexu eta beldur. Abereak berak, dal-dal-dal, ikaran omen zauden; burua dilindan, jan ez edan ere nahi gabe. Biharamunagoan orobat.

Lau-garren egunean zinak eta minak. Misionest gaixo batek igortzen daroku goizean, meza emanik, otoitzean zagolarik, burrunba handi bat entzun duela. Ez omen diteke asma, zer orro beltz lazgarria egiten zuen.

Bertze misionest bat, mezaren emaitera zoana, aldare aitzinean erroz gora aurdiki du lur ikarak. Eliza-barnean ziren jende guziak orobat erorarazi ditu batzu bertzeen gainera.

Ahal zutenak ahal bezala, batzu xutik, bertzeak herrestan ateratu dira elizatik kanporat, heiagoraz. Uste zuten eliza erortzera zoala. Eta izaituz gutitarik egin omen du ez baita dena erori. Lastoa bezala bazeramatzan lur-ikarak oro. Elizako aldarea, leihoak, sainduen potretak xirikatu ditu. Kanpora direnean zer ikusgarria! Hiri guzia karraskan; jendea oihuka marrumaz, etxetarik kanporat ihes. Lurra arrailtzen da, han hemenka. Urradura heietarik ufaka badoa kea, eta gero extila edo lohia, goiti burrustan, ura erkituak gaindi egiten duenean bezala. Nehor ez dagoke xutik. Etxen erdiak lurrerat doazi, karraskan. Jende anitz leherturik han gelditzen da. Bi minuta baino gehiago ez du iraun egun hartako lur-ikarak. Egun hartakoa zen itsusiena; bainan hamar egunez, guti edo aski iraun du lur-ikarak, batean hemen, bertzean han Japonia guzia, eremu handia! hunkitu du. Ez ditake erran zer sarraskiak egin dituen. Hogo mil mila badira; bertze hainbertze baino gehiago kolpatuak. Ehun eta berrogoita hamar etxe aurdikiak; hogoi bat mila bederen aurdiki beharko direnak, dilindan daudelakotz. Sofre erakitu usain bat gaitza bada. Han hemenka leize batzu, itsuski barna. Iturri batzuetarik ura bero-beroa eta beltz-beltza heldu da. Bertze iturri batzu iretsi ditu lurra, eta



arrunt agortu dira. Lurra anitz tokitan beheititua da. Iduri du Japonia guzia iretsi behar duela. Bihotz-erdiragarri da, hats-bizi diren kolpatuen ikustea eta entzutea. Gristinoen ospitalea berriz egin beharko dute. Izanen da ospitale beharra, bizirik gelditzen diren dohakabeentzat.

Japonian bada misionest Eskualdun bat, aita Mougaburu izena duena. Iragan urtean egin du Frantzian itzuli bat, eta izan du zoriona zonbeit egun bere sor-lekuan, Getarian, iragaiteko.

Zonbeit hilabete badu hemendik urrundua dela. Bainan ez baitzen bide xuxenez itzultzekoa Japonialat, ez dezakegu erran lur-ikara hori gertatu denean, bere xedera heldua ote zen, ala ez? Gure arabera, ez. Nun ere baita, eta den tokian, ez du bihotz-min ttipia behar, berri hori ukaitzarekin. Hura dagon edo dohan tokia, denik ere, bertze zonbeit baino gutxiago jo du lur-ikarak; bainan han ere, orotan bezala, ondorio hitsak utzi ditu Nago Mougaburu, misionest kartsu, gure herritar maitearen adiskideek ez dutela erratearen beharrik, hartaz eta haren lagunez oroitzeko.

Eskualduna, 1892-01-15

ERREPUBLIKA

Adiskide batek izkribatzen dauku, harritu dela, iragan astean, *Eskualdunaren* lehenbiziko artikulua irakurtzearekin.

Ez dugu bada, gure ustez, deusere erran egia eta zuzenik baizik. Erran dugu Aita Sainduak kontseilatzen gituela, bakearengatik eta erlisionearengatik, Errepublika on bat onets dezagun. Egia erran dugu.

Erran dugu onartzen dugula guk kontseilu hori. Erran dugu orai baino lehen ere, gure baitarik eta aski erakutsi dugu, nor diren gure etsaiak; ez gituela gu Errepublikaren izenak izitzen.

Erran dugu Errepublika ona izan dezakegula, baldin bozkatzeguzietan gizon zuzenak, zuhurak, gristinoak izendatzen baditugu. Hori egia ote da, ala ez?

Hala ez bada, zoazi adiskidea; errozu Aita Sainduari, ez dela xuxen mintzo. Guk nahiago dugu haren eta gure hitzean egon.

* * *

Zer bada? Orai *xuriak* gorri behar ote gira bilakatu? —Ez dugu hori erran; ez eta hitz erdirik ere ez dugu erran, hortara dohanik.

Gure adiskidearen arabera, gaizki egin dugu Aita Sainduaren letra laburzki aipatzea. Behar ginuen beraz letra hartarik zati handi bat bederen eman...

Zertako ez letra guzia, osorik, zabal zabala? Bazuketen gure irakurtzalek behingo lan, letra luze horren burutik buru irakurtzen.

Ez; ez dugu nahi izan sobera lan hartu, ez eta eman nehoi.

Oxala astean behin *egia bat*, *bakar bat* ongi sar-arazten ahal baginu gure *Eskualdun* irakurtzaleen buruan!

Azken aldian ahal bezen laburzki eta garbiki eman ditugun hemen Aita Sainduak igortzen dauzkigun bi kontseilu.

Kontseilu horietarik lehena da, gorago aipatu duguna: Errepublika on bat onestea. Kontseilu hori zor ginuen gure adiskederi. Eta, ez gure izenean, bainan Aita Sainduaren izenean, ezarri dugu hemen eta egun berriz ezartzen lañoki den gutieneko gibel-beldurrik, ez itzulikarik gabe.

Hanbat gaixtoago hori ongi ez zaionarentzat.



Eta aldiz Aita Sainduaren bigarren konseiluaz ez omen dugu aski erran. Gure adiskidearen arabera, Errepublikaz sobera mintzatu gira; eta *ez aski* orai artinoko Errepublika hunen lege tzarrez eta egitate tzarrez.

Barkatu, jauna. Huna, hitzez hitz, zer erran dugun egun zortzi:

«Framazonen eskuetan gira. Framazon horiek bere ahal guziak egiten dituzte Frantzian erlisioneari erro guziak moztu nahiz.

»Guri dago ahal guzien egitea gaixtaginer jazartzeko. Dugun elgar adi, elgarri esku eman giristino guziek, framazonak eta herriko jontseiluetarik kanpo ezartzeko. Behinere ez dezagun bozetan indarririk eman erlisionearen kontrako lege tzar horien kentzera ariko direla zinez hitz-eman nahi ez duten gizoneri».

Xetasunetan sartzeko denbora dugu. Etsaiek emanen daukute aski eta sobera okasione hortako. Goazin elgar adituz, bederen adiskidekin.

Eskualduna, 1892-03-04

DUELA

Zer da *duela*? Hitz horrek iduri du eskuara dela baina ez da hala. *Duela* deitzen dute frantsesez, hiri horietako buru beroek, odola gainditzeko zaiotenean, elgarrekin *buruz-buruka* egiten duten borroka-aldi bat.

Hortakotz hautatzen dituzte bakotzak bi lekuko; gero berriz gerlako tresnak: harma, pistolet edo sabre.

Badoazi holako tenorean halako tokirat, zoin bere aldeko lagunekin eta, zer gerta ere, zaurien lotzeko eta... beharrez, bihotzaren altxatzeko on ditezkeen sokorri guziekin Hara direnean, emaiten dira biak atorramahungahas, edo gerriraino buluzirik.

«Bahiza to? —Ni ba, eta hi? —Ni ere ba. —Goazin haste».

Lekukoek izartzen dute lurra. Gure gizonak han emaiten dituzte, bekoz-beko, elgarretarik 30 urratsetan, tiroka ari behar direnean; eta sabrearekin edo ezpatarekin egiten diote keinu, eta berma hor; eian zoinnek erreko dion bertzeari burua tiroaz; edo zoinnek sartuko duen bertzea gerrenean!...

Ez dira gero nola nahi behar jokatu: joko guzietan bezala, badira hortan ere legeak: hau haizu, hura ez. Legen arabera behar da han hasiz geroz, garraitu, *edo bil!* Ez da jostetarik. Urrats bat behar baino aintzina-go edo gibelerat egiten duena, galdua da! Akabo haren ohorea! Ez duelakotz nahi izan xuxen ari, ahalgez urturik hil beharko da. Zer uste duzu direla hein hortako gizonak, adiskidea? Esku-ukaldi bakar bat makur emaita aski litake, han, lekukoen aintzinean, desohore gorriaren biltzeko; non ez den huts egilea judua. Juduentzat, bertze asko gauzetan bezala hortan ere, oro haizu dira.

Badu lau edo bortz urte Meier izena duen judu gazeta-egile bat, horrela ari zelarik ezpatarekin *duelian*, etsaiaren ezpatari lotu zitzaioala esku batez, beldurrez min har...! eta bertzeaz ixterrean barna sartu ziola bere ezpata. Gutitarik egin zuen, ez baitzioten bertzeari zangoa moztu izan behar Beharrik zen gizon pizkorra, eta odol onekoa.

Haro handiskoa egin zuen orduan afera horrek. Baina nola huts-egilea judua baitzen, eta bertzea, ez, xoilki giristinoa, nahiz ez hanbateko giristinoa, gerla zozo hortan ari zenaz geroz! baina juduen etsai errabiatua, juduek egundaino izan duten etsaierik azkarrena, Drumont famatua; juduen aldeko gazeta guziak berehala ixildu ziren.



Meier juduaren jokoa Drumonek egin balu, ez zen Drumont xakur-
rentzat ere on izanen. Meier badabila oraino, kopeta gorarik, nehoren
ganik beltzuri handirik ukan gabe.

Egun hautarik batez izan da hor berriz bertze *duel* bat. Zertako? Luze
litake xehetasunetan sartzea. Hitz batez errana da zer zuten makurra.

Meier delako horren izen bereko judu kapitain gazte batek egin dio
itsuskeria bat, Mores deitzen den jaun bati.

Hitz batetarik bertzean duelerara joan dira. Zer gertatu da? Moresek
juduari ezpata sartu dio bularretan; ez bertze harek bezala, etsaiari esku-
tik tresna kendurik, baina *dueleko* erreglamendu guzien arabera, xuxen,
erdiz erdi. Egun berean judua hil da.

Judu guziak berehala nigarrez eman dira, heiagoraz; «Gaixo kapitai-
na! Gaixo gizon goztea! Leher egin balezate Moresek eta juduen etsai
guziek!»

—Hiltzalea preso altxatu dute; behinere nehor holakoetan atxiki ez
duten bezala eta gero libro utzi zazpi egunen buruko Ez dute berdin deu-
setarat kondenatu ahalko, *duela* onesten dutenaz geroz. Ba, baina juduak
kexu baitira ordean.

Bertzenaz egia erran behar dugu: *Duel* joko hori nehon den jokori
zoroena eta itsusiena da. Haurkeria bat litake, ez balitz astokeria. Zer
bada? Gizonek ezin, hortara gabe, elgarrekilako gora-beherak antola? —
Zertako dira tribunalak? Eta gero hobendunak bertzea kolpatzen edo hil-
tzen badu? Zer gizontasuna?

Bizkitartean hori onartzen dute egungo egunean asko gizon, iduriz
zuhurrek eta izenez giristinoak direnek. —Nahi badute ba.

Bainan hori aspaldikoa da. —Nahi badu ba. —Mores eta bereziki
Drumont gure aldeko beroenatarik dira. Erlisioea maite dute, bere ahal
guziez badaukate gure aldea juduen kontra. —Nahi badute ba. Hobeki
egin lezakete erlisioea pratikatzea, orroitzuz duelean artzen direnak eta
hartan parte hartzen duten guziak Elizaz kondenatuak direla, eta esku-
mikoak joak; hanbat gaixtoago hori ahanzten duenarentzat, nor nahi izan
dadin, judu ala giristino!

Behin bazen eskualdun gizon gazte bat soldado. Erran behar da sol-
dadoek elgarren artean makur handixkorik dutenean, *duelean* artzera bor-
txatuak bezala direla. —Bai ote, bortxatuak? Nahi badute ba. Ori, adiski-
dea, eskualdun soldado horri eman zioten beharrondoko bat. Bai eta
hark bertze biga. Eta gero, nola nahi baitzuten bere lagunak *duelerat* bildu,
erran zioten harek, bipil-bipila: «Nahi baduzue, ariko naiz *duelian*; baina

nik hanta harmak». —Bertzek baiezu. —Eta harek, bi eskuetara tu eginik
bertzeari kontra torratzen dituelarik: «Goazin beraz esku huts».

Batek irri, bertzeak irri: *Ainsi finit la comédie*.

Eskualduna, 1892-07-01



OSTATU ETA OSTALER

Bazter guzietarik solas berak heldu zauzkigu: ez dela gehiago nehun ostatu behar bezalakorik, ez dela ostalaren aldetik den gutieneko artarik, ez larderiarik, beren etxeari zor zaion errespetuaren begiratzeko; ez dela gehiago, ez iganderik, ez astelegunik, ez erretirarik, ez deus onik. Zoko guziak ostatu oker tzar batzuez beteak; edo zoin egunez, edo zoin tenorez, auzoetako gizon guziak ostatu hetarat bilduak; gau eta egun osoak han alfer, arnoaren izena ematen dioten pozoinkeria batzuetarik edan eta edan: hanxet daudezila gizon gazte langileak, aita familiako zaharrak, oro baltsan batzu bertzen galgarri.

Bertzelakoak ziren lehengoko ostatuak, bai ostalerak, bai eta ostatuetan zabiltzan gizonak. Nor ere baitzare, hau irakurtuko duzuna, orroitz bazare orai duela hogoi, berrogoi urtetako berriez, eman ditzagun orduko ostalertsak etxeko-andreak, *egiazko etxeko-andreak*, beren etxean beti oneski, eta behar-orduan gizon batzu bezala mintzo zirenak, nehorren beldurrik gabe; ostatuak beren tenoretan xuxen hesten zituztenak, eman ditzagun oraiko ostalertsen aldean. Ahalge eta okaztagarri da ikus-tea zoin lazoak, zoin ez-axolatuak diren egungo egunean, ostalergoatik bizi direnak.

Estakurutzat emanen dautzute ezin-bertzean direla. «Ai, jauna, bazinaki ongi zer buru haustek ditugun! Eta halere, ezin bizi, dugun irabazitik. Azken ofizioa da, hitz dautzut, gurea!»

Egia diozu: hala da: *azken ofizioa*.

Nundik heldu da bizkitartean ofizio nardagarri horri jendea hainbertze emana baita? Nundik heldu da, lehenago ostatu bat edo biga baik ez ziren tokian, baitira orai bortz, hamar eta askotan hogoi ostatu?

Hirietan ala oihanen erdian, etxen erdiak ostatu; batzu agerian, bertzeak gordez, arno saltzen, aguardient saltzen; dela koñaka, dela *bermut*, dela «*chartreuse*», zer nahi izenetako edari guzietarik urrats guziez, edateko. Erran gabe doana, oro dirutan, oro sakelaren eta osasunaren kaltetan Ostalerek, berea biltzekotz, ahal bezen merke erosi... edo *egin* edarietarik ahal bezen hainitz eta ahal bezen kario saldu nahi. Halere ostalerak ardur hartze baino zor gehiago: ezin bizi, ostatuko irabazitik. Eta beren ahotik beti solas bera: «Azken ofizioa...»

Zer egin? Erratea bezen errex balitz egitea, baginakike berehala zer egin. Ez gintzazke, beheraxago aipatzen dugun *andre auzapez* zorrotz

harek bezala, ostatu guziak legeaz hets-araz. Bainan erdiak ba, berehala hets gintzazke, edo bederen berririk egiterat ez utz. Emeki-emeki ttipi litazke. Ttipitzearekin gehixago irabaz lezakete, bai eta ere menturaz bere ohorea hobekixago begira.

Lege bat ezarria izan baladi oro hunkitzen gaituen gauza horren gainean, ez litake nehorentzat kalte. Ez dugu nehor bereziki begietan. Ez daukagu ere gure errana nehorik gaizki hartu behar lukela. Ezen asko tokitan orai diren bezalako ostatuak deus onik ez dira, baizik ere elgarren poxolu; elgarren jale, eta bertzen galgarri.

Eskualduna, 1892-09-02



APEZ BAT HERRI BAKOTXEAN

Asko aldiz entzun dukezu gizon zoro batzuen ahotik solas hau: «Eskual-herrian bai eta Frantziako bertze zenbeit tokitan behar baino gehiago apez badire. Hala nola erretor eta bikario bat edo bia diren herrietan, zertako dire bi edo hiru apez? Bat aski da herri bakotxean gaineratiko guziak sobera dire».

Egia da horrela mintzo diren gizonak ez direla mila hanbatekoak; bainan ordean izaki halakoak ere! Eta ez badira ere gutartean nehon hanbat sinetsiak, halere beti mintzo; eta gehiago dena, heien erranak indarrik aski, buru ahul zenbeitetan sartzeko.

Dugun ikus zer ihardets dezoketegun, egiari zor zaion bezala, xuxen eta garbiki mintzateko.

Iduri luke horrelako ahapaldi buru buztanik ez duten horien aipatzea bera kasik nardagarri dela. Egiazki hala da ere. Bainan zer egin deza-kegu, baizik ere etsaiak derasatzan gezur eta *berdolikeria* guziera muturra hauts, nahi bezen okaztagarri izanagatik? laster bakea ginuke, ele tzarrak eta heien erraileak bazterretarat uzten ahal bagintu. Bainan ezin-bertzea dugu. Bardin deus ez gira ari, ixilik egonez, etsaia geroago eta makurrago eta gaixtoago doan denboran.

Eman dezagun Eskual-herrian ez dela herri bakotxean apez bat baizik; herri tipietan bat: handietan ere bardin bat. Hartarat geroz, herrian sortzen diren haurrak batea detzazke, bai eta hilak ehortz apez bakar batek, non ez den eri... Bainan eritzen edo hiltzen denean, nondik atera haren ordaina, bertze guziak zoin beren tokietan banazka balinbalire? urte gutirik barnean herrien erdiak apezik gabe gelditzerat heldu litazke.

Erran gabe doa hilen ehortzeaz eta haur ttipien bateiatzeaz bertze lanik baduela apez batek. Sortu berriekin eta hilekin baino gehixago zerbait badu egiteko, bertzeekin, nahi baditu bere eginbide guziak bete.

Ez naski, ez luke egiteko handirik, ez baliote nehork lan gehiago emaiten gorago aipatu jaun horiek baino Bainan, Jainkoari esker, ez dire oro heien iduriko; ez eta behar ere.

Zer nahi lukete bada, ala sortzeko eta hiltzeko bi egun labur hetaz kanpo erlisionerik gabe bizi? Edo bertzenaz apezik gabe ikasi eta begiratu erlisioneaz?

Doazila Frantzia barnerat. Han kausituko dituzte herri anitz, eta herri handiak apez bakar batekin; heien aldean bertze frango, *apezik bate-*

re gabe; zirenak hil, eta ordainik ezin ukan, *soberakinik* nehon ez delakoan. Han ori, ez dute emaiten apezek poxolu handirik. Halako tokietan diren apez bakarrek ere, badute zorigaitzez aizina edo astia frango. Igandetan meza ixil baten entzutea bera sobera zaiote frango gizon eta emazteri. Eliza hutsean, elizako lau murrer hotzeri behar da mintzatu han apeza, igande sainduan!

Hartaratua nahi ote lukete ikusi gutartean zenbeitek Frantzia guzian, eta bereziki Eskual-herrian erlisioneaz eta erlisionearen erakasle Jainkoak mundu huntan ezarri apeztasuna? jainkoak begira baitzala zorigaitz hortarik!

Ez, ez dugu utziko galtzera, ez eta gutitzera gure Eskual-herri maitean apeztasunaren hazia. Gure haurretarik bat edo bertze Jainkoak bere zerbitzurat deitzen duenean, ez dugu gibelatuko, bainan bai lagunduko bere xedera heltzen, gure ahalaren arabera; eta bihotz onez!

Bihotz onez emanen diozkagu Jainko onari galdatzen dauzkigun guziak, orroituaz hari emana behinere ez dela gal.

Badakigu zenbat traba, zenbat ele nahasi, lege tzar eta maltzurkeria derabilaten debruak eta harekilakoek, gure erlisione sainduaren errotik kentzeko. Hartarakotz are gehiago nahi diotegu erakutsi gure herritar eta bereziki gure odoleko apez-geieri gure atxikimendua, orroituaz berekin dakarketela gure ondokoen artean fedearen gora-behera guzia.

Eskualduna, 1892-09-09



ALFERRAK ESKE

Harritzeko da zenbeit urte hautan nola Eskual-herriko bazter guziak eskelariz beteak diren. Urrats bat ez dezakegu egin etxetik kanpo, gizon edo emazte, zahar edo gazte, sos galdatzale bat buruz buru egin gabe. Etxen sartu zare ba? Pan, pan! hela! —Nor da hor? —Ni, laguntza zerbeiten galdez, eri naiz, barneko minak xahutua; nere laguna ohean dut ezindua; haurrak buluziak; nihaur ori hemen, ikusten nuzun bezala...

Ikusten duzu izaitez emazteki bat pizkorra, zangar besoak azkar, gerria lodi, haur bat besoan, hari so, zure bihotza nahiz hauts-arazi, haur gaixo hura beharretan ikustearekin.

Bertze orduz gizon bat izanen da, zuk eta nik baino gehiagoko gaitzik ez duena, baizik ere *alferkeria* eta *bordikeria*. Nork eman halako bati eskura sosa? Eta bizkitartean nola utz deus eman gabe, urrikalmenduz ez bada, bederen bakearengatik, gaixtakeria zerbeiten edo ele tzar baten beraren beldurrez? Nork behar du ihardoki asko aldiz, gizon bat ere ez den etxetan, halakoeri? Alabainan azkarrena, eta beharrik gutiena dutenak dire ardura kopeta eta mihi tzarrekoenak. Zoazi zu halako baten etxetik kentzera! Aiher dire zer nahi errateko eta egiteko!

Hala da hori. Hortakotz herrietako buruzagieri loakokete begiak erne eta zorrotz atxikitzea, beharrik gabe, hor harat hunat, eske dabilzan ez-axolatu horieri. Izi aldiño bat on lukete artetan, bizitzen ikasteko.

Lege bat bada Frantzian aspaldi egina, bainan egia errateko, buru buztanik... ez eta adarrik ez duena. Hura da *eske ibiltzea debekatzen duen legea*. Bizkitartean, lege horrengatik beti izan dira, oraino ere izaki, eta beti izanen eskelariak. Garbiki erran behar dugu ez garela lege horren alde.

Ez; onartzen ditugu ezin-bertzez eske dabilzan errumes gaixoak. Egiazki urrikari ditugu halakoak, bereziki gaztedanik estropiatuak edo lanean ezin arizko adin batetara helduak direnak. Jainkoak begira nezala heietaz gaizki mintzatzetik!

Orroitzen naiz oraino nere haur denboran nola egoiten ginen xortuak ixil-ixila erdi urrikalmenduz, erdi errespetuz beteak orduko eskelari maitagarrieri begira. Hein bat polliki bazakiten amoinaren galdatzen. Eta gero ukaiten zutena hartu eta beti begitarte on berarekin bazoazin... Ez berehala, ohoin batzu iduri, bainan zazkiten otoitz guziak hantxet eginik, bai eskuaraz, bai latinez, etxe hartako bizien eta hilentzat. Ageri zen zinez, bihotzez ari zirela.

Oraiko eskelariak aldiz iduri dute ez dakitela behar bezala zeinatzan ere. Eta batzuek, alegia otoitzean, zerbeit murruskatzen badautzute ere, errexki ohartuko zare heien otoitza ez dela ezpainez barnagodanik heldu.

Zer diot? Anhitzek ez dautzute hitz bat ere erranen. Diruari baizik ez dute eskerrik; eta hura eskuratuz geroz, itzul gibelaz, bertze aldi arte.

Oroen buruan oraiko eskelariak eskergabeak balinbadire, ez dire gutiago urrikaltzeko, egiazki beharrak direnean. Bainan beharrik gabe dabilzan horiek ez detzazkegu jasan. Eskual-herriko auzapezak otoizten ditugu halakoeri buruz orroit ditezela bada beren eginbideaz.

Eskualduna, 1892-09-30



«MESSIEURS LES MENDICANTS SE PROMENENT»

Behin bazen neskato gazte bat ezkondu nahia; ez ahal baitzen bakarra! Bazuen gizon-geia ere; baina ezkondu gabe, nahi zuen ikusi, ea gizonak, ezkondu-eta, eginen ziozkanez harek nahi zituenak, ala buru gogorrekoa ote zen?

Galdatu zion beraz emazte geiak gizon-geiari, harekin ezkontzekotz, egin zezola lehenik atsegin bat. —Baietz, gogotik, harek egin zeza-keena balinbazen. —«Zer nahi duzu egin dezazudan? —Beharko zira ibili zenbeit egunez eske. —Ni eske? —Ba, zu eske; edo ez gira ezkonduko».

Erran behar da biak bi etxe onetako seme alabak zirela. Bitxi iduritu zitzaion eske ibiltze hori mutikoari. Ba, baina zer egin? Ezkondu nahi futxo hura ere, eta emazte-geiak buruan zuena ez arai zangoan izaki... Hor hitz-eman zion mutikoak; joanen zela beraz eske zenbeit egunez.

Hitz-eman eta hitz atxiki; alta ez errexi, hastean; ahalgez urtua zabilan, alpotxak bizkarrean etxez-etxe. Bizkitartean, ahalgea behin zangoan ezarritz geroz, aisexago zoen. Holatxet ibili bizpahiru aste.

Emazte-geia kexu, senar-geia ez ageriz. Bilatzen du eta bilarazten zazpi herritan inguru. Azkenekotz hatzemaiten du harat joana, urrun, zakua beterik, tripa bero eta sakela gori.

Hatzeman ba, baina nehondik neholere ezin bildu zuen ezkontzerat. Gizon gazteari laketu zitzaion eske ibiltzea. Nahiago zuen ezkondu baino eske ibili.

Izaitez bizipide ona izan behar da eske ibiltzea; ezen orori laketzen zeie. Behin hartuz geroz bizipide hori, nehork, ez du behinere utzi, ene jakinean; zurean ere ez eiki?

Jende guzia, egungo egunean, errenkura da: bizipideak oro galtzen ari direla; ez dela gehiago nehon deus irabazpiderik, bertzeak bertze, konkurrentzia madarikatu horrek xahutzen dituela oro. Joan eske; ba, ez dire jaun eta andre eskelariak konkurrentziaren beldur; ez deie arai heier konkurrentziak bidegabe handirik egiten Ezen badabiltza gostuan, batzu bertzeen ondotik, lerro-lerro; eta batzutan bardin elgarrekin multzoka. Batere ez dute elgar poxolu; emailearentzat da poxolua. Berritan erraiten ginuen etxe-aintzin, bide-bazter, xoko guziak oro eskelariz beteak zirela. Huna non abiatuak zauzkun orai burdin-bidez. Ba, ba, burdin-bidez eske. «Messieurs les mendiants se promènent en chemin de fer, s'il vous plaît».

Aspaldiskoan ohartua nintzan bazirela nere herrian bat edo bi eskelari zahar, holaxet herri batetik bertze burdin bidez ibilki. Gogoan guti edo aski erabili ere dut nere baitan: zer? Eske burdin-bidez! Ez baitute nahiago holakoak eta halakoak astoño bat hartu, eta haren gainean ibili, oinez ez badabiltzke!

Horrengatik, ixil nindagoen, eta ez nuen egun hemenxet hau aipatuko, baldin ez balaut adiskide batek urrundik igorri; beha dagola, noiz mintzatuko giren Eskualduncan, burdin bidez promenan dabiltzan eskelariez. Non nahi noiz nahi omen dira eskelariak burdin bidez ibilki. Dio ene adiskidea; ikusi dituela berak bere begiez, behin baino gehiagotan, eskelariak burdin bidean; bai eta bertzetarik ere ba entzun. Galdaz dezo dala, ez badut sinesten, Ximuni eta bertze askori; orok ber gauza erranen dautadela: «Nos mendiants se promènent en chemin de fer».

Ederra dugu hau, eta holetan egia; eta ez bakarrik toki batetakoal Oraino bederen eskelari eriak badabiltza holaxet... eri edo xahartuak, ezinduak; beren zangoek eta eskasek herri batetik bertze ez deramazkitzatenak? Hala nola baita ene ezagun eskelari bat, egiazki beharrez dabilana eske. Ez naiz hemen harentzat mintzo ez eta haren idurikoen-tzat... nahiz bizkitartean balitaken ja hor hitzño baten leku; baina emagun ezinbertzez dabiltzala hek.

Zer erran bertze batzuez? Oinez ibiltzeko zu eta ni bezen on litazkelarik hor harat-hunat, burdin-bidez dabiltzan eskelari hoitaz, amigo, zer erran?

Oh! gaizki dabiltzala; bizitzeko estakuruan sosa bil, eta gero hor gaindi hamar, hogoi soseko bat xahu, promenatzeko, edo alferkeriaz, zangoak higa beldurrez. Bada izari bat orotan. Bakotxak har dezala berea: baina badakit nik norbeit, holako eskelari, oinez doazken hoitarik bat behin ikusten badu burdin-bidez doala, arditik gehiago emanen ez diona. Hanbat gaixtoago.

Eskualduna, 1892-10-07



BA EDO EZ

«Badakizu zer diozun? Ez ginuen sekulan asmatuko izan zaitekela aski gizon atrebiturik, gure artean, erraiteko, finkatzeko, Eskualdunak baduela, *bi begitarte*. Zer ausarkeria! Zer gezurra!

Eskualduna! Gizon guzien artean famatua daukatena bere *leialtasun*, *frankezia*, eta oroz gainetik *gizonak lur huntan izan detzazken kalitate on* guziez, *bi begitartetakoa? ...? ...?*

Nor da mintzo horrela? *Réveil Basque*, gazeta gorria, eskuara eta frantsesa biak bardin dazkiena, eta oroz gainetik, gizonak mundu huntan jakin detzazken mintzaire eta bertze gauza guziak bardin dazkiena eta oraino, oroz gainetik... hobekiago!

Hortarik hasi eta, igortzen dauzkigu *Réveil Basque*-k bi lerro, eta oroz gainetik lauetan hogoi-ta hamalau lerro, samur-samurra; eta gehiago dena, biziki samur.

* * *

Zer egun diogu ote *Réveil Basque*ri guk, horrela samurtzeko? —Zer egin diogun? Ahalgerek behar dugu aitortu: egun hamabortz, erran dugu badirela gutartean gizon batzu, bi begitarte dituztenak. Hori zaio gaitzitu *Réveil Basque*-ri. Ez omen dezake neholare onets baditakela Eskualdunik, bi begitartetakorik?

Beha zazu: Nork behar zuen erran *Réveil Basque*-ri, eian ez duen nehor ezagutzen bere adixkiden artean bi begitarte dituenik: begitarte bat eta aho bat, noizetik noizera Jainkoaz, erlijioneaz, Eskualdunaren *leialtasunaz* espantuka beso-gainka mintzateko; eta bertze aho bat, bertze begitarte bat, Eskualdunak sinesten eta maite dituen gauzarik errespetagarrienez trufatzeko. Eian, *Réveil Basque*, emozu behako bat zure mirailari, ikusteko zonbat begitarte dituzun, eta nolakoak...

Mintzatu girenean bi begitarte dituzten gizonez, ez dugu aipatu, guk, ez Eskualdunik, ez kaskoinik, ez eta *Réveil Basque*-rik.

Xoilki hau erran dugu; *eskoletarik erlijionea kentzen duen legea ona balinbada, zuzena balinbada, lege horren alde direnek, eta bereziki horren azpiko diren jaun errienta eta andre errientek behar luketela lege hori den bezala begiratu*. Erran dugu asko errienta eta errienta laiko, berek egin legearen kontra ari direla katixima erakusten, gobernamentuko eskoletan. Eta hori zertako?

Jendearen enganatzeko; begietara errauntsaren emaiteko; haurren gibela-tzeko eskola giristinoetarik. Erran dugu lege hori ez begiratzekotz, behar litakela kendu. Ez lege, bai lege; katixima utz eta har; har eta berriz utz; otoitzak orobat: hori ez dela gizontasuna erran dugu.

Ba, erran dugu: hori dela bi *begitarte ukaita*. Zer da gero egia balinbada? *Réveil Basque*k derragula, egia denez hori, bai ala ez?

Badea Frantzian lege bat, gobernamentuko eskolak erlijionerik gabe nahi dituen?

Bai ala ez? Lege hura zuzena dea? Bai ala ez? Zuzen edo makur, legea denaz geroz, behar dea lege hura begiratu orotan bardin? Bai ala ez?

Lege bat, on edo tzar, egin ondoan, lege haren aldekoeri azpitik esku emanez, bizkitartean berek lege hura hausten dutenak, nor nahi izan ditzen, bi begitartetakoak direa? Bai ala ez?

Emaguzu horren gainean arrapostua xuxen, *Réveil Basque*. Gero egi-nen daukuzu, nahi bezenbat espantu eta larderia. Bainan aldi bat otoi mintza zaite xuxen. Ihardets ezaguzu galde horien gainean: ba edo ez.

Eskualduna, 1892-11-18



PANAMA

Izen hori ematen diote bi Ameriken erdian den lur zerrenga hertsia eta luze bati. Amerika guzia, burutik buru hartuz, bi zati handitan beza-la da. Bi leihor handi dire, delako lur zerrenga hartaz elgarri josiak. Hura ez balitz, bi aldetarat urez-ur joaitea errexago eta laburrago litake. Orainahi bazira Chilerat joan urez, behar duzu itzuli bat egin, gaitza handia eta luzea!

Hortakotz nahi izan dute bi Ameriken arteko lur-muga hura hautsi eta handik aldean bertze urari bidea egin, untziak xuxen-xuxen han gain-di ibiltzeko, bertze itzuli handi hura egin gabe Ba bainan nork eta nola hauts lur-muga hura? Liburuetan ikusi eta iduri du biziki hertsia eta hauts-errexela dela. Hala da ere... *araberen*. Nahiz hertsia den, baituke ordean eremu puska bat halere! Mendixka batzu omen dire han, askitto gorak; barne guzia harri. Heien artetik egiteko, naza handi bat bezala, uraren bidea, zioten hastetik ere, beharko zirela ez dakit zenbat *miliun*! Izigarriko soma bat! Halere ez ziren lotsa izan zenbeit, lan dorpe horri lotzera... *bertzen diruz*.

Ferdinand de Lesseps izena duen jaun Baiones batek hartu zuen bere gain lan horren egitea. Lehenago ere bazuen hantxek, Suez erraten dioten toki batean, holatsuko lan bat eginga. Bainan Panamako hori dorpeago izanen zela beldur ziren. Zioten ere batzuek lan hori gizonaren indarrez goragoka zela. «Ezetx-Baietz». Hor abiatzen dire lan horren egiten hasteko diru galdez.

Gazeta handi guzietan ezar-arazi zuten: nahi zuenak ongi irabazi, aski zuela hortan emaita sosa. —Zenbat beharko da? Deus kasik ez *has-tean: berrehun miliun*. Bakotxak bortz ehun edo mila liberako batez, zioten somatto hori berehala bildua zitakela. Gazetan errana sinetsirik, biziki irabaz-bide ona zela, anitzek erosi zituzten *actions* eta *obligations* deitzen diren titulu batzu. Titulu horiek oro *bortz ehun* liberakoak ziren. Ahal zuten guziek erosi zuten *bat* bederen; bertzek biga edo gehiago. Iduri zuen ez zuela nehorik galtzeko beldurrik.

Hasi ziren lanean, Jainkoak daki nola! Nehon diren judu eta alfer mandrineria jende-jale guziak bildu ziren *sosaren* usainera *Berrehun miliun* hek berehala suntsitu ziren berrehun sos baizik izan ez balire bezala. Nehorik ez du egundaino jakin noren sakelan sartu diren hek oro. Edo balinbada dakienak, ez da oraino mintzatu.

Lan hasia, edo alegia hasia ezin utz. Ra-ta-plan-plan-plan berriz diru galde! Gazeta tzar egileak ongi pagatuz espantuka has-arazi zituzten: «ez zela halako irabaz-biderik!»

Gezur hori anitzek oraino sinetsirik, emeki-emeki bildu zituzten... zenbat miliun, zure ustez? —Bertze berrehun? —Gehiago. —Lau ehun? —Gehiago. —Zortzi ehun? —Gehiago. —*Hamabortz ehun miliun*!

Frantziako jende langile bizikariek harmairu xokoetan, soska soska bazterrerat emanik zauzkaten diru guziak; oro garbitu zituzten.

Hamabortz ehun miliun: burtzoragarri da soma hori gogoan hartzea bera. Eta hori guzia gall! Eta Panama oraino han... zilatzeak!

Lana berriz haste, nahi duenak hasi eta nahi duenak paga.

Noren eskuetan urtu ote dira hamabortz ehun miliun hek oro? Zenbeit urte baditu *Panamako konpainiak* «faillita» egin zuela. Beren sos bakarrik han ezarriak zituztenek bi nigar xorta egin zituzten, berri txar hori entzutearekin. Haro pixka bat ere izan zen behin: behar zirela ohoinak hatzeman: de Lesseps edo delako jaun horri behar ziozkakela konduak xuxen galdatu; hau zela, hura zela...

Ttunpalahara! lokartu zen nolazpeit afera. Buluziak zirenek dolua hartu zuten. Eta nola frantsesa holakoetan ahanzkor baita, iduri zuen kasik ez zela gehiago nehor gehiago hortaz orroît, noiz eta ere gutien ustean berriz afera piztu baita.

Aste huntan ukan dute deputatuen ganbaran afera horren gainetik haro bat, kalapita bat ikaragarria! Auzi bat behar dugu ikusi, itxura guzien arabera, egundaino izan ez den bezalakoa. Diote badirela ehun eta zenbeit deputatu ere, auzi hortarik eskuak garbi eta buruak gorarik aterako ez direnak. Zer boketa! Agian ez dira lo egonen hoinbertze ohoin-piltza-rren harrotzailak!

Eta agian iguzki eder bat jalgiko da osorik aterako diren xurike-tañoen idor-arazteko! Ez dakigu. Beldur gira oihala lohirik gehienak orai-kotzat garratoinak janak dituzketen; eta gelditzen diren undarrak hor harat ura behera joanen diren. Sobera usteldura da bazterretan, nehondik argi onik eta garbitasun handirik igurikitzeak. Agian ba! Gauden beti begira...

Eskualduna, 1892-11-25



GURE INDARRAK

Azkenaren aitzineko aldian naski erraten ginuen ez ginuela aspal-dian, hoin denbora gutiz, hoinbertze ele makur eta zozokeria alde orotarik aditu, nola azken boz-aldi hortarik hunat...

Liburu baten geia baginuke, nahi bagintu oro altxatu eta orori ihardetsi.

Dezagun bakarrik hemen aipa, gure irakurtzale anitzek egun hautan guk bezenbat gogoan duketen gauza bat.

Nahi nuke, hemen erran gogo dudana bi hitzez erran; bainan ez da errex anitz errateko litakenean, laburki mintzatzea. Bizkitartean, dugun ikus, ene irakurtzalea, ea zuk eta nik egun, hitz laburrez edo luzez, elgar adi dezakegunez.

Ori, adixkidea, berehala erran dezazudan, zerbeitxe baino nahiago nuke, zu eta ni, iragan egunetan elgarrekin ibiliak bagine, etxez etxe, herriz herri, boz eske. Jainko ona!

Egiazko azken ofizioa hori da, boz eske ibiltzea. Egia da badirela leherra azken ofizio; bakotzak bere hura dauka beti azken; bainan nik uste azken guzien artean, orotarik azken-azkena den... gazeta egitea.

Ez duzu sinesten, adixkidea? Jarraik zazkit otoi bururaino eta adi zazu hauxe.

Beraz boz aitzineko egunetan, banindoan ni ere bidez bide, bertze zenbeitek bezala nik ere ene ahala egin nahiz zuzenaren alde.

Holakoetan bakotzak zer ere baitu bere baitan edo bere eskuko due-nik, eta hartarik ari da. Aberats denak eskainiko du zilar eta urre. Mintzatzeo jakitatea duena mintzatuko da ahalik hobekien, ez dea hala? Buruz ari ez dena, ar ditake eskuz edo zangoz; bakotxa alabainan duen hartaz balia. Nik beraz nere ofizioa hau izaki eta ez zitzautean iduritzen deus hoberik egiten ahal nuela, ezenez boz-emaile guzietan *Eskualdun* gazetaren hel-araztea, eta ikusten nintueneri neronek eskuremaitea: «Ori, Manex edo Piarres, irakur-azu hori. *Eskualdun* gazeta da; hunek ez du egiarik baizik erraiten». Baia ba? Batzuek ihardesten zautaten: «Gure herrian boz biltzeko munduan den gazetarik hoberena ala deus ez, bate-tara doa. Hemen ez dugu gazeta beharrik; gizonak aski dire, holako pape-rik gabe».

Bertze batzuek aldiz hartzen zuten, eta iduriz gogotik ere hartzen nik eskaini gazeta. Bainan haur batekin gazeta hura zenbeit auzori hedatu ondoan, uste zuten araz lan guziak hartan akabo zirela. Iduri eta gazeta bat aski den, bertze laguntzarik gabe, boz-emailen buruan egiaren sar-arazteko!

Zenbeitek erran ere dautate. Balio du holako gazeta baten hedatzea! Ezतिकegi mintzo da *Eskualduna*. Ez duzue aski kopeta. Behar zintuzkete gorri horiek errautsi...

Hau eta hura; ehun mila estakuru. Huts guziak gure gain. Nahi nuke nik jakin horrela mintzo direnek, zer egin ote duten berek?

Zer egin dute, eta zenbat agertu edo behartu dituzte beren buruak «gorri horien errausteko?»

Guti, guti. Haro egile handienek gutienik. Españolak erraiten duena: «*muchos espantos y pocas obras*».

Bozak joan dire ba, eta gaizki joan? Horra egundainokoetan gure gizonak zoin bere eskualde mintzo. Batek hau; bertzeak hura. «Nik hau egin; nik halakoari hala eta hula erran».

Muchos espantos beti.

Ah! *Eskualdun* hori hedatu balute gehixago! Azkarkixago mintzatu balitz! Hau edo hura erran balu goraki!

Ori, adixkidea, nahuzu trenka dezagun solasa? Orok gure errateko-ak badituzkegu. Eman dezagun, egia den bezala, oro guti edo aski hoben-dun girela, batzu kopeta eskasez, bertzeak lazakeriaz.

Bainan nik onets ez dezakedana da aditzea gazeta batek egiten duela bozak xuxen edo makur joaitearen gora-behera guzia.

Gazeta batek badu beti bere indarra, bainan ez du berea baizik. Batzueri iduri zaiote ez dakit zer egin dezakela *Eskualdunaren* heineko gazeta on batek; bertze batzueri deus ez zaiote.

Goazin bierartetik.

Ni, gazeta egilea naiz; eta bizkitartean ez dut baitezpadako ilusione-rik, hemen erraiten ditudan egien indarra urrun, urrun doakela.

Guk ez dugu hemen deus egiten ahal, hazi onaren tzarretik berex-tea baizik.

Bertzeri doakote hazi haren hedatzea, haren begiratzea ihizi gaixto-etarik eta sortu ondoan ere, handitu arte artatzea.

Bada frantsesez erran zahar bat solas huntara doana: «*Si chacun balaie devant sa porte, la rue sera propre*».

Erran nahi baita: Bakotzak bere etxe aitzina garbitzen badu, karrika guzia burutik-buru garbi izanen dela.

Utz ditzagun ele alferrak, eta jo aitzina. Bakotzak bere eginbidea bete dezala, guk eginen dugu gurea ahalik hobekiena.

Adixkideak, lagun gitzatzue, bazterretikako elek lotsatu gabe.

Eskualduna, 1893-10-06



EMAZTE ELEKETARI, BURU GAIXTO...

Behin baziren bi senar emazte xahar. Emaztea etzen baitezpada gaixtoa, nahiz adin batetaz geroz emazte gehienak gaixtatzen diren. Oxala ez balire oraino gazterik hartaritzen!

Beraz gure atsoa etzen gaixtoa; bizkitartean etzen ere itzalik gabe-koa. Bazuen aztura bat neholere ezin utzia: mihia luze eta zalu; ezin egon mintzatu gabe. Senarrak hau edo hura erraten zionean, edo zerbeit gora-behera gertatzen balinbazen etxean, berehala bazoan emaztea lasterka auzoz auzo, orori erratera; guziek behar zuten jakin haren berri. Etzagoken ixilik.

Eta gero deus etzuen erraten garbiki eta xuxen, ikusi edo entzun bezala; zenetik etzena behar zuen egin, xehetasun guziak handituz eta edertuz ez dakit nola; asko aldiz orobat guziak burutik buru berak eginenez. Aipatzea kasik bitxi zitaken gauza batetarik eginen zuen mendi bat, sagutik otsoa, ulitik arranoa.

Behin baino gehiagotan senar gaizoak behar ukan zituen jasan emazteak bere mihiaz batzuer eta bertzeri egin bidegabekotasunak. Emaztea emaztekin samurtu eta, azkenean gizonak gizonari jazartzen zitzazkon, iduri-ta hura zen orotaz hobendun, gizagaizoa!

Egun batez gure xaharra joan zen, behiak uztarturik orgekin, oiha-nerat otetxaketa. Patar bati behera zoalarik, horra non ohartu zen lurra bertzetan baino han harroago zela; iduri zuen irauli edo aitzurtu berria; zenbeit tokitan beheititua zen, eta zangoa gainean eman orduko zilo bat egiten zuen.

«Zer da hau? Hemen behar ote zaizkit sarturik gelditu nere behiak eta orgak. Goazin ikus lehenik ea nork zer egin duken lur huntan?»

Hartzen bi eskuz aitzurra, eta emekiño hasten da lur igituaren altxatzen. Hiru zehe barna zilatu dueneko, agertzen zaio lurpetik untzi baten ezkina. Inguruan kentzen du lurra bazterretarat, eta zer du hatzemaiten? —Eltze handi bat urrez eta zilarrez betea...

«Ah! zer fortuna! Oraikotik aberats gira zu eta ni, Maria.

«Ba, Mariak ez baitaut ordean atxikiko sekretua. Bihar goiza gabe, herri guziak balakike; alta bada holakoak eta halakoak jakinez geroz, zer hatzeman dudan, ez diagu bakerik, ez bizi onik. Zer egin...»

Bide bazterrean jarri eta han zagon bere buruarekin gogoetan Extebe, behiak hatsmarrun ari zirelarik.

Azkenean xutitu zen jauzi batez bet-betan, zerbeit mirakulu gogoratu balitzaio bezala.

Eltzea bere urre eta zilarrekin sartzen du berritz lurpean; estaltzen du lur igitu hura ongi ostoz eta laparrez; eta badoa bere bideari aitzina otetxaketa. Orgak erdi hutsik joan zen etxerat, xoria bezan arin. Behier uztarria kendurik, emazteari deus erran gabe, etxe giblean gaindi, joan zen handik auzo hiri batetara.

Hiri hartan erosi zituen xarbo bat eta erbi bat, biak bizirik; eta joan zen etxerat oihean gaindi itzulian.

Xarboa ezarri zuen buztanetik estekaturik haitz baten gainean, adar gorenatarik batean. Erbia aldiz ezarri zuen ur handiaren erdian soka luze batekin harri handi bat zangotik, ihesi hoan etzadin...

Gero badoa lasterka eta bide laburrenez etxerat. Etxen sartzearekin erraten dio emazteari: «Ez dakizu, Maria, zer ikusi dudan oihean? —Zer ikusi duzu, Extebe? Erradazut berehala; erretzen ari naiz, jakin nahiz. Ah! banuen ba, beldurra, zure begitarte arina ikustearekin, zerbeit bazi-nuela errateko. Badaa berriagorik? —Ba, bainan, Maria, zuk orori salatu-diozute ene balentria. —Ez, gizona, nehoi ere ez diot aipatuko.

Ez ea nehoi ere? —Nehori. —Hitz-emaiten dautazu beraz? —Hitz-emaiten dautzut; behar duta besoa altxatu, zin egiteko? —Ez, ene Maria. —Beraz, Extebe gaixoa, errazu otoi, zer da? —Zer da? —Zato hunaxe hurbil, Maria; beharri xilora erranen dautzut. Ixil-ixila, egon gero eni, haurkeriarik gabe! —Ba, gizona, ba; bainan erdi zaite hortik; xigortua nago hemen; zer ote dukezun? —Huna zer. Oihean hatzeman dut eltze handi bat diruz eta zilarrez mukurru betea. —Zaude ixilik! Ba ote? Eta zertako ez duzu etxerat ekarri? —Ohoineen beldur nintzan, nihaurek ekartzeko. Nahi baduzu, joanen gira bila biak elgarrekin. —Goazin berehala. —Goazin.

Badoazi beraz oiha-nerat biak elgarrekin. Bidean solas egiten dute. Senarrak erraiten dio emazteari:

«Egun hautan ikasi dut gauza bat, uste ez nuena: arraintzaleak ihiz-tari bilakatzeraz omen doazi, eta aldiz ihiztariak arraintzale. —Zertako ote? —Zeren eta, Maria gaixoa, oraiko arrainek arbola gainean egiten baitituzte ohantzeak, eta hala-hala oiha-neratko ihiztariak ur handietan bizi baitire. —Emazu bakea; egia dena da, oraiko jendeak ez dakitela holako gezur buru-buztan gabeko hedatzen baizik. —Ez duzu sinesten, Maria? Sinetsiko duzu, ikusi-eta, soegizu goiti; ea zer den hantxet erdiko haitz-adartto haren puntan?»



Hainbertzenarekin, keinu egiten dio emazteari eskuz eta begiz: «Ez duzu ikusten xarbo hura han dagola dilindan, ahoa xabaldurik, buztanaz abarrari lutua? —To, hala da, ez nuen sinesten, orai ikusten dut. Bainan nola igan da ordean xarbo bat haitzari goiti hoin gora? Nola dago han kokatua? Hauxe da mirakulua! Nola ditake hori? Ez, ez; bada hor zerbeit sorginkeria; zoazte gero, egizue sorginez irri, gizon horiek...»

Gizona han dago xutik, lepoa goiti bihurtua, bi esku-muturrak bi sahetsen gainean landatuak, ahoa zabaldua, begiak luzatuz, bere baitan erraten balu bezala: «Egia balitz, oroien buruan, emaztek diotena: badirela egiazko sorginak? Nork daki?»

Emaztea bere aldetik harritua dago goiti so, beheti so. Begiak torratzen ditu, hobeki ikusteko, xarboa beti han, gainetik behera so, iduri irriz... Bitxikeria!

«Zoazi, Extebe, igan zaite, eta hatzemazu xarbo hori; sarri nik erreko dut, eta zuk janen, ez dea hala? —Hala da».

Igan zen beraz eta xarboñoa eskuatarat bildurik jautsi; eta biak lotu ziren etxerako bideari.

Ur handiaren hegian zoazilarik, senarra bet-betan gelditzen da, uretat begira. Emazteak galdatzen dio, zer duen? —«Ez dakit, Maria; bainan zerbeit bada hemen; ez duzu ikusten ura igitzen dela? Zaude zu hor. —Ez; heldu naiz ni ere, zurekin, zer gerta ere».

Badoazi ur hegari behera; hurbiltzen dire ondoraino, eta zer dute ikusten? Erbi bat uraren erdian igerika!

«Zer erran dautzut nik, Maria? Erbiak arrain bilakatu zirela, ez dea egia? —Egia zen eta hala da. Zoazi, urtuts zaite eta urean sarturik, hatzman ezadazut ihizi hori zangotik».

Erran bezala egin. Badoazi etxerat, batek xarboa, bertzeak erbia eskuetan xoratuak, hogoi urtez bederen gaztetuak.

«Gaurko afaria eta biharko bazakaria baditugu; ez dute orotan hola-ko errekirik. Zer mutur gorria izanen duzun, Maria, zuk bihar arratsaldean! —Eta zuk, Extebe, zer pottoka! —Otoi emazu apa!, emazte erge-la; aditzen bagituzte, xahu gira».

«Handiena oraino ikustekoa dugu». Ehun bat ixtape egin-eta, gelditu ziren berriz, gizonak emazteari ziolarik: «Huna hementxet urrez eta zilarrez mukurru bete eltzearen gordegailua. Goazin emeki deus hautsi gabe».

Baztertu zituzten laparrak eta ostoak; lurra altxatu zuten, eltzea inguruan agertu. Kendu zioten estalgia, barnearen ikertzeko. Oso-oso eta bete-betea zela ikusirik, hartu zuten bi giderretarik; gizonak ezarri

ziona berehala emazteari buruan; eta bera zain gibeletik zarraikion, aha-peka erraten ziolarik: «Maria, badugu behingo ontasun; ez gitu bederen aurtan goseteak hilen».

Holaxet erasian joan ziren etxerat, afaldu-eta oherat.

Biharamunean hustu zuten eltzea, eta bertze zerbeit onez beterik ezarri zuten. Etxeko-andreak hil zuen oilarra, eta gero handik ondoko aste guzian egun oro zilo bat. Hainbertze urte eta zilar-ikustearekin alabainan motoa makurtu zitzaion gure Mariari eta burua... ez xuxendu. Egunduz ez dakit nolako bazkariak eta afariak han ziren; auzo guziak harat-hunat han zabiltzan. Goizetik arrats, gauaz ez egunaz etzen ateratzen jendea.

Extebe gaiztoa harritua: nola iraun, eltze bat urte eta zilarren orde, etxearen bete ukanik ere?

«Maria, otoi goazin emeki; beldur niz... —Zeren beldur? —Buluziko gituzte auzoek, eta larrutuko. —Zer da gero? Jakin zazu, Extebe, eltze-urte hori biek hatzemaña dugula; biena da, eta nahi dutanaren xahutzeko badut nik zuk bezenbat esku. —Ba ote? —Ba naski! Diru hori zurea balinbada, enea da».

Batek ez, bertzeak ba, eta beti azken hitza Mariak.

IXILDU zen beraz Extebe gaiztoa, etsiturik emaztearen hezte, behin nausitzerat utziz geroz.

Bizkitartean ikusi zuenean azken beltzera zoazila, samurturik erranzion: «Ori, Maria, nahi duzuna eginen duzu; nik ez dautzut gehiago dirurik emanen urari behera artikitzeke. —Ez ea zuk? —Nik ez». Batek oihi, bertzeak marruma, hor hasten dire borroka.

Atso zaharra senarrari aztaparka lotzen zaio, iduri-ta begitarte guzia larrutu behar diola: «Haizen bezalakoa! Hortarik ari haiz! Ago, ago; ez diat hire sos zikinen beharrik, alferra, zikoitza, barea, ohoina... ago. Nik begiratuko haut hire diruaz gozatzetik. Zorrez eta zorritz estalia beharko haiz ibili, nahi baduk eta ez baduk, eske, eske hor harat etxetz etxe, bide bazterrean leher egin arte. Ez hiz urrikaltzekoa izanen, hizen bezalako piltzarra!...»

Extebe gaiztoa zen uhar haren pean ikustekoa. Hastean, zerbeit ihardesten zuen; bainan bertzea gero-ta gorago joaki. Senarrak hitz bat, harek chun ta berrehun. Laster garraitu zuen emazteak senarra.

Alta gizagaiztoak ahal guziak egin zituen, bai larderiaz, bai eztitasunez. Harria baino gogorrago zagon bertzea bere hartan.

Nahi zituenak oro erranik, joan zen herriko auzapezarengana, ala ez baitakit ez ote zen bakezko julearengana joan.



«Jauna, zuregana heldu naiz, ene senarrarekin ezin biziz. Burutik badu, edo nik ez dakit nolakotzen ari den. Dakizun bezala, jauna, eltze urre hura oihanean hatzemanaz geroz, nehork ezin jasana da. Alferkeriari emana da; erdietan mozkor arraila; ai ez nitake harekin bizi. Otoi, jauna, edeki ezozu eskuetan duen diru undarra; nahiago dut buluzirik ikusi, ezen ez horditua».

Buruzagiak sinetsi zuen; nork ez sinets bere senarra gaizkitik ezin begiratzu dabilan emaztea?

Deitu zuen gizona bere aitzinera, eta erran zion: «Emadatak hunat eni berehala hirekin derabilakan diru guzia. —Zer diru? Jauna, nik ez dut dirurik. Hobe nuke ba, banu! —Baduk, eta ez duk zeren gorde, ez eta hemen zozoarena egin. Bazakiat badukala eltze bat urre eta zilar oihanen hatzemanaz; alferretan duk egia ukatzen. Hobeki egingen huen, eltze hura hatzeman eta niri ekartzea, edo gutarik norbeiten mintzatzea, jakiteko norena zitaken eltze hura... Dohakabea! Ez dakika gauza hatzemanaren gordetzea ohointza dela? —Barkatu, jauna; bainan zin-zinez erraten dautzute, ez dudala nik urrerik, ez zilarrik ez eta arditik. Nere emazteak amets egin duke, edo ez da bere baitan. Zerbeit errokeria erran dautzu eiki eta zuk sinetsi. —Ez, jauna, gezurra du, dio emazteak berehala solasaz jabeturik, ez naiz errotua; urrez eta zilarrez betea zen eltzea mukurru. Ikusi dut».

Senarrak orduan. «Jauna, ikusten duzu ez dela bere baitan. Ori, galda zozu noiz, non eta nola hatzeman dutan erraten duen eltzea. Xuxen ihardesten badautzu, hitz-emaite duen ditudan guziez buluztea».

Emazteak bazterretik: «Horrek uste badu ere, jauna, burutik maingua naizela, edo berak dakien xehetasun zerbeit ahantzi dukedala, erakutsiko diot ez naizela ez ahanzkor ez maingua. Adi zazu, jauna. Huna nola gertatu den jadanik aipatu dautzudan gertakaria. Oihanera joan gira biak elgarrekin; eta han hatzeman dugu lehenik haitz baten gainean xarbo bat. —Nola hori? Nola erran duzu, Maria? Xarbo bat haitz baten gainean! Ez, jauna; egia nere begiz ikusia erraten dautzute».

Extebek orduan: «Jauna, horra nik errana; ageri da eri dela gure Maria. —Zer derasazu, eri eta eri? Ni eri? Ez alafede zu baino gehiago, ez eta zu bezenbat ere. Badakit xuxen-xuxena zer erraten dutan. Eta zuk, Extebe, zuk ingoitik ahantzia naski hantxet ur handiaren erdian hatzeman dugun erbia?»

Buruzagiak ordu arte lanak izan zituen irria ezin atxikiz; bainan azken hitz horiek entzutearekin, ezin egona lotu zitzaion eta karkallaz hasi zen. «Emazte bitxia!»

Senarrak erran zion: «Gogo emazu Maria; oroen irri-egingarri bilakatzen ari zira; ez ginuen deusen beharragorik! Eta zuk, jauna, ikus-azuek eta ikas behin betikotz; ez direla behar sinetsi emazten erranak».

Buruzagiak ihardesten dio: «Egia da hori; ez dire behar sinetsi. Nork ikusi du behinere erbirik urean bizi, eta arrainik oihanetan, haitz-ondoan gainean? Egiazko emaztea behar da izan, holakorik sinesteko eta bertzeri sinets-arazi nahi ukaiteko».

Ezaguturik etzuela garbitasun osorik jakin ahalko, ez eskualde bat ez bertze, igorri zituen senar-emazteak besoz-beso etxerat, bakean bizi zitela erranik.

Herri guziak jakin zuen berri hori; eta zenbeitek ongi irri-egin zuten Mariaren nahigabeaz. Urrikitu zitzaion ba; bainan berantegi. Esku guziak kendu ziozkan ordutik senarrak; hobeki egingen baitzuen ez baliozka behinere hartzera utzi! Jainkoak begira behin gaina har emazte mukurak! Erreka jo behar du etxeak.

Herrialde guzietan badira holako ixtorio xaharrak. Hau den bezala Rusiatik heldu omen zauku. —Beraz hango emazteak ere eleketariak dire eta buru gaixtokoak? —Holetan ba. Nongoak ez?...

Eskualduna, 1894-03-23



BIZITZE ZUHURRA

Behin baino gehiagotan aipatu izan dugu, zoin hertsia eta neke bilakatzen ari den gutartean bizitzea. Ez da langilearentzat irabazbide onik. Laboraria bereziki beheiti doa, nahi eta ez; batzu lerraka emeki bertzeak lasterka tarrapatan; batzu oinez, bertzeak zaldiz, bainan oro, edo gehienak azkenean beheiti. Eskual-herriko etxalderik ederrenak eta zaharrenak zorren pean leherturik erortzen ari dire batzu bertzen ondotik karraskan.

Etxe ttipiek edo bierartekoek araberan luzazago ihardokitzen dute; bizkitartean gutiz gehienak herstura handitan dire. Lanik aski, xutik ezin egonez.

Harrigarri da zenbat lur eta zenbat etxe saltzen diren urte bako-txean, nausiak beren egitekoetarat ezin helduz! Bertze hainbertze balitaz-ke oraino saltzeko, baldin balute erosle. Nork nahi du ordean etxerik eta lurrik erosi? Nork du ahal?...

Alde orotarik zinkurina berak: alferretan ari dela lanean, lurrarekin borroka; ezin bizi!

Lur-langileak baino are gaizkiago direla diote bertze asko, hala nola harginak, zurginak, zapatainak. Bertzetakorik aipatu gabe, zoazi Hazparnerat. Han dire omen egun hautan zinak eta minak.

Lanik ez edo lan guti ja bi edo hirur hilabete huntan, eta naski behingotz hoberik deusen ikusteko itxura guti. Nola bizi? Nola iraun aria hortan?

Alde batetik lan eskasa, bertzetik zorrek eta zergek beti jaten ari. Zerga handiak ditugu jasaiteko; egia da hori; zor anitz ere ba eiki. Zergak ikusten ditugun heinean balinbadire, ez da baitezpada gure falta edo bederen hala uste dukegu, nahiz azkenean zerga biltzaleak ere guk ditugun izendatzen.

Bainan zuzen ote da, hersturan girelaketz, estakuru guziak oro zer-gen gain emaita? Zuzen ote da erraitea, lan eskasak, zergek eta irabaz-biden galtzeak garamatzatela leizerat? Hitz batez erran dezadan, huts guziak nausienganik edo gobernamentuko gizonetarik heldu ote dire?

Erran dut harrigarri dela ikustea zertaratuak diren Eskual-herriko etxalde zaharretarik gehienak. Nahuzu entzun egia bat, adiskidea? Ez dakit zure gogoaren berri; bainan garbiki erraiten dautzut: gehiago harri-tzen naiz, nere baitan gogoetan nagolarik, ea nola dirauten oraiko etxek?

Ez da ene buruan sartzen ahal, nola mirakulu ez duten oraiko etxaldee-tarik zenbeitek lehenago leher egiten?

Laborari etxaldez erraiten dudana bardin erran dezakezut bertze edo zoin etxez, edo zoin dirudun edo diru gabez, nausi ala langile, zure eta ene begien aintzinean bizi direnez.

So egizu bazterretarat; sar zaite holakoaren edo halakoaren etxean, edo zoin egunez, igande ala astelegun. Goazin bertzenaz, dugun elgarre-kin Eskual-herriko bilkura zenbeitetan itzuli bat egin. Dela herriko besta, dela merkatu edo feria, edo ihauteria, nik ez dakit oraino non eta zer...

Egizu so ongi; jendea nola bizi den etxean, eta nola dabilan etxetik ateratzen denean?

Hazta-zkitzu eta jasta begiz oraiko janari-edariak, untziak, untzite-giak; oraiko apaindurak eta xingolak, eta girgilleriak. Ikus azu etxe hura eta hango edergailuak, haurren jostatzeko zaldi-ta karrosetarik haste.

Erraten dautzut harrituko zirela.

Nondik zuketan jende horiek hoinbertze sos eta diru ez-deuskerian eta behar-gabeko gauzetan xahutzeko?

Bizkarraren gainean derabiltzaten pildazoroak eta zintzurari behe-ra igortzen dituzten zurruburukeriak utzirik, balakite *xuburki bizitzien*; balakite beren buruen behar bezala apaintzen, ergelkeriarik eta izariz goragoko urgulurik gabe; balakite gorputzari emanez behar duen hazku-rria, handik gaineratiko jan-edan soberakin edo galgarrietarik beren buruen zaintzen, nik hitz dautzut, adiskidea, bertzela argi lezaketela orai-ko etxe zaharrek bai eta ere oraiko mutil-neskato gaztek?

Non dire lehenagoko galtzerdi xaharrak, urre gorritz edo bederen zilar xuriz mukurru beteak? Non dire bertze orduz etxe inguruetan iguz-kiari zabal-zabala irriz ikusten ziren oihal luze ederrak?...

Ez da gehiago etxe-altxagarririk deus. Deus ez da iraunkorrik ez eta gehienik behar litazken gauzetarik. Zertako hori? Zergak handituak ditu-gulakotz ote? Ala lanik ez delakotz, eta irabaz-bideak ttipituak direlaketz? Ez, amigo, ez da hori. Zer da beraz? Zer den? Ageri ahal da! Eta zuk hori ez ikusten? Hanbat gaixtoago zuretzat, bertze asko bezalakatua balinba-zira. Bainan halere, gizona itsuak baino itsuago da egia hau ikusten ez duena: ez dela gehiago bizitzerik, erran nahi dut ohorezki bizitzerik, zeren ez baita gehiago xuhurtziarik.

Nehor ez da bere heinean egon nahi. Ttipiak handien, handiak han-diagoen ondotik, batzu bertzei ezin jarraikiz; gure buruak ezin aski apain-duz; jan-edanetan ez jakinez gure tripari manatzen; herrestan bizi gira, biharamunaz orroitu gabe.



Gero datorla eritasun bat; datorla urte gaixto bat: akabo besta. Etxea sal, eta alpotxak bizkarrean eske; edo bertzenaz ihesi itsasoaz haindirat.

Ihesi doazinek halere badukete zerbeit ekualde edo xede on, non ez diren bertzerena ebatsirik joaki. Beldurrak, ahalgeak edo zorren petik nolazpeit ateratzeko nahikundeak darabiltza.

Bainan zenbat ez dire hemen berean gelditzen, eta hemen bizi, bertzerenaren gainean, jaun eta andre handi? Bazter guziak zorrez beteak, eta ez iduri deusen eskasik baduketela.

Gauza guziak arabera hartan dire, xapeldunetarik gutarteko langile xumeenetaraino. Sehiak nahi dire nausi etxeko-andreak bezala bizi, hek bezala apaindu; non ez baita errex ezagutzea nor den sehi eta nor nausi edo etxeko-andre? Nor den aberats eta nor ez.

Ez da erraiteko baizik: badakit herri bat, aipamenez aberatsa, izaitzez ere aspaldian aberats behar litakena. Herri hartan badire asko familia, beren lanetik iragan urtetan aste bakotx hogoi libera, bederen gutienik hamar libera bazterrerat eman zetzazketenak; ongi biziz, eta lanean baitezpada lehertu gabe. Lana ttipituxe da ba edo gelditu zenbeit egunez?... Berehala miseria gorria eta gosete beltza.

Non dire urte onetako irabaziak? Haizeak eremanak aspaldi.

Ez da hor harat hunatik. Ez da bizi-bide onik ez denean zuhurtziarik.

Eskualduna, 1894-08-03

ZERTAZ BIZI?

Behin bazen Uztaritzen mediku bat, Nobion deitua; hastetik berehala emaiten ditut izenak, nor eta non, ez dezazuen gatik uste izan ez naitzela egiaz mintzo. Han dire lekukoak oraino bizi.

Jaun harek bazituen hiru haur, hiru seme tarrotuxeak. Ageri zuten haur heiek, amaren bularra utziz geroz, arrontki bezen azkarki haziak zirela. Barne ona zuten eta larru ederra. Alta bada pereku eta maina guti zuten etxean, beharrez kanpo. Lanik aski bazitzaioten burrasoei beren ume pizkorren haztea eta hezte; nehon ezin egonak baitziren ere; pildak maiz urratuak; beti zerbeit behar goiz arrats zintzurrari behera? Bazuen beraz amattok semettoekin zer egin, heien ongi artatzeko.

Egun batez aitari gogoratu zitzaion, behar zituela haur hoik zenbait egunentzat etxetik urrundu. Burrasoei etxean bakea eta ixiltasuna gozatzearekin, haurrek ere on baitzuketean aire-sanja poxi bat.

Bainan ordean norat igor haurrak? Jaun harek bazituen oihanaldean etxetiar batzu, senar-emazte, haur gotor aralde batekin. Bertze ontasunik ez zuten, osasuna baizik; zer behar da gehiago?

Gure jaun medikua, bere hiru semeak berekin harturik, badoa etxetiarrengana. Gizona oihanean zen abereak uztarturik joana oteketa. Ezmaztea etxe-zain, aza jorran ari. Haur zeheria bat han gaindi etxe-inguruetan itzulipurdikan ibilki; zaharrena zen bakarrik aitarekin orgetan joana.

«Jainkoak dizula egun on, Maria. —Bai zuri ere, nausia. —Ari zare lanean? —Bai, jauna; zu ere ibilki zure haurttoekin? Gaixo haurrak! Engoitik egarrituak dire. Zatozte barnerat, jauna, ur xorta baten edatera, baldin atsegin baduzue gure ur hotxaren jastatzea. —Bai eta gogotik edanen dut nihaurek ere gopor bat ur; bero da bide hortan. —Bai, jauna; eta hemen ardura bazterrak idor. —Zaude ixilik, Maria».

Sartzen dire sukaldera eta pegarreko uretik edaten dute lau aita-semeek «Ah! zer ur garbia eta goxo! Hunek eta hemengo aireak on handi egingen deie gure haurrei. —Nola, jauna? —Maria, behar dautazu atsegin bat egin. —Bai, jauna; eta gogotik ahal badut. —Behar dazkidatzu hiru haur hauk hemen atxiki, gau eta egun, bizpahiru astez. —Bainan, jauna... —Xo, Maria; ez dute deus arta bereziren beharrik. Emozute zure haurrei bezala jaterat eta edaterat. Josta bedite gero hor gaindi oro elgarrekin; eta lo ere hor nonbeit egingen dute; adin hortan eta bereziki udan,



harri hutsaren gainean bardin ongi daude haurrak lo. Maria, otoi ez maina niri haur hoik. —Ez, jauna, ez. —Eta orai, Maria, banoa etxerat; egun on eta izan ongi ni berriz etorri arte».

Jaun medikua berriz etxeratu gabe, bazakiten auzo guziek berria; gure jaunak larrerat ereman zituela bere haurrak. Egintza hori batzuei eder zitzaioten, bertzei aldiz bitxi.

Biharamunean medikua erietarat zoalarik, etxeko-andre batekin egin zuen bidean buruz-buru: Agur, etxeko-andrea. —Zure zerbitzari, jauna. —Zer da berri? —Jauna, barkatuko dautazu; berri da, haurrak oihererat ereman dituzula. Ez dut sinetsi. Egia dea, jauna? —Egia da; eta zer da gero? —Jauna, ez dakizu ongi zer egin duzun! —Nola ez! —Jauna, ez dezakezut erran. —Errazu beti. —Zure haurrak nola behar dire han bizi? —Erran diot etxetiarsari, biziko direla harenak bezala. —Bainan, jauna, zertaz nahuzu bizi diten? —Zertaz, etxeko-andrea, zertaz biziko diren? Eta zertaz uste duzu bizi zirela etxean? Zertaz biziko diren...? Debruen arima? Gu eta gure burrasoak bertze orduz bizi izan garen bezala: «artoz eta mukuz».

Frantsesek diotena: «Autres temps, autres moeurs». Egungo eguneko medikuek bertzela dituzte beren haurrak altxatzen. Zer diot? Medikuek! Oraiko jaun-andre ttipiagoez ere handikixago dauzkate beren haurrak, bai eta beren buruak. Oro maina eta lausengu. Behinik behin bizkarrean derabiltzaten pildak ahalgegarri dire; xingolaz eta girgileriaz estaliak derabiltzate. Jan edanetan, ez dakite zer aski onik eman: sukre, kafe, zokolet, bixkotxa, bonboneria, zurruburru. Arto puska bat miletan hobe bailukete.

Zertako uste duzue laborarien haurrak sanoago direla, bana bertze hirietakoak baino, eta azkarrago?

Bizkitartean, gutartean ere ikusten ditugu burraso zoroak. Irri-egin-garri da ikustea, orotan bizipide on guziak galtzen ari direlarik, zoin diren aita batzu eta ama batzu itu; zoin ahul diren eta buru-gabe haurren altxatzearen gainean.

Hiritarrak osasun bila mendietarat datorzin denboran, gu menditarak bagoazi asko aldiz hirietarat. Haurrak baderamatzagu Miarritzera eta nik dakita norat? itsas airearen beharra badutelakoan. Itsas airea! Hobe lukete arto eta zingar pozi bat.

Ez naiz mintzo eriez; ez eta aberats handiez. Eri denak nonbeitik ona nahi du; eta dirudunak xahu dezake diru, bere buruari kalterik egin gabe.

Bertzeak gauden etxean: haurrak bederen utz ditzagun han handitu arte. Oihanean direnak han dire hobekienik, triparen betetzekoa zerbairetarik duten ber.

Lehenago kanpañarrak zoazin hirietarat bizitzen ikasterat; ikasi ere dute zenbeitik hiritarki bizitzen, behar baino gehixago.

Egungo eguneko hiritarrek behar lukete kanpañetarat etorri, bizitzen ikastera. Balukete zer ikas...

Eskualduna, 1894-08-10



ZEZEN-KURTSAK

Egun zortzi erraiten ginuen, frantses eskualdunak osoki *kaskointzen* ari garela; aldiz gure auzoan Espainiako Eskualdunak, ari direla *Españoltzen*.

Ez dakit oraino ez ote garen gu hemen Frantzian ere espāñoltzen ari? Bertze solasik nuen alta egungotzat gogoan; baina inguru hautako kazeta guziak zezen kurtsez mintzo direnean, ez nauke nik ere hitz bat edo bia erran gabe kurtsa horietaz.

Badut beldurra, ez dutela orok ene errana onetsiko; nahi ez badute ez. Baina erran dut, eta diot berriz ere garbiki *espāñoltzen* ari garela Frantzian. Eta nor? Ez bakarrik gu hemen Frantzia hegi huntako frantses eskualdunak, baina barnagokoak ere, frantses guziak espāñoltzen ari gare.

Ez liteke gaizki, espāñolen aztura onak bagintu. Baina onak utziz, makurrak eta tzarrak hartzen ari ditugu ordean.

Berehala erran dezadan, gehiagoko itzulikarik eta ele alferri gabe, balinbada Espainian aztura zoro makurrik, hori da, zezen-kurtsetako hori. —Ba ote? —Ba, ba oterik gabe, hori da errokeria handienetarik bat. —Ez dakit alaxintxo, erran bazineza Espainian, harrika zintzazketen Espāñolek. —Sinesten zaitut. Hortakotz nago Frantzian, eta nahi nintzuke ikusi zezen kurtsak hemendik urrun, mendi horietaz bertze aldean. Dagozila han, zezen-hiltzale guziak, hunat etorri gabe. Gutartean odol eta orro gose direnak, doazila Donostiarat, edo nahi badute, Madrilerat. Guk ez dugu Frantzian holako beharrik. —Zer mintzo zare, jauna? —Mintzo naiz, gogoan dudaren erraiteko. Arren daukat badugula Frantzian jostetarik aski, bereziki guk hemen, Eskual-herrian. Bakotsak bere gustu. Badute espāñolek solas huni doakon erran zahar bat: «*Hay gustos que merecen palos*». Erran nahi baita badirela gustu batzu, ipurdian zartakoak merezi lituzketenak. Hetarik bat da espāñolek zezen-kurtsetzat duten errabia hori. Itsutuak dire horietara. Nahi badute ba; ez da gutiago egia josteta bat dela, eta bertze aldetik salbai-josteta bat.

Zer ditake haurkeria handiagorik, abere basa bat gizon batekin borroka ikustea baino? Eta zer salbaikeria itsusiagorik, gizona eta zezena, hil edo bizi, han ar-araztea baino: bat adarrez gizonari tripak egin nahiz; bertzea ezpatatz, bi sorbalden erditik zezenari bihotza zilatu beharrez?... Zer atsegina, zezen gaizoa kordokan mihia luzaturik hiltzen ikus-

tea! Gizona hiltzen bada, hanbat gaixtoago harentzat! Ehortz, eta bertze bat bila. —Eta hilaren arimaz, nor da orroitz? Nor da kexu dohakabe haren betiereko etorkizunaz? Nehor ez. Egiazki harrigarri de ikustea mundu katolikoan den populu fededun handienetarik bat, Espainiako populu zahar eta ederra, aztura zoro eta krudel hori den bezen atxikia! Aspaldikoa dute; eta deusek ez nehork ez diote hori utz-arazi ahal izan. Alferretan izan dire Elizako buruzagien erranak, ba eta gobernamentu-ko aitzindarien mehatxu eta gatziguak.

Frantzian ere halaber gertatuko ote da? Agian ez! Badugu esperantza, giristinotasunarengatik, ez bada, bederen gizontasunarengatik, laster aseko dela eta nardatuko Frantzia odolezko eta hertze zilatzuko ikusgarri okaztagarri horietaz.

Luze daramat solasa; baina ez nauke hemen aipatu gabe, iragan arrats batez jaun frantses batek erran dautana.

Burdin bidez nindoan, Baiones bi jaun gazterekin mintzo: hek biak beren kurtsez espantuka; ni aldiz kurtsen kontra. Hek gora, ni gorago Ez-eta-bai askoren ondotik azkenean erran nioten: «Orizue, jaunak, atxikazue zuen eskualdea, nik nerean. Baina uste dut, erlijionerik aipatu gabe, gizon diren gizonak, gizon direlakotz, nik bezen higuin dituztela zuen kurtsa tzarrak».

Guri buruz xoko batean jarriarik zagon gorago aipatu bertze jauna. Ez dakit nor den. Arrotza zela ageri zuen. Gutarik nehor ez zuen ezagutzen; baina bere zokotik solasaz jabetu zen, gora-gora ziolarik frantsesez: «Monsieur, vous avez raison. Les courses de taureaux, ce n'est pas digne de nous, français. Et après tout, si nous en sommes là, tant pis, car c'est un signe de décadence».

Erran nahi baitzuen, frantses izaitea bera aski behar litzakegula kurtsa zoro eta krudel horien arbuiaitzeko; eta oroien buruan, hortaratuak balinbagare Frantzian, hanbat gaixtoago! Zahartzen eta zartzen ari girelako marka.

Aitortzen dut atsegin handi egin zautala hantxet jaun arrotz haren ateraldiak. Nor ere baitzen, gorri ala xuri, katoliko ala protestant, bardin litzakedan orduan; eta edo nor izan, elgarrekin jautsi bagine eta gelditu behar izan bidean, bihotz onez pagatuko nion pinta-erdia, ba eta osoa ere kurtsa horien ondotik dabiltsan zenbeiti baino gogotikago!

Eskualduna, 1894-10-05



BEDERATZI URTE

Egun betetzen ditu bederatzi urte, lehen aldikotz agertu zela Eskualdun kazeta hau. Hamargarren urtean sartzera goazi.

Gure xedea zen orduan Eskual-herriaren gure ahal oroz argitzea eta laguntzea bere zuzen ala behar-ordu guzietan. Eskualdun girstinoa nahi ginuen eta nahi dugu oraino ere argitu erlisionearekin egiazko gizontasunari doazkon eginbide guzien gainean. Zertarik eta nola, noren nahitik doazin legeak, on ala tzar; zertako eta nola baztertu behar litazkeen lege hoieri buruz gure etsaiak, eta nola oldartu behar litzaioketen gaxtaginek eginikako eta luzaz nausi uzten baditugu, egin-gogoko lege galgarri; horra laburzki hastapenetik hunat zeri nahi izan ditugun ohart arazi Eskualdun gure irakurtzaileak.

Xede berean gira beti; baina xede hortarat buruz egin ote dugu, eta egiten zerbeit onik? Ez ote da gure lana gutiz gehienetzat alferretan? Ez, ez balinba! Gutienetik bederen balinba bederatzi urte hautan jarraiki zauzkigun irakurtzaileetarik zenbeiti zerbeit onik sartu ahal diotegu buruan.

Zenbeiten gogotik asko ilunpe, asko lano kendu dituzkegu; itsu zenbeit argitu, zerbeit gezur suntsitu, egia zenbeit ere ba ezarri lur onean behingotz ongi landaturik...

Bertzenaz alabainan etsitzeko litake osoki Eskual-herriaz; ba, egiazki etsitzeko Eskualdunen fedeaz, gizontasunaz, gure arbaso atzar eta erne, girstino azkarrek utzi dauzkuten ontasunik ederrenez! Jainkoak begira gaitzala!

Datxikagun beti gora eta zut eta oso gure eskualduntasuna; datxikagun hemen, gure sor-herrian, gure lurrean, gure etxeetan gure nausitasuna. Ez utz gure eremuetan arrotza, bereziki arrotz etsaia nausitzerat. Dagola bakotxa bere zedarrietan.

Gure buruen jabe nahi badugu egon beti, jakin dezagun beldurrik gabe, behar arau mintzatzen eta egiten. Ez izan uzkur, ez herabe. Jazar etsaiari, zangoa buruaren gainean ezarri nahi leraukigukenean Eta ez badu sinetsi nahi gu girela, gu Eskualdunak, herriko nausi, jo muturrean.

Etxeko jaun batek nahi ote luke bere etxean arrotz bat nausitzerat utzi? Halaber dezagun herrian herriko gizonak atxik beti gure nausitasuna. Elgar lagun, elgar susta eta sustengan. Ah! baginaki horrela eskuz-

esku, bihotzez bihotz orok bat egiten... baginaki! Zer indarra ginukene etsaiari ihardokitzeko?

Batzuek uste dute, hau oro kazeten eta kazeta-egileen egitekoak direla. Herriko goiti beheiti guzia, lege, lege tzar eta bertze... hots, zer eta zer guziak oro gogotik eman litzazkete jauntxo batzuek gure gain, kazetari hotz eta hits, ahul girelako batzuen gain. Hortakotz araz igortzen daukute noizetik noizera: ea zerari giren? Lokartu girenez ala farlesian erori?

Barka otoi bizitasun hau; baina ez nauke erran gabe, garbiki, ez daukatala, baden hori baino astokeria handiagorik. Zer beraz? Guk behar ginuke, guk bakarrik lur hau argitu, ontu, erabili! Eta zuek, jaunak, deus ez? Orobat lakiket erraitea, egunazko lanak oro iguzkiak behar dituela egin; eta gauazkoak; nik dakita? Hek naski, nausia, eta zu, etxeko-andrea, zaude bi besoak kurutzaturik, argiari so, ea zer ikusiko duzun? Nik hitz derautzut, egun eta gau laburrik barnean, bazter politik eta zoko garbirik argituko duela zure argiak.

Ez da erraiteko baizik, halako igel, apo eta bare batzu behar ditugula guk ere zenbeit aldiz iretsi... edo barneak gaindi egiten duenean, hola-xet jin bidez gibelerat igorri Goraintzi nor ere baita hura eta hari.

Bertze batzuek erranen derautzute, burua bi aldetarat derabilatela-rik, bi besoak, bi begiak goiti altxatuz: «Ai, kazetak... kazetak! Hobe lita-ke, miletan hobe ororentzat, batere ez balitz kazetarik; haro gutiago».

Hala da hori, egia da, egia handia, gizon maitea, baina ez baita ordean... zer litaken hobe; zer den hobe baita solas.

Zuk eta nik hau edo hura hobe litakela erranikan ere, urak aitzina bere bidea eginen baitu beti.

Guk erranikan ere: miletan, ehun miletan, hobe litakela kazetarik ez bertze halako paper zurruburru hoitarik ez izaitea; baitire ordean kazeta tzarrak eta tzar heieri behar-orduan ihardesteko behar baitire kazeta onak! Ez da hor harat-hunatik; debalde dugu lehengo mende eta jende dohatsuak gogoan jarriarik egoitea, gibelerat beha.

Jeiki beraz hortik eta itzul, itzul alde huntarat, hunat; ez gaizki dabil-tzane! jarrikitzeko, baina gibelerat dakarzikikegunen biltzeko; edo bederen gure buruen hobeki zaintzeko, ikusiz bertzeak nola doazin eta zerk galtzen dituen.

Bide makurretik doanak du bide xuxenaren erakusle beharrena. Eta xuxenean denak daki, zer eta nolako lanak dituen; zenbat argi eta lagun-tza behar diren, xuxenetik makurrerat ez zehartzeko.



Banuke hor engoitik aski erranik, gogor ez denari adi-arazteko, nahiz ez duten, gorago erran dugun bezala, kazetek egiten bakarrik egungo eguneko gora-behera guzia, bizkitartean hein batez, bai oneko bai tzarrek, indardun direla kazetak. Zorigaitz kazeta onek baino tzarrek irakurtzale gehiago duten herriari!

Debruek darama laster hango jendearen fede oso eta zinezkoa, gazteriaren garbitasuna, herriko buruzagien zuzentasuna; hitz batez, erlisionearen funts guzia.

Solasa luzegi dakidan beldurrez, ez naiz mintzo kazeta on batek erlisioneke eta gizontasunezko egiez kanpo bertzalde dakarzkiztan argiez, bereziki laborantzari buruz.

Munduaren lau bazterretako berriak ere apur bat jakitea on da; laketa da. Egungo egunean, asko bilkuretan, bertzeak nonbeiteko gora beherez mintzo direlarik, deus ez dakiena zozo da; eta zozo ez denean, are gehiago ahalgetzen da bere buruaz, ez dea hala?

Ixiltzen naiz; bertzenaz nere lagunak samurtuko zauzkit, toki guzia ebasten diotedala...

Eskualduna, 1896-03-16

ETSAIRIK GABEAK

Etsairik gabe dena, nor da? Ote da nehor? Zu, Kadet? Ala zu, Manex? Gizon urusak zuek?

Nahi duzue nik erranik egia bat entzun? Ez da egundaino izan, ez eta izanen etsairik gabeko gizonik. Ezen etsairik ez duelako hura ez da *gizona*. Oilo busti bat da hura; edo da bere buruaz baizik axolarik ez duen bat. Oilo bustia ikaran dago, berak ez dakiela zeren beldurrez, kokoriko. Eta aldiz *beretzat baizik* ez den hura, ez izanik ere beldur, bardin *ez-deus* da, zerbeit laguntza onetako haren beharra dukezunean.

Deus ez duzu harenganik aterako, baizik ere hitz hiraun hastio nardagarri hauk: «Otoi ez eni holako laguntzarik galda! Nik ez dut nahi agertu nere burua; ez dezaket ager. Badut nik ororen beharra *bizitxeko*. Ez nuke nahi holakoarekin eta halakoarekin samurtu; ez nindake nahi auzoekin makurtu, eta guziz herriko auzapezaren begietan jarri. —Erran nahi baituzu, ez zirela gure alde bizi behar alabainan, ororekin adixkide izan nahiagoz, ezenez eta batzuekilakoaren egiteko bertzeekilakoa hautsi. Bizi behar!...

Bizi behar, bizi nahi: ororekin behar bizi, ororekin adixkide: zer hitz ederrak! Itxuraz, ederrak, eta izaitez ere hala litazkenak, *ahal* balitz, haizu balitz, zuhur balitz ororekilakoa bardin egitea. Ez baita ordean ez zuhur, ez zuzen, ez haizu, ez ahal.

Ez ahal. —Ahal ez ote? —Ez eta iratze. Zer? Gure Jainkoak ere ororekilakoa egundaino ezin egin du; edo ez du nahi ukan egin, ahal zukelarik.

Eta zuk, gizagaizo ziria, ez baitezaket bertzela erran, zuk nahi zinu ke beraz egin, zuk *uste duzu* egin Jainkoak bere jakitate eta indar guziarekin, ez egin, ez eta eginen ez duena? Nor zira zu eta zer zira? zure buruaz hoinbertzeraino hartua izateko?

Zu... ororekin adixkide? Emazu hortik bakea. Adixkide zirea xixtubelarrarekin eta laparrarekin? Ori, aurtengo Eskualdun-armañakan aipu den laborari zahar batek etzuen zure eiterik Hiltzerakoan ere ez baitzeien omen bi etsai hoier barkatu nahi; ez eta behar ere. Zertako barka?

Adixkide zirea suge pozoindunekin, zakur errabiatuekin? Eta tripa-ko minarekin? Ez naski... ala ba?

Adixkide zirea ohoinekin eta gizon-hiltzaleekin? Ohoinak gauaz etxera badatorzkiztu; nahi bazaituzte buluzi, estekatu edo hil, zaude



geldi-geldia, ixil-ixila. Ez egin oihu; ez igi, zure onetan. Zaude han, bi besoak eta mihia sakelan. Bertzenaz gure gizonak kexa litazke. Hobe duzu ez makurtzea neherekin; orroitu, gizon maitea, *ororekin bizgi behar* zarela. Atx!... Zer duzu? Buruan hatz, ez dea hala?

Ikusten duzu beraz ororekin adixkide bizitzea, egin ez dezakeguna dela? Amets zoro bat dela, frantsesak erraten duena; *une chimère*?

Nahi dut gaixtaginari behar zaiola *bibotze* barkatu. Ba ordean ere zu hil nahiz eskuetan daukan tresna kendu; ba ordean kendu zuri bidegaberi egiteko ahala. Nola egin lan hori, gaixtaginarekin edo erroarekin, ezen gaixtagin bezenbat erro badire gaizki-egile, samurtu gabe? Nola esteka, nola balaka zure *adixkide* erro edo gaixtagin hura? Nahi eta ez behar zarete makurtu elgarrekin. Hara non zareten etsai.

Etsai hura zure lurretarik kanpo ezarri duzunean, *garraitu* duzunean (ahalaz hil gabe, eta ezinbertzean, alahintxo... ahal dukezun bezala) nahi badiozu barkatu, ongi; ederki. Aiherkunderik gabe, nahi baduzu gero harekin adixkide bizi, erlisioneak erakasten duen bezala, biba zu! Ez duzu nik erraite beharrik, ordu arte zer egin.

Bertzalde, *ahal* bazinu ere, azken bertzean, etsairik gabe zure bizia iragan, ez lakikezu haizu; ez litake zuzen, ez eta zuhur.

Bakotxa guretzat bakarrik bagine mundu huntan, oraino nonbeit hor. Hartaraz geroz bere burua buluzterat edo hiltzerat utzi nahiago lukenak, gaixtaginei ihardoki baino... astokeria bat egin lezake; bainan ororen buruan bera litake bere hutsaren jasaile; gehienik bederen.

Bainan ez baikira ordean bakotxa bederazka zoin gure gain. Gure zuzenetan elgar behar baitugu lagundu; esku eman elgarri. Ohoinak eta bertze gaizki-egileak behar baitugu elgarrek elgarren lurretarik urrundu. Bertzenaz, Jainko ona, non ginitazke?

Non *ginitazken* erran dut, *non gira* erran beharra. Ba, ba: *non gira*? Eta zerk huntaratuak? Gure zorokeriak. Etsaigo zenbaiten itzalaren beldurrak.

Eskualduna, 1897-01-15

GOITI... BEHEITI

Goiti doa holetan Pariseko hiria; beti aintzina goiti. Badakizue nola, iragan bi boz-aldietan, lauetan hogoi hautatzekoak zirenetarik berrogoi-ta bederatzi edo hamar nausitu diren, onerateko alde daukatenak. Judutiar eta framazon gorri-beltz hoitarik hogoi-ta hamar baizik ez ziren sartu; eta hek ere nola? Doi-doia, zenbeit boz gutiño bakarrez nausiturik. Bertzeak aldiz, chunka, milaka, gainez gain joan dire. Gutitarik egin du, ez baitire tzar guziak oro erroz gora lurrean gelditu, eta onak nausitu orotan Hura zitaken eder! Bainan ez giten izan sobera gose. Zerbeit da erdiak baino gehiago framazon madarikatu hoi kontrakoetarik sartzea ere. Nork erranen zuen hori behar ginuela ikusi Parisen? Ezartzen ahal dute gertakari horren orroitzapentzat *afixa* bat hiri-sartze guzietan, ederki apaindurik. Izanen da *Expositionean* hori baino ikusgarri tipiagorik.

Ez dire gero bakarrik nonbrez nausitu; bainan ez-deus batzu omen dire tzarretarik lau-hazka doi-doia sartu direnak ere. Zerbeit zirenak oro kenduak dire. Hala nola Lucipia antzinagoko kontseiluaren buruzagia. Ez auzapez ohia; ezen Pariseko kontseiluak ez du auzapezik izendatzen. Hango auzapezak, oro arrondizamenduka, gobernamentuak ditu izendatzen, kontseilutik kanpo. Ez dute ere bertze deus egitekorik, hiriko errejistroen zaintzea baizik.

Bainan kontseiluaren buruzagi edo presidentak berak hautatzen du kontseiluak, hemengoek auzapeza bezala. Erran gabe doa, buruzagi horrek indar handiak dituela Pariseko kontseiluan. Edo zoin izanik ere, Lucipia delako gaixtagin tzar haren ondotik, hura baino anitzez hobe izanen dela buruzagi berria, erran dezakezu, bi begiak hetsirik. Ondoko egunetan ageriko da nor. Anartean bazen eta bada omen oraino Parisen bertze lanik. —Zer lan? —Huna zer. Jarraik otoi solasari.

Pariseko kontseiluak holetan 80 gizon badauzka. Hoiek dute han egiten «le Conseil Municipal». Hortaz bertzalde, biltzen da oraino departamendu guzietako hiri-nausietan bezala, bertze bilkura bat: «le Conseil général de la Seine».

Hunek badauzka 101 gizon. Eta hek nor? Nola izendatuak? Lehenik hartan sartzen dire, bozkatzeko berezirik egin gabe, «Conseil municipal» delakoan barne direlako 80 hek. Holetan hek bi kontseiluetan barne dire, behin batekotzat izendatuz geroz.

—Eta bertze hogoi-batak?



—Heientzat da egiten bozkatze berezi bat, bertze bozen ondotik, eta non hori? Ez Parisen berean, bainan hiritik kanpo; hiriaren bazterretan diren 21 kantonamenduetan. Heien izandatzea zen beraz igandean. Zenbat uste duzue nausitu direla? On eta tzar, hamabortz. Sei dire gelditu bide erditan, «en ballottage».

Hamabortzetarik hamabitan, onak dire sartu oraino ere, edo hots, onerateko urratsa dutenak. Hiru bakarrik framazontiarak. Eta biga bazi-ren hiru hoitan, kontrariorik ukan ere ez zutenak. Berak ziren tzar hoik han bozgaldatzale, onak eiki ez aski goiz atzarturik, bertzetan bezala han ere tzarrari jazartzeko.

Erran ditake beraz, gudurik izan den tokietan, erran nahi hamahiturarik *hamabi* on sartu direla; bat bakarrik tzarra, Villejuif deitu hirixka txar batean. Handia baita! ... izenaren arabeko egitatea. Juduek nehon irabaztekotz, han behar zuten irabazi. Bertzetan, saltsa mehe egin dute, eta mehe eginen, diotenaz, oraikotik.

Ezen izendatzeko... bide erdi geldituak diren seiatarik iru edo lau esku-aintzin puskarekin dire Bigarreanean ororen ustez, errexki nausituko.

Horrela «département de la Seine» hartako kontseilu jeneralean, bertze kontseiluko gizonez beraz ja gaina zuten onek. Huna non osagailutzat eskas ziren hogoitabatetarik ja hamabi onak; hiru tzar. Bigarren aldian, sei ondarretarik, erdien sartzea segur bezala. Ikusten duzue nola Parisen, eta Pariseko inguruetan *goiti* doazin onak. Ez izanik ere oro baitezpada osoki onak, bederen onerateko eskualdea daukatenak; goraki diotenak ez dutela nahi berexkunderik, are gutiago jazarkunderik; framazonek hogoi urte huntan zerabiltzaten bezalako nahaskeriarik. «A bas les sectaires, les voleurs, les dreyfusards». Parise guzian ez zen egun hautan bertze oihurik. Oihu horrek Frantzia guzian bazterrak harrotu ditu, nahi eta ez. eta zuzen da; eta ordu zen egiazki, norbeit nonbeit higi zadin norapeit!

Zerk dioke horrela Pariseko hiriari burua berotu? —Zerk? Aseak baitire eta unatuak framazonen zangoetan bizitzeaz. Gero hor, beren Dreifuz juduaren auzia berriz piztu nahiz ez dabilteza? —Zaude ixilik! Berriz? —Ba, berriz. —Zer nahi dute hartarik jali orai? —Ez zutena libratu beren gizona? Ba naski; ez baitzeie ordean aski. Bigarreanean kon-denatua zelarik, libratu zuten. Eta orai... nik dakita zer? Nahi lukete naski zerbeit handitara hel arazi. Eman dezatela ministro. Badut uste, luzamen handirik gabe, ministro berriak dituzkegula.

Ezen ez da bakarrik Pariseko hiria ministro hoitaz leporaino aseaz; Frantzia guziaz, edo gehienak ez du bertzerik igurikitzen, baizik ere ditu-

gun ministro hoik doazila debruatarat; hoien orde dugun otoi lehenbailen gizontasun izpi batekilako norbeit, xuri edo gorri!

Ez dezakete iraun; alta uste zuten, eta aiher dire oraino ere uste ukaiteko: *Expositione* hori bururatu arte hatsaren hartzerat haizuko direla. Ja! «Paris et la France n'entendent plus de cette oreille!».

Jinkoak begira, Frantziari behin odola goiti jauz. Gero zer izanen bada ere, «voici, mes amis, pour le moment, la situation». Alde batetik Pariseko hiria, eta hari darraikiola Frantzia guzia, *goitiko* bat izigarriak hartua. Bertze aldetik gobernarendua, ministerioa, *beheitikoarekin* etendua.

Eskualduna, 1900-05-25



IGUZKI-HISTURA

Ohartu zarezte, joan den astelehenean, zeru zola urdin eta garbi zelarik, iguzkiak *histasun* bat izan dula?

Bi orenen ingurua iraun du histasun horrek; arratsaldeko hiruak eta laurdenetarik, bortzak eta laurden iri arte. Igurikia zen aspaldi huntan gertakari hori. Jakintsunek bazakiten aintzinetik, ez bakarrik izanen zela, bainan xuxen-xuxena, noiz, nola, non, zer heinetan; orenak eta oro bazazkitzaten. *Bagina* ~~zeiela~~ ere erran dezakegu, gezurrik ez eta espanturik gabe. Den bezala erraiteko, kazetetan ikusia ginuen: holetan maiatzaren 28-an, arratsalde erditsutan izanen zela iguzki-histasun hori.

Deitzen dute hori *eclipse*. Batzutan ilargia da histen, edo gordetzen, iluntzen osoki, zeru garbiaren erdian, hedoirik ez lanorik gabe. Aldi huntan iguzkia da histu, gorde, kukutu. Eta nola? Ilargia jarri zaio sudurraren aintzinean, zure burua gauaz ene begiaren eta argi baten artean jar bala-di bezala. Ez du dena kukutu hemen; hurbil ba hargatik. Begitartearen hamarretarik zortzi edo bederatziak ilundu diozka, emeki emeki, iraun duen bi oren hoitan: lehenik kokots alde bat, gero bertzea; gero gaineko hegiño batez bertze guzia; orduan zen bazterra ilunenik. Gutiz gehienak ohartu ahal dire, *zerbeit* bazela; bainan ez jakin zer? Egiazki urriki dugu, iragan asteen ez orroiturik *Eskualdunean* ezartzea, zer eta nola gertatuko zen. Izialdura bat gutiago izanen zuten zenbeitek.

Badazkit bi emazte gaixo, belar itzultzen ari zirenak, iguzkia histen hasi denean. «Zer da hau? Uritu behar ote din?» Tarrapatan belarra bildurik korkoitzera zeramaten, erauntsiaren beldurrez, noiz eta ere jaun batek bazterretik erran baiteie: segur ez zutela zeren uriaren beldurrik izan. «Ez ote, jauna? Ilun da ordean. —So egizue goiti: zoin garbi den zerua! —Hala da...» Hor berehala berriz hedatzen dute belarra. Bainan ere jaunak *argitu* nahi ukan dituenen bi emazteak, erranez nola eta zerk egiten zuten histura hori... baizik eta ilargia zela iguzkiaren aintzinetik iraganki, badut beldurra ez dituela hanbat... argitu.

Ezen jaun hura joan eta, bertze auzo-langile batzuer ari zeiezken oihuka: «Ez izi; deus ez omen da gaixtorik; oraintxe jaun batek erran dauku: ilargiaren *diferentzia* dela». Hitz horrek ez bide baitu nehoren jakitarea hanbat aintzinatu.

Niharek ere guti edo aski egin dut ele gizontto langile batekin.

«Errazu, ori: ohartua zaizko histura huni? —Ba, eta zer da? *Eclipse* edo delako hura ote da hau? —Hura eta bera. —Ez du balinba hunek deus gaixtorik ekarriko! —Ez, gizon maitia; ez izan beldur. Gaixto zerbeit hunen ondotik batorladi ere, ez da hunek ekarria izanen. —Behazu! Eta hoik hola jakin holetan jakintsunek aintzinetik? —Baietz, gizona; ori, hau segurik aski aintzinetik eta garbiki errana zen». Nere gizona harritua.

Uri edo lanotsu izan balitz aroa, ez ginuen ikusiko; hala nola Parisen ezin ikusi baitute, zerua hedoiztatua zelakotz.

Espainian zen hau orotan baino ikusgarriago: Madriletik haratzago toki batzu bazazkitzaten, bertzetan baino ilunago izanen zela histura hori. Marra bat egina zuten Jakintsunek gogoz, han hemenka herri batzuen izenak hartuz, zointan ilun-kuku behar baitzen oren laurdentto batez. Han osoki kukutuko zuela ilargiak iguzkia, jakina zen aintzinetik.

Baziren eta toki hetarat joanak, xeaxak eskuan, jakitsu batzu, marra-zen xuxenago begistatzeko, nondik noraino izanen zen ilundura osoa.

Agian guk hemen bezalako aroa ukan dute; bertzenaz joan-jina gal dukete.

Guk hemengoa hemendik beretik ikusi dugu, eta merke. Nahiz ez den errex iguzkiari so egoitea, begiak itsutu gabe; halere, kapeluaren azpitik eta errien artetik behatuz ageri zen errexki, jakinaren gainera errexkiago: bazuela iguzkiak zerbeit, halako gasna zuri bat iduri, aintzinean. Hobeki ageri zen oraino berinaki pozi bat supizteko baten lanoarekin apur bat belztuz. Harek eztatzen zuen iguzki ageri zenaren distira, eta biak berex, bat bertzearen aintzinean, ikustekoak ziren iguzkia eta ilargia! Ez dut *omen* erranen...

Laket da jakitea, nola so egin, bertze aldikotzat, ez dea hala?

Hunen aintzineko iguzki-histuretan aipagarrienak baditu berrogoi zenbait urte iraganik. Noiz izanen den orai lehena, ez dakigu; bainan ahal bezen laster jakinen dugu... jakintsunetarik.

Ezen badire hola izarren harat-hunat hoik dazkitzatenak, aintzinetik; chun, bi, hiru lau ehun urte aintzinetik.

Izanen bada ere bortz edo sei menderen buruan, aski dukezue, haurrak, erne egoitea, berinaki beltztuak eskuan. *Eskualdunak* hitz dautzue-te, orakoan ahanzi bazaio ere, bertze aldian aski goiz jakin-araziko dautzuetela.

Anartean, Jinkoak dizuela iguzki eder eta bero, belarrak idortu arte, histurarik gabe!

Eskualduna, 1900-06-01



FUERA... BIBA!

Asko aldiz entzuten duzu, aho beretik, nor edo zer bera egun gores-ten eta bihar gaitzesten. Egun *fuera*, bihar *biba*. Egun ahotaraka laudorio eta espantu, eta bihar?... Bihar xakurrentzat ere ez on. Holako goiti beheiti zenbat ez da ikusten bazterretan?

Bainan ardura entzuten ez dena da: *biba* eta *fuera*, biak betan; ez aldizka, bainan oren berean biak. Eta ez gero nor nahiren ahotik, bainan gure jaun ministro-ta heien kidekoen ahotik. —Nori buruz? —Guri, katolikoei buruz, eta gutartean bereziki Fraidei eta Serorei buruz Batzutan erran zinezake xede onez beteak direla serora eta fraide ongi-egile hoiengandik. «Ma bonne Soeur» hemendik; «Mon cher Frère» handik, xapela eskuan, agur bat lurreraino egiten diotelarik. Eta holako milagur eta solas eder, hitz legun, irri zuri eta pereku... aintzinetik; eta gero gibeletik ausiki. Zer nahi ele tzar, erasia, gezur, ahopaldi itsusi eta mehatxu dariotela, fraide ala serora, gizonki ala emazteki komentuetan elgarrekin otoitzean eta lanean bizi diren guzien kontra. Deus onetako ez direla, hoik oro; gerlapide baizik ez direla; behar direla oro huts eta hetsarazi; garbitu, kendu, barraiatu behar direla oro. —Zertako? —Zoazi, galda-zozute berei. Ote dakite gero berek ere xuxen, zertako?

Emagun oraino, berak ez bezala bertzeak bizi ezin ikusiz, poxoluz nahi lituzketela kendu. Gaizki bizi denak ez dezake alabainan aldean ikus, ez jasan, ongi eta zuzenki bizi dena. Itzal zaio. Ken-ezozue poxolutik.

Ez da oraikoa, makur dabilanak xuxen doana higuin, hastiro ukaita. Bekoz-beko laidosta ez badezake, bederen gibeletik sartuko dio ezte-na, bekaizgoaren ezten pozoindu hura.

Egundainokoa da hori. Huna ordean egun arte ikusi, ez entzun ez ginuena. Oren buruan goihengarri bezen bitxi dena, edo bitxiago, huna: «Ez eta ba... ba eta ez, gaizki da, ongi da»: biak bardin goraki erratea oihuka, gizon berek, egintza berez mintzo direlarik mintzatzaile berak.

Goizean barurik fraiden eta seroren ongi-eginez espantuka; soldadoen eta bertzeen eritegietan, haur-umezurtzen etxeetan, herri tipi ala hiri handietako behar-ordu guzietan, beti laguntza egiterat ekarriak direla fraideak eta serorak, ikusten, ezin uka; erraten berek goraki. Askotan ohorezko medaila eta kurutze, xingola eder eta holako sari hoitarik berexen, serora edo fraide zahar bati bularren gainean beren eskuz josi-

rik ezartzeko... Jakin dezaten orok, ez dela Gobernarendua seroren ez fraiden etsai. Eta gero?

Arratsaldean? Ederki bazkaldu-ta, oihu-ta larderia: «N'est faut plus de ces gens-là. A bas les moines et les nonnes!».

Bitxi da, ez dea hala? Bada bitxiagorik oraino. Azken zerean erran zinezakete, beharbada, jaun hoiek serora *batzu* eta fraide *batzu* dituztela holaxet begietan; eta bertze *batzu* aldiz beren gogokoak dituztela.

Beren gogoko ez dituztenak jo, ken, haiza Frantziatik eta Frantziako lurretarik. Bainan ez da hori. Fraide guziak, serora guziak dituzte hor lege berri batzuez urkatu nahi. Ezeztatu, errautsi nahi dituzte oro. Ez dute eta gordetzen ere, hori dela, ja zenbeit aste huntan aipu diren lege-gei batzuen xedea.

Eta behazue futxo: denbora berean gizon berek ez dakite nola aski lauda hantxet, Chinako eskualdean serorek eta fraidek egiten duten ongia.

Egun hautako berria da: gobernarenduak ministro baten ahoz eskoletako fraideen buruzagi lehenari galdatu diozkala zenbeit fraide otoi, *otoi* igor ditzon Madagaskar delako Frantziak berritan beretu leihor handi hartako haurren altxatzeko.

Jaun errientek araz ez dute hanbat gutiziarik hor-harat joaiteko. Bertzalde orok dakitena da, eta egun hoitan oraino ministrokek deputatuen bilkuran aitortzen zutena garbiki: ez duela gobernarenduak, ez Madagascarren, ez Chinan; ez Tonkinen, ez Afrikan ez nehon urrungo leihor hoitan halako langile onik, nola fraideak eta serorak; baduela heien beharra!

Zer derasagu? Eleak ele, urte bat ez du hantxet Jerusalemeko eskualdean gobernarenduak bere lur batzuen zaintzeko eta lantzeko, nehor hoberik ezin aurkituz, beneditano batzu igorri dituela; bat edo biga Bastidako hoitarik eta bertze zenbeit handik eta hemendik bertze etxe batzuetarik bildu, eta igorri hor-harat, bideko saria, eta han lanari lotzeko behar zuten dirua emanik. Banakike zenbat ere. —Nik behinere sake-lan izan eta izanen dukedan baino gehiago. Behar ere ba, holako bideari lotzeko, eta han, halako toki idorrean bizitzeko. Bainan ez da errateko baizik: komentu guziak hetsi behar dituztela mintzo diren gizonek otoitza galdatzen dituztela fraideak eta serorak hor-harat igortzeko. Hangotzat on badire, zertako ez hemengotzat? Eta hemen holako langile on, eri artatzaile, haur-altxatzaile hoiengandik ororen erroak moztan badire; agortzen badire iturriak, non hatzeman urrungo lurretarat igortzeko baitezpada behar eta nahi dituzten fraideak eta serorak?



Hori zen hastean erran nahi ginuena: *biba* eta *fuera*, biak elgarrekin, ez doazila ongi; kolpeka ari direla. Egiazki gure gizonek iduri dute zenbeit aldiz, ez dakitela zer ari diren ere.

Eskualduna, 1900-12-21

JAUN MEDIKUARI

Beti eta beti... eta beti solas berean gaudela erranen dautazue behar-bada. Nahi badu ba. Ez da ene falta. Kasua da holakoa; berak dirauno, aipatu gabe ezin utzia.

Ez nauke nehondik hementxe egun zabal-zabala eman gabe nere auzoko jaun mediku gazte baten ateraldia. Ezen harritua nago, zer aho-paldiak entzun behar diren egungo egunean. Eta norenganik? Gutienik askotan uste litakenaren ahotik.

Delako jauna ez da batere gure etsaia; ez daukagu bederen hala. Eta paria nezake, berak ere ez duela uste hala den batere.

Bizkitartean Seroren eskoletarik ostikoka bezala konporat emaita hori ez omen zaio jaunari hain makur ez hain gaizki. Kasik ongi bat egiten duela hor gobernamenduak: ministroak xede onez beteak direla; ez dutela Seroren kentze hori gaixtakeriak egiten, baina ba ongi baino hobeki egiteagatik, dio gure jaun mediku eskualdunak: Oro badazkitzate oraiko jaun gazte batzuek; eta nola? Zaharragoek ez bezala oro.

Beraz huna zertako zaion *ongi* gure jaun medikuari, burraso giristinoi beren haurren girstinoki altxatzale serorañoen kentzea, nahi badute eta ez. *C'est très simple!* Jarraik otoi jaunaren arrazoinamenduari.

Omen ditu ja zonbeit urte huntan gobernamenduak anitz mila gazte errientsa-gei, beren etsaminak iraganik, titulu behar dituzten guziak eskuetan dituztenak... baina lanik ez. *«Pas de travail, pas de places pour toutes»*.

Ez omen du gobernamenduak andre hetaz zer egin.

Bizitzekorik ez dute berek; hortakotz dute ere beren ustez, bizipide bat hartu... eta *nahi hartu* bederen.

Gobernamenduak anitzi hitzimana, noizpeit, nolazpeit, nonbeit lana emanen deiela. Eta futxo ezin eman; tokirik ez. Goseak hil behar omen lituzke andre gaixoak! edo... adinak eta ezinbertzeak, eta gaztetasuneko jaidurek zer ez dute emaiten gogora? Beren buruak lehen jin jabe tzarrei sal litzazkete, ogi truk.

Vous comprenez, pauvres jeunes filles, les voilà forcément la proie du vice!...

Hori ikustearekin, gure ministroei bihotza hautsi zeie. Ez dute nahi jaun hoiek gazteria gal dadin; ahal guziak egiten dituzte —*il n'y a qu'à voir ça!*— gazteriarren, eta bereziki neskato gazten begiratzeko galbidetarik urrun. Ez da holako serorarik, ez erretrorik, ez aita amarik, neskato gaz-



ten arimez arta duenik, nola baitire Combes apez-gei arnegatua eta haren lagunak.

Etzinakiten hori? Horra non deuen, gure jaun medikuak errana.

Uste ote du berak hori hola? Uste edo ez, hala dio. Badire hola, den astokeriarik handiena estakurutzat aski baitzeie, *tzarreko alderat*. Oneko alderat emozute den arrazoinik hoberena. «Esta konprenitzen», kaskoinak diona.

Bertzenaz, hots, trufatzea da, mutikoen ondotik orai neskatoei erlisione eta hari darraizkon on guziak gal-arazi nahiz errabian direlarik; neskato haur gaixoen arimen galtzea baizik gogoan ez dutelarik, baitute kopeta oraino erraiteko, errientsa-gei andre gazteak ez lituzketela ikusi nahi jaidura tzarretarat erortzen! Jou!...

Ontsa kilika ahal dire bada andre heien arimaz, heien ohoreaz, ala jazko haizeaz! Debruak emaiten daizkote gogora holako ateraldi zurruburuak Jaun argitu bat, mediku ala bertze, ahalge behar liteke holakorik iresteko, edo irest-arazi nahi ukaiteko, den zozoenari ere.

Orizue, goazin iduri zozo; alegia sinesten dugula trufa-gezur hori. Emagun beraz gobernanduak zinez eta egiazki axola duela; griña duela bere andre gazte errient gei lanik gabe hoitaz. Aski ote da Serorei beren lanaren ebasteko? Ala ez ote dire *jendeak* serorak ere?

Emotela bertzei bertze zerbeit lan, eta utz bakotxa berean.

Eta burrasoen nahia deus ez da? Burrasoek beren haurrak Seroren eskuetan nahiago badituzte eman, bertze edo zoin andren eskuetan baino, nork zer du ikustekorik?

Herriak, herriko burrasoek, herriko buruzagiek, auzapez eta kontseiluko gizonek holakoetan ikustekorik ez balinbadute, zertako ibili dire, iragan egunetan kontseilu guziei galdez: ea zer zitzeien; Serorak nahi zituztenez atxiki, ala ez?

Galdeari guk hemen ihardets: «Ba, nahi ditugu» eta gero gure nahiaz ala zakurraren buztanaz axola bera: gizontasuna da hori?

Eleak ele, bego huntan egungo solasa: balute jaun hoiek xede onaren itzalaren idurupenik; bereziki emaztearen ohoreaz, neskato gaztearen griña izpirik balute, bertzela erakuts lezakete.

Behinik behin ez lezokete hoinbertze neskatori burua bero-araz: eskolatu behar direla, errientsa izaiteko; esku-lana utzirik, jakintsun handi, andre handi izanen direla zer nahi amets eder egin-arazten baitio- te. Behar ederrez!

Utz, utz bakotxa bere sortzeak emaiten dion herronkan eta bizipidean.

Lanik gabe direnek ez badakite norat egin, noren falta da? Berena, edo berotzailena.

Eta heien errokeriak bertzek behar jasan! Zertako? Zer zuzenez? Bakotxak bere hutsen ondorioak jasan bitza.

Griña, ministroek andre errient-geien bertutea garbi begiratzeaz!

Holako gezur xutik doazin izigarriek ez lukete nehork hitzik ihar- destea ere merezi. Eta futxo, ez nauke.

Ez nauke, erran gabe gogoan dudana; griña hori balinbadute, zertako beraz ari zazkote haur gazte, hamasei, hogoi urteko hoieri zer nahi sineste makur buruan sar arazten? Ikaragarri da aipatzea bera; beldur niz alaba zenbait bide hortan sarturik duketen burrasoei pena eman; eta bizkitartean gauza jakina da, ezagutua; badirela ja andre gazte hoitarik asko, gobernanduko errient-gei *eskoletan* erlisione guzia gal arazi diotenak. Hogoi urtetan eta geroxago, burrasoetarik urrun bizi behar, beren gain. Erlisionerik gabe, nola zain beren buruak?

Eta gero, gaixo dohakabe buru huts edo arin heien eskuetan behar ezarri, *par force*, burraso giristinoek beren haurrak altxatzeko!...

Ongi zautzu hori; zuzen zautzu, jaun medikua? Niri ez, ez eta erlisione mikorik eta ardit baten zentzurik duen nehor.

Eskualduna, 1902-09-05



HITZAREN JALE

Duela hogoi ta zenbait urte, gure etsaiak, Frantziako gobernamen-duaz jabeturik, berenatarik egiten hasi zirenean, eta bereziki erlisionea eskoletarik kendu zutenean, orroitzaretea, zer zerasaten? Anitzek engoitik ahantzia dukete; bizkitartean orroitzeko da, ez balitz ere behin betikotz erakusteko baizik zoin diren ixtilak eta ustelak, egosiak, barnean dutenaren gordetzaleak, gordetzea hobe dutela iduri zeieno.

Eta gero datorla egun bat, ustez aski azkar direlako, sudurrera irri eginen dautzute Behin gezurra saka, sar ahala. Zer nahi sinets araz jende ahulari; zer nahi hitzeman, eta gero...

Gero, iduri zeinenean kenka ona dutela, hitza jan.

Beraz herrietako nahiaren kontra herri-eskolez jabetu zirenean eta zuzen izpirik gabe beren eskuraturikako eskola hoitarik otoitza eta kaxima fuera kanpo aurtiki zituztenean, ahoa betez bazerasazuten: etzutela xede gaixtorik erlisioneari buruz; baizik eta zera zela... bazitazkela, han edo hemen, asko herritan, burraso zenbait, beren haurrentzat eskolan erlisionerik nahi etzuketanak; eta eskola ororentzat zenaz geroz, ororen gogorakoa behar zela, makur-biderik gabe.

En passant soit dit, so egizue hatik, zoin atxikiak diren eta zoin jarraikiak gure gizonak, ororen gogora egiteari, enegatik zu, zuregatik ni, den gutiena kolpatu gabe. *Ah! Les farveurs...!*

Herri-eskoletarik erlisionea kentzearekin erraten zuten, halako boz gozo ezti bat eginez: «Gobernamenduko eskola ez da izanen oraidanik ez erlisionearen alde, ez kontra. Hori aski etzaiotanak, eta baitezpada beren haurrentzat erlisionedun eskola nahi dutenek egin bezate berek bere gogorako bertze eskola bat. Orduan izanen dire, baten orde, biga. Bakotxak hauta, eta hobe ororentzat, ez dea hala?»

Ba egia, *hala* balitz ba!...

Maltzur tzarrek bazakiten hamar herritarik zortzitan ba eta bedertzi eta erditan, eskola bakar bat aski dela, edo bederen mutikoen eta neskatoentzat bedera.

Bazakiten bertzalde, trufatzea zela erratea: «Erlisionedun eskola nahi baduzue, egizue zuhaurrek zuhaurrentzat zuen gostuz». Ezen nondik jali, asko herri ttipi erromesetan, ala mutikoen ala neskatoentzat eskola berezi baten egiteko eta Seroren edo Fraiden bizi arazteko dirua? Nondik? Zertarik? Nola?

Bazakiten ba urdek, etzitakena zela hori, anitz eta anitz tokitako.

Eta gero?... Gero hau: utzi balituzte burraso giristino gaizoak, bere-nez beren, ahal zutena egin, libro; beren haurren, beren buruen eta beren *moltsaren* nausi?

Bainan ez; nahi bazuten eta ez, bi buruetarik sangratu behar moltsatto hura; batetik azkarki beren eskola hura *berenetik berek* egiteko; eta bertze aldetik, herri-eskola Jainko gabe hura... hura ere aitzina, eta *lehenik* hura pagatuz, ezen zergadun guziek jasaiten dute hura, hara moltsa gaixoa bi buruetarik odola dariola. Horra ja gezurrezko libertate bat.

Balitz oraino hein hori? Nahiz ez den zuzenez behar litakena, eta nahiz herriko eskolaz herria behar litaken ontsala nausi, erdi edo laurden libertate hori bederen baginu? Han edo hemen apur bat izan bada ere, non? Eta nola? Eta zenbat iraun du?

Behinik behin herri gutitan egin ahal izan da eskola giristinorik. Mutikoentzat hirietan baizik nehon kasik ez. Eta neskatoentzat ere, herri arau, gutitan.

Eta han ere, zenbat traba, zenbat mehatxu, nahaskeria, gerla eta kalapita; zenbat hisia eta jazarkunde, ez nahiz utzi burrasoak, bereziki apalak; beharrak, ahulak, ez utzi nahiz beren gogorako eskolan haurren altxatzera?...

Haizu eta ez haizu. Alegia haizu, eta egia? Orok dakiguna.

Eskualduna, 1902-09-12



ETA ORAI?

Orai akabo; hats-bizi zena urka; hil hurran doi-doi zihardukana lurpean sar bizirik; eta barna gero!

Hogoi-ta zenbait urtez alegiazko libertate bat utzi ondoan, orai libertate zenaren (aspaldiko *gendua* baita izen hortako andre ederra Frantzian); orai haren izenaren itzalaren itxura bera... non da? Debruak ereman du ondarra. Fritsik ezta ja xutik gelditzen, edo, egun ezpada bihar, hartara goazi. Hartan gira ja.

Hogoi urte eta gehiagorik begietara errauts botatzen arizan zaizku, erranez: «Frera eta Serora, edo nolazko eskola-emaile giristinoak nahi badituzue, "appelez-les, payez-les"».

Trufak trufa, kargak karga, lanak lan, zer egin dugu?

Han hemenka, zenbeit herritan, ahal ginuenetan, etsaiaren hitza topatu. Eskola etxeak egin, eskola-emaile erlisioneak ekar arazi, hazi, lagundu, gurez gure, bertzeak bertze, bi eskolen gastuak jasanez; ontsa eta ontsa gure buruak behartuz.

Eta ororen buruan orai, ez haizu futxo hein hori ere gurearen jabe. Eta dea dorpe? Ez dea errogarri?

Herri-eskola askotan baitziren oraino Serorak, fuera hustu dituzte oro. Hori eginen zutela etzuten gordetzen. Legea zuten ere hala egina. Baginakien hori, goiz edo berant, zatorkela.

Bainan hainbertze urtez, alegia zinez mintzo, erran ondoan: haizuko ginela, gurez gure, nahi ginituen eskolen hautatzera, nola dire orai betetan ixildu? Edo hobeki erran dezadan, nola zeie ahoan mihia itzuli pekoz goiti?

Orai arte hain garbiki eta goraki errana: «Egizkitzue nahi dituzuen giristino eskolak». Eta orai zenbeitño, ahal bezala, egin ditugunean, solasa itzul: «Hets-kitzue hortik freradun, seroradun eskola hoik. Eta zalu gero hets». —Zertako? —Hartako. Ez balinbada hori hitzaren jatea eta itsuski jatea, otoi erradazue zer den?

HAITZAREN GAINEAN

Mundu hau zahartzearekin ez doa ontuz. Diote zenbaitek baietz: gero-ta gehiago argi, ongi, edergailu eta gozagailu dugula lurraren gainean: hots, beti aitzunatuz goazila.

Ai! hala balitz; bainan ez baita ordean egia bezalakorik; buru batetik aitzinamendu bezenbat bederen gibelamendu baitugu bertetik. Ez ote gehiago ere horxet egun zortzi gure adiskide Ameriketakoak zionaren arabera?

Ez dugu eta kasik asterik, ez egunik iragaiten, non ez dugun guk erran ahala; eta zuek, *Eskualdun* hunen irakurtzaile onek, irakur ahala berri hits: egunetik egunera gaizkituz doala jendea, eta gaixtatuz. Nehork ez luke guk baino nahiago, ez balitz hala.

Dugun behin bederen hatsa har; eta egun hautako solas gogoetagarriak apur bat ahantzirik, zatozte; goazin elgarrekin jar-aldiño baten egi-tera Itsasun Elizaldeko haitzaren gainean.

* * *

Itsasun Elizaldeko haitza? Zer da hori? Haitzaren gainean jar gu? Eta nola koka han oro? Nola igan eta jauts? Zer derasa hunek?

Itsasun Elizaldeko haitz hori berritan ikusi dutenek badakikete ja, zertara doan solasa. Bitxi zaionak egin beza irri; haizu da. Zenbaitek ja irri egin diote bazterretik; bizkitartean, ohartzen hasiak omen dire herrikoak, delako haitza ez dela bertze edo zoin haitz baino ergelagoa; tuntik ez dela zozoa.

Eztakitenentzat erran behar dugu berehala: Itsasu Elizaldea dela herri hortako etxe eder bat. Izenak emaiten dion bezala, elizaren aldean da; lehen auzo. Laborantza, sal erospen, ostatu, oro badauzka. Sar-jali gaitza. Herritar ala arrotz, nehor guti da, han trikatzen ez denik. «*Pas de Roland*» ikusi nahiz Ataitzeko zoko hetan gaindi dabilzanek han dute ohidura gelditzeko, zerbeiten hartzen goitikoan edo beheitikoan... edo bietan.

Uste izaiteko da hemendik harat are ardurago geldituko diren ostatu hortan, bai oinezkoak eta bai zaldizkoak. Nonbeit hor oraino, ez badute beren burua han berean ahanzten, urrunago joan gabe, hanxeño laketurik.



Laketgarri izanen baita Elizaldeko haitza, haren gainetik bazterretarak so egoiteko, edo jarririk mahainaren iguruan, zenbait lagun elgarrekin, jan eta edan, eta mus, inbido, iduki, hordago, paso; bete eta huts baso, han artzeko aizina eta gogoa duketenentzat! Ez da halako «tour Eiffel», ez bertzerik.

Haitz bat duzu handia; zaharra; bainan oraino pizkor dagona; hein bat gora, bainan arauka zabalago. Eta zoin zabal eta gotor ahal den, ja huntarik ageri da: haren jabeak, Elizaldeko nausiak, barne bat asko *salon* bezen ederra egin du haitzaren gainean, barnez barne, adar-beso nausiak elgarretarik berexen diren sarde haren altzoan; bazterretako adar guziak hala-hala utziz itzulian; barnearen hegiak gizabete erdi bat gora, hetsirik gure elizetan gizonen jar-toki hek bezala. Bainan buru has neguan, eta udan haitzaren ostoeak ferde-ferdea daukatela, itzal-aterbe xori ohantze bat iduri!...

Zola guzia tronadura ederrez apaindua, edo zoin etxetako barnerik begiratuena bezen junt eta garbi, eta legun. Erraten dautzuet ikustekoa dela. Etxe aitzineko galeriatik haitz handira bide erditan gainez bertze haitz ondo bat mozkindurik, hala-hala, oso-oso, bere azalarekin zut, han dagola, pordoin orde. Hartarik berriz haitz handira zubi bat bezala bidea. Eta lan gutiz egin han, bazkari baten emaiteko tokia Eta nolakoa? Airos eta goxoa ezin gehiago.

Bitxi duzu gogoratzea bera, lan hori toki hortan hoin errexki egin zitakela; eta holako *konka* onean: pilota plaza baten ondoan, Ataitzetik hoin hurbil; Cambotik bi urratsetan, Miarrizetik ez hain urrun!

Hemen bereko xoriburuak aipatu gabe, hainbertze baita hor dabilanik, harat hunat, ostoa errautsarekin haizeak airean derabiltzan bezala, firrindan, xirurikan, ximixta bezen zalu. —Iduri kasik lurra eztutela hunkitzen, oldarraren hartzeko baizik. Non nahuzue koka ditene, jateko artea bera? Nehon kokatzekotz, Elizaldeko haitzean egiten dire, zango hegalez haitzaren adarrei; ahoz, andre ostalertsaren eztiari. Ja zer uste duzue burrunba daukatela, erle eta xori mota guziek haitz horren inguruan!

Orok ikusi nahi eta gozatu eta futxo ezin sar oro betan. Aldia behar aitzinetik hartu, hamabortz, hamasei lagun baizik ez baititazke betan koka.

Batek bertzeari sala, badela. Non den? Zer ote den? Goazin ikus. Letra letraren gainean; jadanik frangok holetan egunak hartuak aitzinetik. Dela karrosa, dela *biziklet*, dela *otomobil*... hola dabilzanek ez dute alabainan holakorik baizik bilatzen. Nondik non egiten duten, tokirik hobere-

nean, bazkari, afari edo krakada. *Jużez un peu* zenbatek nahiko ahal duten jastatu Elizaldeko salda, bertze zerbaitekin, haitzaren gainean!

Beldurtzeko bakarrik, lanak ukan ditzaten, zenbait aldi, burutziarik ezin eginez. Ezen hastetikako itxuren arabera, proosinoa izanen da han sarrixago.

Non ez diren bertzetan ere *arkitetak* ernatzen. Ez baita ordean ostatu guzien aldean, eta holako parada gaitzean, holako haitz bat.

Azkenean, zer gerta ere, har *brevet* bat. Gutia goz hartzen dute askok; eta zer haroa ez daukate?

Hau nehork etzuen gutartean kasik aipatuko ere, arrotzek ba, ez balitzaio *Eskualduna* jabetu, bere baitarik, nehork deus galdatzen etzaukularik. Huni hau zor zitzaiola iduritu zauku, bereziki Eskual-herrian oro gibelerat gauden tonto batzu girela derasatelakotz. Eta nork? Beren bizi guzian holako lan baten egitea gogora ez lukioketen batzuek.

Ah! «*le Basque n'a pas du tout l'esprit inventif*»? ez nasik? *Allez donc y voir.*

Eskualduna, 1902-09-19



BIZIA ALA ESKUARA?

Ohoinek oihanetan, lepotik aztaparrez lotu eta, erraiten dautzute: Bizia ala moltsa? halaber guk Eskualdunek behar ote dugu egun hautarik batez aditu, ohoinak baino areagokoak diren gaixtagin tzar batzuen ahotik: Bizia ala eskuara?

Eztakigu; beldurtzeko da, bertze asko itsuskeriaren ondotik, hori ere ikus dezagun, eta entzun. Soinu hitsak dire bazter guzietarik. Ja badute tokitan holakotsu zerbeit eginik; eta bertzetan bertzei bezen ongi, guri hemen jar dazkikegu.

Estakuru berak dituzte; ba eta gehiago dena, hisia bera, herra bera, janiza bera, aiherkunde bera.

Batzuen ala bertzen etsai dire bardin: Bretanian bretonen; Biarnoan biarnesen; Kaskoinian kaskoinen; Eskual-herrian eskualdunen... eta *eskuararen etsai*; etsai gero zinez, hil edo bizi, ahalak diraukoteno ez bar-katzerainokoa.

Hil nahi laugukete gure mintzai zahar maitea; lehertu, ezeztatu lehen-bai-lehen. Begien aitzinean eztaezkete ikus; poxolu dute, hots, ezin gehiago. —Zertako ote? —Zoazi zu! Zertako dire diren bezalakoak? Tzarrik baizik deus ezpaitute gogoan!...

Duela bi ilabeteren inguruan, hemenxet aipatu behar izan dugu Rouanet Paristar deputatu gorri beltz delako batek Eskual-herrian egin zuela zerasalako itzulia.

Zer etzarion jaun arrotz horri gutaz? Zozo tonto buzoka eta huntz batzu ginela oro. Eskual-herri guzian etzuen ikusi emazte uli, gizon tresna eta haur basa, iheskari, deus ezin adiarazizko halako... bere gisako tetele batzu baizik.

Eta hori, zer delakotz? Eskuara delakotz. Eskuara orotaz hobendun. Eskuara ken, Eskualdunaren itzal guziak oro ken.

Delako Rouanet hemen gaindi (gezur edo egia) *omen* zabilarik, haren kideko bertze batzu bazabiltzan omen —holakoekin bethi *omen* erran behar da, deusetan ez baititazke sinets— Frantziaren zoko-moko guzietan; bereziki Bretanian.

Han ere hemengo zinkurina berak; ele nahasi, gezur berak: jende gibelatua, deusik ezin adiarazia. Gizon tokilo batzu direla hango gizonak; emazteak bardin; haurrak are tontoago. —Nor dela kausa? —*Breton* edo *betroin* mintzaia dela kausa. Guk hemen eskuara bezala, heiek ere han

beren mintzai berezia baitute, haren gain doazi hango gibelamendu guziak; egiazko edo gezurrezko gibelamenduak.

Gezurrezkoak ba, gehienak. Ezen hango jendea nongo nahikoa bezen bipila da, eta ernea. Ipar-aldean soldadorik hoberenak handik jalgitzen ditu gobernamentuak.

Bardin ba, dire ordean *breton* hek gu bezala eta gu baino ere beren erlisioneari atxikiak; ba eta beren aspaldiko mintzai zaharrari.

Aiten aitek erakatsia baiteie mintzai hori, orroitzapen bat baizik ez balitz ere, nahi lukete begiratu.

Zenbat gehiago eztire bihotzez estakatuak, josiak beren tokiko mintzaiari, zeren erlisioneak kasik orok haurdanik mintzai hartan ikasia duten, guk hemen eskuaraz bezala?

Otoitzak, predikuak eta katixima *bretonez* egiten edo entzuten, guk eskuaraz bezala. Bakarrik, guk ez bezala, gristino eskoletan ikasten zuten orai artino haurrek, frantsesarekin batean, beren sor-mintzaia ere Etxean erdi itsura ikasi *breton* hura hobeki, eta garbikiago, osokiago erakasten zeien eskoletan fraidek eta serorek. Mintzai baten orde biga ikasten zituzten beraz.

Orai serorak eta fraideak oro kentzen badiozkate, ez dute *breton* erakaslerik izanen eskoletan.

Ahantz-arazi nahi liokete, gehiago dena, etxean ikasi *breton* poxi hura ere. Huna nola. Ezin sinetsizkoa da, eta bizkitartean egia. Ministroak Bretaniako prefetei hel-arazi deie: beharko dutela hemendik harat hango erreter eta bikario guziek elizetan orai arte mintzo ziren *breton* hura utzirik... frantsesez mintzatu; katixima frantsesez egin; predikuak frantsesez; otoitzak ere ba.

Behazue! Diren bezalako nahasi tzarrek, zertan eta noraino sartzen duten sudurra! Zer joan zeie ministroei, prefetei eta bertze jaunfutre hoier guziei, *breton* apezek eta burrasoek nahi badeiete haurrei erlisioneak *bretonez* erakatsi? Egundaino ez bezala, elizetan predikuak baitezpada frantsesez egin-arazteko, zer esku dute? —Eskurik ez; baina gaixtakeria ordean.

Jakin, atxikiak direla Bretonak fedeari, eta kitzikatu nahi. Jakin ez dituztela erlisioneko erakaspenak ongi ikasten ahal, beren mintzai hartan baizik, eta hargatik, hartakotz nahi nahasi, kordokatu, durduzarazi, erbel-arazi norapeit.

Frantsesaren ikas-arazteaz baino miletan orroitago dire bretonaren eta erlisionearen... bereziki hune gal-arazteaz.



Eta bertze guzien ondotik, horra orai azkenean zer gogoratu zeien. Eta zer mehatsua gero! Baizik eta, berehala obeditzen ez duten apez guziei paga kenduren deiela. Jaun mera edo auzapezek beharko dutela sinatu, ba edo ez, bretona utzirik elizetan, frantsesari lotu direnetz apezak? Hoi da astokeria!

Ez duzue uste? Kanorerik ez luke; ez itxurarik, ez buru-buztanik... Eta bizkitartean ezta gerta eztitakena. —Zer ote? —Zer? Orizue gauza ber-bera ikustea Eskual-herrian ere... non eztituen Bretaniako *haiže botzake* lotsarazten. Hotz omen baita egun hautan han biziki. Bortz departamendu dauzkala, Bretania guzia horma bezalakaturik baitago jaun hoientzat.

Bat ez baita izanen Bretaniako apez guzietan, debeku zoro hoi onhartuko duenik; ez eta eiki auzapez nor bera den bat apezaren salatze-ko aihar litakenik, bretonez mintzatu dela.

Gogoetatzen ez badire, hango ara ikusiz... Jinkoak daki zeri gauden! han bortz departamenduri bezen errexki oldarturen ahal baitire hemen bati. Eztaukagu eta guk baten erdia ere, non etzauzkun auzo kaskoinak eta biarnesak alde jartzen, tiranoen kontra.

Gertatzen dena gerta, guhaur gelditurik ere, etsaiari buruz, ez dugu zeren izi. Bretonek eman etsenpluari jarraikiko gitzazko. Heldu bazauzku ohoinak, erranez: «Bizia ala eskuara» edo: «eskuara ala moltsa», ihardets goraki: «Bata ez bertzea. Fuera ohoinak! Fuera gure erlisionearen eta mintzaiaeren etsaiak!»

Ez denetz bada harrigarri: noraino deramaken Jinkoaren eta Jinkozko gauzen herrak!

Eskualduna, 1902-10-24

IMITORIO

Otsailaren 8-an, ortzegun eguerditik oren bat irian izan ziren lehen aldikotz Larresoroko elizaren ikertzen, erran nahi baita, *imitorio estakuru*, elizaz eta elizaren barnekoek jabetzen.

Uztaritzeko kontrolura zen jina bortz jendarmerekin. Bertzetan lau, hemen bortz: bat goizetik etorria, inguruen zain, zer gerta ere; ohore bat gehiago herriarentzat.

Erran tenoreko, jende guzia bildurik, eliza gako zetsia zaukatela. Deus gisaz ez baitzuten utzi nahi sartzera, beren ahalak egin gabe, gibelatzeko Ederki!... Ez balitz ere etsenplu baizik, gazteak noizpeit orro it ditezten, ikusirik zaharrak, handi eta ttipi oro, han bilduak, orok bat egiten zutelarik, beren eliza maitearen zaintzeko.

Jaun erretora bertzetarik bazter, otoitzean. Hari buruz doa lehenik xapela eskuan kontrolura; idek dezon eliza. Erretorak: «Ni bertzen zer-bitzari naiz hemen. Hor duzu herriko jendea. Mintza zaite hoiekin, iduri bazaitzu».

Badoa jendea buruz; idek dezoten. Ezetz orok. Orotako azkarkienik Martin Ithurry, fabrikako presidentak. Besoa aitzinatuz, eskua hetsirik, burdina iduri, kontrolurari frantsesez: «*Non, non, non, Monsieur*»... jendea eskuaraz oihurik eta zalapartarik gabe, bainan zoin gizonki eta azkarki... «Ez da sartuko. Gurea da eliza; ez dugu nahi sar dadin». —Ez dautzuet nik ebatsiko zuen eliza. —Ba ordean zure igortzalek. —Utz nezazue nere lanaren egitera. —Ez, jauna».

Oro mintzo ziren azkenean; eta orok ezetz. Izkribuz eman zezotela beraz eza. Baietz, hura aski bazuen. Berehala eginik eman zioten, eta jin bidez joan zen, deus egin gabe; ez hatik buruz-buru eta ondotik oraino bereak aditu gabe.

Ondoko egunetan jandarmeak herrian, etxez etxe, jakin nahiz noren gain eman makurra. Berek pitz gerla, eta gero *inkesta*... iduri ez jakin diren bezalakoek nor den hobendun!

Izitzeko, derabiltzate hor, jo hara, jo huna, jandarme gaizoak, aztoratuak, nehor guti ez izitzen hatik. Otsailaren 19-an, astelehen goizean goiz, argia gabe, 50 bat jandarme Larresoroko elizaren iguruan. Zer gerta ere, azken aldiz geroz, eliza beti hetsirik baitzagon egunaz, nahi ukan dute meza denboran bortaz jabetu, jauzarazteko lanik ez ukaiteagatik,



hori ez baitzeie araiak laket, ez eder berei ere, ohoinak bezala sartzea elizetan, jende guziaren aitzinean, zer nahi adituz sudurrera.

Hortakotz igorriak zituzten jandarme anitz oinez, gauaz. Hamar bat baizik ez zen aldedunik. Goxo ahal baitzitzeien gauaz ibiltzea, Baionatik eta urrunagotik batzu, eta zerentzat! Beren mutilak ere ez dituzte urrikari alimale hoiek.

Ez zen hek bezala oinez jina ez Clerch delako serora trufatzaile komisario Miarrizarra. Han zen hatik, bere *xarpa* soinean holako lan zar guzietan, beti xuxen han den bezala.

Ez da halere aski goiz jaiki gure jauna, eta ez deie jandarme aski laster lana egin arazi. Gu ere ez baiginauden lo, eliza hetsia kausitu dute. Hauxe da lana!... Eta gero, ezkila hor hasten da joiten. Jautzi batez han ziren alde orotarik lasterka. Harorik ez, bainan buru ahul beldurtirik ere nehor.

Gizonak bezen aitzina emazteak, ez aitzinago. Zortziko solas berak hemeretzi. «Idek. —Ez, jauna. —Hautsi beharko dugu borta. —Hauts-azue». Deus ezinaardietsiz, jauz-arazi dute, burdin palangaz. Han da borta; ez hautsia, bainan ageri, ohoinak izan direla Jin bite jandarmeak ikustera, nor jauz-arazi ote duen gure elizako borta. *Encore une enquête, allons, les représentants de la loi!*

Joan direnean xixtu onik ukanik daude, ez jandarmeak, bainan M. Clerch eta harekilakoak.

Ez du bada den bezalakoak herriko buruzagien larderiatzeko kope-ta izan, zeren ez diren haren alde jarri, legeak berak ez duelarik holakorik galdatzen! Hau salatuko, hura errebokatuko; iduri haren egitekoa den hori!...

Jaun erretoa galdatu dutenean zen bitxi; deitu dute kanporat; bainan ez zeie jali hitzeman arte, utziko zutela, hura jalitzearekin, sakristia-ko atea barnetik berriz hestera. Halere hitza atxiki diote.

Protestazionea irakurto duenean, orok esku zartaka entzun dutena, dire sartu ate handia jauz-arazirik.

Oren baten ingurua iraun du lanak. Ondoan benedizioea; erreto-rak zenbeit hitz onez eskerrak emanik herriari, joan dire zoin bere alde, bakotxak bere eginbidea beterik.

Holakoetan oro nahi litazke erran; bainan beldur gira luzatuz bertzetako berriei beren doi toki ez utz. Halere hau eman gabe hemen ez gauzke.

Gure gizonak jaun erretoa galdatu dute, eliza hetsia ikustearekin. Ez gogoratzea baita bitxi; tenore hartan apeza elizan baizik ez zitakela izan. Alabainan mezako tenorea zen.

Halere nehor ez erran nahiz non zen apeza, joan zautzu komisarioa; jandarme eta bertze bospasei lagunekin, erretoaren etxera. Han hatze-maiten dute jaun erretoaren sehia, etxe aitzinean, oiloen bazkatzen ari. Tuntik ez izitu; eta bere zaharrean, 78 urte dituelarik, burutik maingu ez dena baita; ez eta bortz ez hamar jandarmeren ez komisario baten beldur; itxuraz ere berak baitu jandarme aire bat (kazketa eta sabre beharrik gabe, berenaz da halakoa) behako bat igorri deie gain behera infanteri guziari: «Zer tun hauk?» —Hek berriz hari so, elgarri so: «Zer dugu hau? Karatxo!...»

Komisarioak: «*Bonjour. —Bonjour, Monsieur. —Monsieur le Curé est-il à la maison? —Non, Monsieur. —Où est-il? —A l'église. —Je viens ici avec un décret de la Préfecture. S'il ne veut pas ouvrir l'église, nous serons obligés de crocheter. —Arrangez-vous*» egiten dio atsoak begi zorrotz batekin, besoa han harat aurdikiz.

«*Comment vous appelez-vous? —Je suis chrétienne. —Moi aussi; mais je vous demande votre nom. —Je suis catholique. —Et moi aussi. —Oh! Ça, Monsieur, je ne sais si vous êtes catholique. —Votre nom? —Katalin, (to, hoi aski baduk, emak sakelan, eta joan horxe harat).*

Komisarioa badoa, itzultzearekin diolarik: «*Que voulez-vous? C'est comme ça*». Katalinek gibeletik, trufa mintzo batekin, hitzak... jakituz: «*C'est la loi; la loi des francs-maçons: le catholiques en prison. Jusqu'à quand?*»

Erran balio bezala: «Ago, putil, ago! Uste huen Katalin zaharra izi. Ez nuk hik izituko, ez. Ez dakik oraino Eskual-herriko emazte eta gizon guzien berri. Ikusiko diagu nork eginen duen oraino gorenik kukurruku».

Oiloak eta oilarra, xtant bat harrituak egonik, lotzen dire berriz janari; eta Katalin bere lanari, haur tzar batzuri, onez onean, bi egiaño erranik bezen trankil.

Eta orai doazila herriko gizonentzat egin mehatxuen bururaino. Zer izanen da belea baino beltzagorik? Eta gero... *jusqu'à quand?*

EZPELETA

Larresorokoaren egun berean zen Ezpeletako elizaren imitoria. Goizeko 9 orenetarik arratsaldeko bortzak arte, han ziren, han ikusgarriak! Ezkila entzunik, berrogoi bat Larresorotar joanak baitziren lasterka, ikustera, goraki zioten etxeratekoan: »Gu baino gehiago dire Ezpeletarrak. Nork behar zuen erran!«



Egia, hori: Nork behar zuen erran... orai duela bizpahiru ilabeteko bozez orroitu-eta! Non zauden gizonak! Eta non nolako gazteria! Mundu bat han zen: herri guzia multzora bildua, beltz-beltza menditarrak eta oro jautsirik; ez baitziren segurki gibelatuenak, beren elizarentzat duten atxikimenduaren erakusteko, menditar zaintsu, beldur gabeak.

Biba Basaburu oroz gainetik! Ez gitazke egun xehetasunetan sar, tokirik ez baitugu. Bainan egun ez bada bertze aldian emanen ditugu ahalak oro.

Bi oren eta erdi kaskaka ohoinen mutilak, jandarmez inguraturik, eliza ate zahar bat ezin idekiz! Kaska guziez barnetik oihuka 50 bat gizon, oro kasik gazteak, fueraka etsaiaren eta harekilakoen kontra. Bortz oren, uria jauts ahala ari zelarik ere, hanxet, kanpoan, elizatik eta ikus ahala urrun karrikari goiti, gaitzeko jendetzea. Eta nola mintzo oro! Zer oihuak artetan!

Bertze zenbeit herritakoekin heien berriak hitzemaite ditugu egun zortziko, Jinkoak nahi duelarik.

Eskualduna, 1906-02-23

«BRAVO, MON CAPITAINE!»

Ohoreak ditu egun hautan Hiriburuko elizak, ba eta Baionatik lehen auzo den herri eskualdun ttipiaren izenak. Frantzia guziko gazetetan aipatua izan da Hiriburuko eliza atearen hauts-eraztea galdatu diotelarik de Folongue izena duen kapitainari, zer egin duen. Ihardetsi: ezetz; ez duela borta soldadoei hauts-araziko, ez direla soldadoak holako lanetako, soldado.

Bordalera joanik, han behar izan du agertu aitzindari horrek, «conseil de guerre» deitu tribunalaren aitzinean *Akibatua* izan da, ez zela hutsean; haren manatzaleak zirela hutsean, eta ez hura. Ez zen hala ere; bainan zerbeit da, egungo egunean, dugun gobernamentu tzarrari erraitea tribunal batek: «Zure falta da».

Behar-ondoko bat ederra eman deie, gure ministro, prefet eta botiga guziari, Bordaleko soldado tribunalak. Ez du lehena; badaki holako baten berri. Bainan hau eta bertze zenbeit, egun hautan, ez ditu aise iretsi.

Aitzindari horren alde abokatak tribunalaren aitzinean erran dituenak aipargarri dire; ba eta berak han erran dituenak ere.

Abokatak asko bertze ateraldi xuxen eta sarkorren artetik hau du gure arabera jalgi, orotarik handiena; nor nahik berehala konpreni deza-keen heinekoa; framazon madarikatu hoiek nahiz, baitezpada Frantzian zerbeit onik diren guziak ahalaz desohoratu, zikindu nahiz, galdatu dituztela tropetako jeneral eta buruzagi handiei, zenbeit soldado, alegia deus ez, elizen inguruan larderia izpi baten atxikitzeko, «pour maintenir l'ordre. Alegia...

Eta gero, soldadoak beren kapitainarekin eliza-aitzinerara direnean komisario tzar batek mana: «Capitaine, faites marcher vos hommes».

Ordu arte, alegia ez hartako joan araz, eta orduan ager egiazko xedea; bortak hauts-araz soldadoei.

Eta hori, zakurkeriaz, bardin du den bezala erranik ere... *urdekeriaz*; soldadoen arropa nahiz desohoratu, eta bereziki soldado aitzindariak afruntu egin; sendi arazi nahiz, framazonen azpiko direla, on bazeie eta ez bazeie.

Hoik, hoik zer diren hatik!

Abokatak esku-zarta onik ukan du bereak erran dituenen. Gero kapitaina bera mintzatu da. Lege eta botiga, zibil eta militaire; nork mana, nork obedi, legezko zikaneria guziak oro bazterrerat utzirik, huna zertsu



erran duen, tribunalaren aitzinean, batere ahoan bilorik, ez ahalgerik gabe:

«Hiriburuko elizaren imitorioa egin behar zela, ukan dut manua, joaiteko hunenbertze soldadorekin "pour maintenir l'ordre". Hara-eta galdatu daut komisarioak, hauts-araz ditzotedala soldadoei bortak. Nik ezetz, ez dela hori soldadoen egitekoa. —Baietz. —Ezetz. Itzal nadila beraz; eta utz dezadala nere ondoko liotinanta nere orde jar dadin, borten hauts-arazteko. —Nik ezetz, ni naizela nausi, eta borten ez haustea dagola ene gain.

»Zertako dudan borten hausteko galdeari ezetz ihardetsi, hunan: Begien aitzinera jin zauzkit ene burraso eta ahaide giristinoak; hil eta bizi, oro. Orroitu niz nihaur ere giristino nizala. Erlisioneari zor dazkotan ongi guziak betan jin zauzkit gogora.

»Han ikusi dut, ez bakarrik Hiriburuko eliza ttipia, bainan Eliza katoliko guzia, mundu hau dena daukana. Orroitu niz Jesu-Kristo Gure Jauna osorik ostia konsekratu bakotxean den bezala, bardin han dela Eliza katoliko handi guzia, den eliza pobre ttipiengan oso-oso. Eta erran dautatenen, ene soldadoak behar nintuela manatu, lot ziten eliza borta bati aizkora ukaldika, jauzi egin daut berehala bihotzetik burura: *ez dela hori legea; nebondik nebolere ez ditakela hori legea izan.*

»Tank, hortan gelditu naiz; eta igorri dut ni baino goragokoari erraitera zer atekan nintzen. Eta jakin arte zer egin, hanxet egon niz, nere zuzenean, goragokoarenganik manuaren goait: "J'ai attendu".

Zer zautzue, kapitain horren mintzaldiaz? Eta zer diozue, holako gizon bat, soldado aitzindari giristino bat holako herstura gaixtoan, tzarkeriaz, ezarri duten alimale beltz diren bezalakoez?

Ah! ederki mintzatu baita, eta kondenatua izan balitz ere, etsenplu bat eman baitu, ez ahanztekoa!

Nor noren azpiko Frantzian, ez denetz ahalgarri!...

Eskualdun Ona, 1906-06-06

AHAL GUZIA

Ez du aspaldi, Itsasu Elizaldean, ala, ez nakike xuxen, herri bereko bertze ostatu batean, gizon batzu solasean zagozila. Mintzo ziren egungo eguneko makur izigarriez; oro hitz bereko ere ziren, erran gabe doana: gaizki goazila biziki; ez dela hola irauterik. Eskuin edo ezker goiti edo beheti, norapeit lehen bai lehen ez badu leher egiten hunek, gureak egin duela. Zer egin ordean?

—«Jo muturrean alimale hoik, bota lurrerat pilaz gora, debruak deramatza, dio batek —Bertzeak: «Bainan, gizona, guk zer egin deza-kegu? —Zer eta zer? Ahal guzia bederen, karako! —Gure ahala, zer da? —Zer den? Anitz, nahi baginu. —Bainan, gizona, orai artean ere gaizki balinbadoa Frantzia, ez doa guk gure aldetik ahalaren egite eskasez. —Ez ote? Barkazue beraz, eta zinez nahi dautazue niri erran; gure ahal guzia egin dugula guk beti orai arte? hauk ateraldia!...

»Emazue hunat otoi trago bat edatera. Behar dautzu et erran, mahain huntarik xutitu gabe, gogoan dudana.

»Bakotxak bere berri daki; nik neure. Ala nahuzue aitor dezazueta-dan egia? Egundaino ez niz orroitu, nere ahal guziak eginik, *aldi bat baizik*, nere bizian.

»Ah! orduan ba hatik, erran dezaket ahal guzia egin nuela. Bizkarra!!

»Lau guarda ondolik, harmekin, lasterka; ni nere balota bizkarrean, izerdi zurrutan, hats bahi hurran, bidez bide, mendiz mendi; harroka arte, iratzepe, sasi; hemen jauzi, hanxet gibelaldea larrutuz herrestan, leize baten hegiko laparrei eskuz lot, eta berma. Gibelerat so egiteko arte-rik ere ez. Zer tokia, eta zer orena!

»Han dut, han, nik orduan egin, alafede baietz, ene ahal guzia. Bertze nihoiz ez. Karanba! Gogoak emaiten daudan bezala erraiten dautzu et garbiki: nik orduan hantxet, nere beharrez, egin nuen indarraren erdia, ba eta laurdena ere, orok egin baginu *aldi bat*, gobernamentu tzar huni bizkar hezuraren hausteko, ez ginintazke giren heinean. Hara besoa ezetz.

»Eta oraino ere, "*zer egin? zer nahuzue guk egitea?*" eta holako ele ahul, ele alfer erraile guziek, egin bagineza, zinez, gure ahala, ahal guzia, itzuli-purdi bat ederra egin lezake hunek. Eta fite».

* * *



Zer diozue gure gizonaren ateraldiaz? Kaskoz mintzatzeko, ez da behar baitezpada izan eskola handikoa. Munduko *liburu* guziak baino gehiago ari da *burua*.

* * *

Erradazue: ez dea egia orok ikusten dugula, zoin gaizki goazin Frantzian, gero-ta gaizkiago? Maiz eta ardura mintzo gira egunean egunekeo makurrez. Bainen gero zer egiten dugu? Deus ez. Zer uzten egitekorik, egin beharrik eta egiten ahal ginuketik? Asko.

Behinik behin, hor maiatzaren 6an, heldu zauzkun boz hoitan behar dugu elgar lagundu. Guhauren onetan baizik ez balitz ere, orroitu behar dugu bertzeez; huntan orotako ona ororentzat denaz geroz, bat bederentzat ere baita.

Eta bertzalde, guhauren burua behar baginu ere behartu bertzeengatik, gure eginbidea da legeak boz egunetan elgarri guruz emaiten daukun indarra, elgarren onetan balia dezagun, eta ez bakarrik bakotxak beretzat. Orok ororentzat.

Hura litake eder eta zuzen. Zer diot: *litakela*? Da! Bozak hortako ez balinbadire, deusetako ez dire, nahasbide eta makurbide baizik.

Elgarren laguntzeko, zer dugun egitekorik, ageri dena da, eta ja behin baino gehiagotan hemen berean aipatu duguna. Dugun halere berriz erran, ahantzia duketenentzat.

Laguntzea da *laguntza* emaita. Hemen berekotz mintzo bagine, lehen laguntza litake bakotxak bere boza zuzenari emaita; gero ahalak oro egitea bertzei ere, gure helmeneko ahal guziei beren boza gurekin batean oneko alde daukanari eman-araztea.

Zonbat ez da *lagundu* beharrik, etsenpluz, elez, diruz; batzu ezteki bertzeak azkarki; beren baitarik lerrakor baitire makurreko alderat, edo balantzan baitaude, orotar prest, eta hamarretarik bederatzietan azkarrenarenganat... uzten badire?

Hemen ez dakigu, zer laguntzaren behartuko giren; ez baitakigu oraino xuxen, nor, non, noren kontra den agertuko boz galdez.

Badukegu deputatu-gei on bat, kontrariorik gabe: M Guichenne. Balu kontariorik, ez dugu nehork erraite beharrik zoin eskualde lagun gure ahal guziaz.

Bertze biak, Legrand eta Pradet, ez dire segur nehon ez direnak.

Ahal den gizona dukegu egiazki, hobeagorik agertzen ez bada, Jaun Pradeti, Clemenceau delako alimale beltz hura bezalako ministro bati *vote de confiance* eman dion bezala, emaitako. Jaun hori kexu omen ginuen iragan egunetan, egia hori hemen ikusirik. Gu ixil-arazi nahiz erabili dituen itzulikak utzirik, hobeki egingen zuen erraitea goraki: ez zela egia. Edo zerbeit garbitasun norapeit.

Ala ez ote da zuzen, boz-emaileak jakitea boz egun hautan bederen xuxen nor norat dagon?

Hemengoez berriagorik badugunez jakin arte, erran dezakegu bertzez orroitzea ontsa egin ginezakela; ontsa baino hobeki.

Arren bertzei buruz, ez dezoketegu bertze laguntzarik eskain, *dirua* baizik. Behar baita diru anitz, gau eta egun, bertze lanak oro utzirik, zala-partaka boz biltzen dabilztanen laguntzeko.

Hortakotz dire Frantzia guzian ibilki *Action Libérale Populaire* delako zozietate onaren izenean diruzko laguntza eske... nor? Oh! nor nahi, borondate ona duten ber, zahar ala gazte, gizon ala emazte, jaun eta andere, ala den apalena bardin. Toki arau, ahal dena.

Ez erran otoi: «Zertako holakoa? Bertze norbeit hobe zitaken».

Nahi zira zu... bertze hura? —Ez. —Utz beraz nor ere baita, eta hura. Eta egon ixilik.

Ez bakarrik ixil egon, bainen, eman bihotz onez, galdatzaleak dabilztan tokietan. Ez denetan, bila nori hel dezakezun. Guri bardin, behar den lekurat helduko baitugu.

Zenbat eman? —Ahal guzia.

Eskualdun Ona, 1906-04-13



APEZAREN PAGA

Egundainokoa dugu; solas batek bertzea ahanzarazten dauku; eta zoin fite! Burua itzultzeko artean gogotik osoki galdua dugu sekula santan orroit atxikiren ginuela iduri zitzaukuna.

Gauza guzietan bardin gira, baina ez da deusetan hain ontsa eza-gun, zoin giren ahanzkor, nola gure etsaiak erlisioneari dagion gerla herratsu izigarri huntaz delarikan aipu. Edo zoin jazarkunde itsusi, lege tzar eta ixtorio dezagutela egin, buhh! ... ez da mintzo jendea deusez gehiago, zer ere baita eguneko berri, hartaz eta hartaz, eta hartaz baizik Iduri ez dena badela; badena ez dela; hau dela, hura dela. Bar-bar-bar, oro hartaz elekan, egun bat; bi, hiru, zortzi egun goren-gorenaz. Gero tirrit; nehor ez da mintzo, ez eta ere orroit, deus ez balitz baino gehiago.

Berriak fite xahartzen dire zurekin; xahartzearekin berehala mintu usain bat hartzen dautzute xakurrentzat ere ez baitire on gehiago.

Emozu jendeari, bereziki bero idorte egun hautan, barnearen hatze-maiteko, berri fresko anitz; arrainak uretik jalitzean bezala baitire arai berriz ere, *berri* hartan hoberenik. Gero, ez hain on; *histen* berehala.

Bitxi da garbiki, zoin haurrak giren. *Haurrak* diot, zerbeit erran beharrez, ez baitzaut heldu eskura haurrak baino ere gutiago, ez-deusago den zerbeit, hemen ezartzeko.

Mementoan apezan pagaz da solas. Baina zer derasat? Atzo zen, edo herenegun apezan pagazko solas hori. Paga hori kentzera zeramala gobernamentuak entzun ginuen... Jaz; gero berriz kendu zuela. Gaizki zela ere ginion hori. Baina horrek ere, bertze guziek bezala, bere aldia egin du, egin du. Ea badenez geroztik horren eta aitzinagokoen eta ondolikakoen ahanzten laguntzeko bertzerik deus...

Ba balinba!... Non ginintazke gu, berriak ez balire berritzen? Hasteko, guti, xaharrak berri eta berriak xahar beti beretik ari litaken kazeta peges hau, ez balinbadaut sakelari kendua betetzen? *Berri*... hitz hori norat dagon ez baduzu lehen aldian konprenitu, irakur berriz; eta aski ez bada, ez hor geldi.

Jo aitzina beti, lerro bat irakurtu-ta ezin gogoan hartuz egon gabe. Ez koka solas berean, ez bazira lokartu nahi, kazeta eskuetan zaharturik. Trufaz mintzo nitzaizuela erranen duzue. Ez dut erranen ezetz. Bada alafede hor zertaz trufa; zuek eta ni barne, irri-egingarri baita, zoin laster asetzen giren solasik arinenez ala pizuenaz, ditaken gogoeta-garrienaz

bardin. Asetzen eta kasik nardatzen, akitzen berehala. Ahamena iresten dugun bezala, bizpahiru itzuli ahoan emanik, irets berriak ere. Hasmarru pixka bat ondotik eta doala, zera bere bidean.

Janak jan, edanak edan, erranak erran, ez badenez deus bertzerik?

Erraten dautzuet zinez eta jostetak bazter utziz, harrigarri dela zoin gutik dakiten gutartean *orroitzen!* Beti gogoan behar ginintuzkenak egunetik biharrera ahanziak ditugu. Erraten baita biharamunaz ez girela orroitzen; are gutiago bezperagoaz. Batek bertzea kuku, egungoak atzokoa, biharkoak egungoa, fuilla itzul, irakur eta kurri aitzina. Ez denez bitxi!...

Ahanztea bat duzu; ahanzi nahi ukaitea da handi. Eta hemen hori dugu ardura ikusten. Buru arin eta buru ahul baizik ez bagine, baina ez baitugu nahi ere orroitu ahanzi behar ez ginintuzkenez; ez baitezakegu jasan asko egiaz eta eginbidez bertzeek orroitaraztea bera.

Ez eta guri guhauri etsaiak eginez orroitaraztea ere. Iduri min egiten daukula orroitzeak. Iduri ahanziz ez daukula egiten eta eginen bardin kalte, edo gehiago.

Hau erran beharrez hasia dut solasa; *apezen paga* ala zer nahi ken etsaiak; ken libertate bat ala ken hamar; burrasoen zuzenak ala hurren arimaz, oro ken aldizka, bat bertzearen ondotik, batetara doala.

Bat baizik ez dakarkagu gogoan eta mihietan: azken hura beti. Bertzeak oro ez balire bezala.

Nor da ja mintzo *imitorioez?* Halaber ahanzik da Aita Sainduarekilako nakur handia, oraiko azken hori, non ez gaituen etsaiak berak bortxaz orroitarazten. Gure baitarik? Ez ginitazke bi asteren buruan, deus izan dela ere orroit, ez delarik bizkitartean ehun urte huntan hori baino gertakari handiagorik ikusi Frantzian.

Nik ez dakit jendearen zentzua ahulduz doan, ala zer.

Eskola giristinoez, hurren giristinoki altxatzeaz, haur gaixoen ari-mez, nor da mintzo? Nor da orroit?

Aspaldikoa da hori, Urak eta apezan pagak bide egin dute geroztik.

Eskualdun Ona, 1906-09-07



HARGINAREN HAURRAK

Badu zenbeit egun, Garaztar adixkide batek erran zaundala hemen aipatzera noana; burraso batzuen eta heien haurren istorioa.

Hargintzatik bizi senarra; emazteak etxeko lanak eta haurren artatzea; badute dutenaren beharra, elgar lagunduz urtearen burura heltzeko.

Biak bardin jinkotiar direlaket, nahi lituzkete haurrak ere ahalaz girixtinoki altxatu: behar ez denik deus ikas ez dezaten, lagun galgarrietarik urrun atxiki; ez utzi non nahi, nola nahi, nor nahirekin.

Goizetan amak, arratsetan aitak afal ondoan otoitzak erranez beren aitzinean gora, bakotxari egin-araziz bere hek, adin arau. Zer da ederragorik, eta zer utz dezokete burrasoek haurrei orroitzapen hoberik, Jainkoaren alderako eginbideak baino? Behin haste hastetik otoitzak, aldian izpi bat, emeki-emeki haur gaixoei altzoan jarririk eman, edo aitak belauen artean xutik, egun guziez artarekin, erranaraziz *altxatzen* dituzte haurrak burrasoek; berak ohartu gabe ikasten baitute hola haurrek jendetasun eta girixtinotasuna.

Ez gerozkotzat behar duten guzia, ez; bainan hastapena, erroa, baitetpadako erro hura han dute hartzen haurrek, aitaren eta amaren besotetan; heien ahotik entzunak hobeki hartzen dituzte gogoan.

Lan bat da, nahi baduzue, burrasoentzat hori, eta ez beti lan errexa; bainan erlisione zinezkoarekin haurren amodioa duten burrasoek ez bide dute hori baino lan maiteagorik; ez eta ere haurren onarekin berenarentzat lan beharragorik deus, Jainkoaren izena erakastea baino; haren beldurra bihotzean goizik sarraraztea baino.

Urrikalgarri eginbide hori ahanzten dutenak, eta hobendun handizki.

Are urrikalgarriago hobenik gabe eta bere nahiaren kontra eginbide horren betetzetik etsaiaren gaixakeriaz gibelatuak direnak edo makurtuak.

Haurrei burrasoek erakatsi on guziak utzarazten baitazkote oraiko eskoletan buruzagiek. Ez orok orotan, bainan ba ordean anitzek.

Arrats batez, gorago aipatu harginak haurrak supazterrean bere ingurura bildurik nahi zazkoten otoitzak eginarazi. Bi zaharrenak mutiko neskatoak dire; neskatoak seroretan ibilki, mutikoa errientetan. Gauetik egunerakoa ezagun omen baitute, nola diren altxatuak eskolan bi haurrideak, bat erlisionearen arabera, bertzea erlisionerik gabe, eta gehiagoko dena erlisionearen kontra doazin asko solas adituz eta ikasiz.

Bi haur toki berekoak, burraso beren umeak, etxean elgarrekin altxatuak... eta zoin guti elgar iduriak ja!

Aitak oihu egiten deie: «Zatozte haurrak, egin dezagun orok mul-txoan arratseko otoitza».

Neskatokoa heldu da ixil-ixila berehala aitari obeditzeko, eta dakielakotz eskolan ikasia: ez dela girixtino izena merezi duenik oherat joaiten otoitz egin gabe.

Mutikoa gordeka, ez nahiz bildu burrasoekin eta haurridekin otoitzaren egitera. Eta ez baitzuen lehen aldia iheska zabilala, gero ta hotzago eta bihurriago haur dohakabea, oihu samur bat egin zion aitak: «Zer duk hik gurekin otoitz ez egiteko? —Deus ez, aita. —Hik ba zerbeit. Errak zer dukan. —Errientak erran dauku eskolan ez dela otoitz egiterik, zeren ez baita Jainkorik».

Hitz itsusi lazgarri hoik haur hotz baten ahotik, bere haurraren ahotik aditzearekin, amari nigarra jauzi omen zitzaion; eta haurraren aita, hargin gizagaizoa, bihotza ilunik joan zen arrats hartan oherat.

Ene adixkideak zionaz, burraso langile heiek beren haurrak partitatuak zituzten, *ororekilakoa egin nahi*; neskatoak erlisione-eko eskolarat, mutikoak erlisione gaberat.

Bizi nahi, eta ez haizu haurrak girixtinoki altxatuz, bizitzerat.

Zenbat holako Frantziako zokoetan!

Eta gero Jainkoa zertako dugun ote samur, estonatuko gira gu!...

Eskualdun Ona, 1906-09-28



OHOINAK

Ohoinen eskuetan gira; ohoinak ditugu nausi Frantzian. Badagozi hogoi-ta bortz ohoin preso, gure jaun deputatu, zenator eta ministroek baino ohointza gutiago eginik.

Ohoinak direlakotz, legea bera, legea, gauzetan den zuzenena bere-naz, behar bederen litakena zuzen, ohoin bilakarazia dute. *Legea ohoin!* Ez baitire beren buruez ahalge, bertzeak bertze!

Ebats komentuak; ebats giristino eskoletxeak; ebats orai azkenik apez-geien altxatzeko zer nahi gostarik egin Semenariok Oro ebats berehala: Semenari handiak ala tipiak oro.

Ebats herrietan elizarenak ziren apez-etxeak; ebats arimentzat utzi meza sariak; herri gehienetan baitire hilek utziak, edo hilentzat biziek meza batzuen emanarazteko edo bertze zerbeit ongientzat; eskola, eri, pobre laguntzeko diru batzu; kapitala gobernamentuaren eskuan, intres tipia emanik ere, seguragorik ez ahal zelakoan, oro, oro, oro, ebats gure ohoinak, *legez* edo *alegia* legez; berek egin legea ere den baino tzarrago egi-nez berek, ondotikako *décrets*, *circulaires* buztaneria zirtzil zantzail batzuez.

Ororen gainera orai apez geieri aterbea ken, fuera kanporat seme-narioetarik beren buruzagiekin, deus gabe, zituzten guziez gabeturik apezteko eskolatzen ari ziren guziak.

Ebats etxea, ebats laneko alkiak, liburuak, jateko untziak; lo egiteko matalaza bera ebats azpitik haur eta istudiant gazte gaixoei.

Buluzirik, larruturik ezar oro kanpoan. Bertze nonbeit, ahal duten bezala bizitzeko, berriz elgarretara biltzerat ez haizu, non ez duten ehun mila formalitate, zerga berri, patentia berri, zer nahi despendio berri egi-ten lege berriaren uztarriari jartzeko.

Goseak hil ditzan, edo diru xahutzeak lotsaraz; edo berak ez lotsa-turik ere jendea dadin akit, beti emaiten; beti ororen leguntzen; beti etsaiak bata bertzearen ondotik egin zilo guzien tapatzen... ahalak oro baderamatzate.

Hoinbertze gosta behar bada erlisioneak, ez baditake burutziarik egin, azkenean debruak daramala utziko duela jendeak, ari dire hola fra-mazonak, jo, jo, jo aitzina, tira ahala tira.

Komentuen ondotik, herrietako eskoletxeak; eskoletxen ondotik semenariok.

Semenarioen ondotik apez-etxeak; apez-etxeen ondotik elizak. Ez dituztela elizak hetsiko mintzo baita jendea; berek hala diotela: ez dutela elizen hesteko xederik... zertako ez? Bainan gaizo ardiak gu, zertako sinets, guk, otsoen erranak?

Erran zuten, komentuek aski zutela biamenaren galdatzea; salbu jesuistei eta ez dakit bertze zoini ere, bertze guzieri emanen zutela bai-men hori: *l'autorisation*. Hara, non diren oro lurrean, errainak hautsirik. Bat ez baita «aurisation» eskaintzen zutena ardietsi duenik. Ebatsi ba etxeak, lurak, kaperak, zituzten guziak. Deus ez eman, ez deus utz; oro ken, oro ebats.

Erran zuten: elizen eta elizari doazkon apez-etxe, semenario eta bertze guzien *imitoria* egitean, ez zutela xede gaixtorik. «*Pour conserver les églises... et le reste*» ari zirela, gure gatik, gure onetan, erran zuten. *Pour voler* ba; horra non den frogia. Ez baita holako argirik, itsuei ere begien idekarazteko.

Apezek deus ez zezaten ebats ari zirela zioten. Zer kopeta!...

Ea nor den ohoin orai hor: apezak ala bertzerik?

Eta horra nolako gizonei dioten *gure izenean* beren boza eman beso-gainka, egun izigarri hautan... *vote de confiance en règle* gero, duda-mudarik gabe, eta ez behin bakarrik, hiru, lau aldiraino; ez tronpaturik, jakinean, odol hotzean, holako alimalei boza gure eskual-herriko hiru deputatueta-rik biek.

Bi horien izenak ditzagun eman berriz hemen, eta ez egun azken aldikotz ala fede ezetz. Deitzen dira bi jaun hoik: Legrand eta Pradet.

Eskualdun Ona, 1906-12-14



ONARTU BALITZ

Ikusi ditutzue edo entzun egun hautako desmasia izigarriak: Frantziako Semenari handi eta ttipi guziak oro ohoinek ebatsirik hetsiak; oro hustuak han apezten ziren gaztetarik; apezpikuak, herrietako erretor bikarioak oro beren etxetarik kanpo emanak edo emaiten ari; elizetan mezaren emaiterat ere ez haizu, ez kofesio, ez prediku, ez deus, gobernamentuaren baimena gabe; bertzenaz prozeberbala, amanda, presondegi, zer nahi meatxu; bortz edo sei mila apez gazte, ja beren urte soldadogoa eginik, erreglan zirenak ez bakarrik lehengo lege zaharrarekin, baina lege oraiko berriarekin ere bikario edo eskolemaile zirenak, berriz deituak bi urteren egiterat, den gutieneko zuzenik gabe; ez direlakotz joan behar, legea bera zeren alde duten; etxean egoiten badire, fuera preso, eta aitzina soldado; ez baita legerik ohoientzat.

Holako zer nahi, eta hoik oro oraino deus ez, hastapen bat baizik, berek diotenaz. Gerokoak gero.

Eta hoik oro Aita Sainduaren gain; «zertako den Aita Saindua den bezen buru gogorrekoa; den bezen tematsua».

Ez dute erraiten Frantses katolikoak direla tematsu; Aita Saindua da bakarrik orotaz hobendun. Haren faltak omen dire oro. Eta ez framazonenik deus; deusetaz ez dire hobendun erlisionearen etsaiak.

Ez zuten eta gogoan *gure ona* baizik; eta guk ez nahi sinetsi; nahiago guk «italiano... *arrotz*» baten erranari behatu. Hanbat gaixtoago guretzat. Legea lege; beharko dugula jasan legea den bezala eta den baino dorpeago; ez dakite aski tzar zer egin, ez zer erran; ohointzari datxikola gezurra, gezurrari ohointza. Gerla beltzean sartzeraz goazi. Noren falta?... Galda zozuete framazonei eta heiekilakoei; galdata gabe bardin berek beren baitarik erranen dautzute gezurra, xutik doan gezurra: Aita Sainduaren falta dela. Alabainan harek onhartu balu legea, onhartuko zuten katolikoei. —Ba baina lege tzarregi balinbaze? —Ezin onhartuzkoa balinbaze?...

Hain lege makurra balinbaze non Viviani, ministro batek baitzion goraki deputatu guzien aitzinean: «itotzera, hiltzera deramagu oraikotik erlisioneaz»; bertze batek, Clemenceau ministroen buruzagiak: «legea onhar ala ez onhar, bardin zauku; katolikoek egin du?» Eta holako ele tzar, egitate tzar zenbat, hogoita-bortz urte huntan; oro xede berera joaki, gero eta jasan-gaitzago?...

Ez ote zen ordu, norbeitek azkenean erran zezan: «Aski, aski tzarkeria. Geldi hor; *halte-là?*...»

Eta norbeit hura nor nahuzue izan zadin, ezenez katolikoek buruzagia? Eta gero nor, harekin batean, baizik ere apezpikuak, apezak eta giristino zinezkoak?

—Halere, diote oilo busti eta zainik ez odol gorri xortik ez duten batzuek, halere, halere ez ote zen hobe legearen onhartzea, oraiko desmasiak eta hauien ondolikakoak ahalaz urruntzeko? —Emazue hortik, otoi bakea. Nahuzue nik erran: zer izanen zen legea onhartu balitz? Hasteko irriz ase bat eginen zuten erlisionearen etsai errabiatuek. Denek batean gazeta zikinetan erran dutena: «Goazin aitzina, lañoki; bardin orainoko guziak bezala onhartuko die hau ere. "Ce sont des moutons sans cornes ni dents, ces idiots-là. Marchons". Goazin beti aitzina».

Jin baita ordean, eta jin zinez Erromatik aspaldian igurikitzen ginuen hitza. *Halte-là* jin baita.

Eta apezpiku guziek, apez guziek, fededun egiazko guziek errazoin eman diote Aita Sainduari, eta huni aier dire orai erlisionearen etsaiak Egin bezate nahi dutena; ebats bitzate apez etxe eta semenari guziak; ebats elizak eta hets (nahiz hura duten azkenik eginen, jendea goizegi asalda beldurrez).

Halere diogu goraki; hobe dela, ez baitu lege tzar hori onhartu katolikoek Buruzagi Aita Sainduak.

Beti, beti oro onhartuz norat ginoazin? Deus onik ez ginuken hartarik, luzamen pixka bat baizik.

Huntarik badukegu, ez bada guretzat, bederen gure ondokoentzat.

Zer izanen da ororen buruan?

Ardi zahar mutu batzu bezala gure buruak eta gurekin ondokoek erlisioneaz urkatzerat uztea baino miletan hobe dugu altxaturik burua, moztu behar balaukute ere.

Egundaino nehon ez du luzaz iraun holako tiranoen nausitasunak. Hauienak ere segur eginen du bere aldia. Noiz? Bego Jainkoaren gain. Egin dezagun guk eginbidea.

Eskualdun Ona, 1906-12-21



JAUN APEZPIKUAREN JALGITZEA

Gazeta hunen irakurtzale gutiz gehienek elizan irakurtzen entzun dukezue Jaun Apezpikuak semenarioen, apez etxe guzien eta bere egoitzaren ebasteaz eman duen letra ederra.

Bihotzmin handitan dugu diosesako buruzagia, bainan ez lotsatua; ez eta den gutienik etsitua. Urrun da!

Zer nahi jasan, hobe dugula gure buruen jabe, tzarren esklabo baino, dio. Hala baita.

Ez ditzazkegu eman, iragan ortzegunean, atzo zortzi, Baionako hiriak, bere etxetik jalgitzearekin, gure Jaun Apezpiku kartsu, harditari erakutsi dion atxikimenduazko frogak Etsaia oharturik hiria biziki asalatzera zoala, nahi zuketean gauaz inguraturik, semenarioetako apezak bezala, goizean goiz, jandarmez kendu kanporat Jaun Apezpikua. Ordre guziak emanak ziren itsuskeria horri buruz.

Bainan gero gogoratu zeie asaldu handiagoa baizik ez zela izanen hiriko eta inguruetako jende onek ikusten bazuten Apezpikua jendarme artean zoala. Ez da bera beldur; badaki, goiz edo berant, azkenean hauk oro hartarako direla, ez bada ere handiagorik izaiten oraino. Agian ez eta agian ba!

Ororen buruan, utzi dute, bera jalgi zadin, egunaz, ortzegun arratsaldean. Gehiago dena, polizarik ez fritsik ez dute igorri; gertatzen zena gerta zadila.

Beharrik ez baitire katolikoak bertze batzuen iduriko, deus makurrik ez da izan: ez nehork minartu; ez behar ez zen oihurik, ez deus.

Alta, bada, mundu bat zen; Apezpikuaren Baionako hirian lehen aldikotz sartzean baino anitzez jende gehiago; karriketan koka ahala, ikus ahala urrun, beltz beltza oro; lurra ez ageri. Urrats bat ezin egin biziki nekez baizik.

Handi eta xehe, orotarik han bazen. Gazteriak zaukan Apezpikua inguraturik, zer gerta ere. Lanak ukan baitituzte katedralerat sartzeko bide ezin egin araziz.

Donibane-Lohitzuneko gazte andana bat gauaz, oinez, etorriak ziren Urruñarrak, berantegi jakinik, ezin etorri dire; eta bertze frango halaber.

Gehiago eta hobe zitaken, bainan bazen aski. Katedralen eman dute *Kredo*, guziek: hunkigarri zen. Gero Jaun Apezpikua predikalkirat

iganik mintzatu da. Entzun eta ikusi dutenek ez baitaukate ahantzirik zer duen erran, eta nola. Beti kuraia, beti konfiantza.

Ditzatela ebatsi guziak atxik bainan utz erlisioneari libertatea.

Lau aldiz esku-zartaka: «Vive Monseigneur!» oihuka ihardetsi dio populu guziak bere artzain onari. Bainan hunek erranik, ez zezatela oihu egin «vive l'Evêque!», bainan ba «vive le Pape» eta «vive Dieu! Vive notre Seigneur Jésus-Christ!» oihu egin dute orok, harek galdatu bezala. Bainan azkarkiago baizik ez zuten gero berriz egiten oihu: «Vive Monseigneur!».

Horrela dute ereman karrosako zaldiak kendurik, eskuz karrosa zeramatela, Espaniako karrikan den eskoletxera, egoitza berri bat hatze-man arte.

Handik bazoazin hiriaren bertze burura, suprefeturaren etxera, libertate galdez. Jandarmek bidea hautsi deie.

Eskualdun Ona, 1906-12-28



SEMENARI HANDIA

Baionako istudiantak, etxea tarrapatan huts-arazirik, berrogoita zortzi oren baizik ez utziz, halako etxe gaitzaren husteko, zortzi egun atxiki dituzte hanxet barnean, gaixakeriaz; berak jalgi ziten edo han egon jatekorik, ez laneko liburutik, ez deus gabe.

Azkenean ikusirik hiria kexatzera zuala, eta behar ziren laguntza guzien helarazteko arima onak zoin gehiagoka zabiltzala, bereziki Baionatik eta Miarrizetik, ostaler eta ostalersa batzu, handi eta ttipi; bertze asko ere ba, pobre ala aberats, orotarik; astezken goizari buruz, gauaz inguratu dute soldadoz eta jandarmez semenario handia; eta gero argituta berehala, bortak hautsirik, banazka, birazka jandarmen artean jalgi dituzte kanporat ixudiantak, beren apez buruzagiekin.

Jaun superiora Joseph deitu apez jakitate eta saindutasun handiko bat da; biarnesa; 63 urte ditu; 40 urte bederen, medikuek bularrak galdutzat etsitu zutela. Geroztik beti eri eta beti aitzina lanean, gaitzeko gizon luze bat, herioa iduri begitartez; haren ikustea prediku bat da: are gehiago, entzutea.

Gizagaizoak galdatu du otoi utz zezaten azken jalgitzera, ez nahiz makurrik gerta zadin barne hartan, bera han izan gabe; eta galdatu bezen fite ardietsi du. Den tzarrenari alabainan bihotza hausten baitzaio noizetik noizera.

Jandarme batek bere aneia ixtudianta buruz-buru eginik barnetik kanporatekoan jauzi egin dio gainera ta nigarrez elgar besarkatu dute bi aneiek, komisario tzar eta guzien aitzinean.

Hiritik jendea semenariorat abiatu orduko lan guzia egina zen. Gauaz eta goizean goiz dabiltza ohoinak, beldurrez jendea asaldaraz.

Zer nahi eginik ere, ageri da jendea oldar balitzeie, ez litazkela bertze batzu baino izi gaitzagoak. Indar guziak eskuetan izaki, eta halere jendearen beldur!...

Ah! baginu batasun eta atzartasun gehixago!

SEMENARIO TTIPIA

Baionako semenarioa bertze ordutik halaber ebatsia izanik, bihurtu zuen ohiko gobernamentuak ordutik Apezpikuari, gauzak xuxen zirenean, lur poxi batekin. Semenari zaharra ez aski; delako lur haren gainean da egina, zaharraren aldean, biek bat egiten dutela, oraiko semenari hau.

Lehen ebatsia bihurtu ondoren ere beti berena baitaukate alimale hoiek, bazuten estakuru bat: semenari handia gobernamentuaren lurrean egina, beraz gobernamentuarena dela.

Bainan Larresoroko semenariorentzat ez dute holako estakururik. Larresoar Deguerre apez Hirigoingo semeak hasi zuen. Erreboluzioko denboran ebatsi oraiko ohoin hauen idurikoek. Gero enkantean joan zen; eta Sabarotz deitu Uztaritzeko errektorak erosi zuen.

Geroztik beti handituz joan da eta edertuz, apez eskolemaile kartuen lanari esker.

Jaun Apezpikuak iragan igandeko letra hunkigarrian erran duena, ez du, ez gobernamentuak, ez departamentuak, ez herriak egundaino ardit bat eman. Ez du nehork zehe bat lur han bererik, Jaun Apezpikuak eta harekin semenarioko buruzagiek baizik. Beraz ohointzetan ditaken ageriena, itsusiena da Eskualdun semenari hain maite ginuenaz jabetzea.

Xehetasunak hitzeman ditugu; huna egun, oro ez bada, gehientsuak.

Astearte arratsaldeko bi orenetan izan zen, bi bere kideko gizon tzar harmaturekin, Clerch zikin hura: biharamunagoko huts zezatela etxea semenarioko haur guziek eta buruzagi apezek.

Jaun tzar hura ezaguturik Chalbat Makear, portierak, laster egin zuen, superiora herriz kanpoan baitzen, haren ondoko, ekonomaren bila.

Hau berriz, hain xuxen, ez bere ganbaran. Komisarioak bazakien, ikusten zuen bila zabiltzala; bainan gure jaun handia ezin egon da oren laurden bat beha. Portierari hasi zaio bere paper zurruburuaren irakurtzen, erranez bardin zaiola nori nahi irakur Mutilak arrazoinekin erraiten baitzion, etzakiera zer zerasen, fuera joan da bizpahiru lerro bortari irakurturik. Alimale! Ez balu jaun apezpikuak depexa igorri, 48 orenik barnean etxea hustu behar zutela, hanxet zagozin, gizon tzar hari esker, deus garbitasunik jakin gabe.

Berehala lotu dire lanari: lehenik haurren etxerat igortzeari, zoin beren puskekin.



Gero atera dituzte apez nausien liburu eta bertzeak; azkenik etxearen gauzak; salbu, elizetan bezala Semenarioetan ere imitorioa egin baitzuten jaz, hartan ekarriak zirenak: hiru kalitz urrezko, bi urrezko ziborio edo ostia saindu untzi; apezpikuaren ganbarako apaindura guziak; apezan ganbara bakotxean ohea bi matalazekin, arropategi bat, laneko mahaina, sei kadirarekin; haurren ohe guziak matalaz bederarekin eta bedera kadira; laneko alki guziak, jateko mahain marbrezko ederra; lau dotzena kollir furxeta eder; baso, azietak, orotarik hunenbertze; mihise, ohestalgi, xukader.

Bortz abere buru; orga pare bat, eta zer ez oraino?

Hoik oro eta bertze asko han utzi behar; etxea bere lur guziekin eta gobernamentuaren eskuetan emanak zituen arrandekin. Oro ebats, aski garbiki errana zutelarik, imitoria ez zela egina deusen ebasteko, bainan ba deus gal ez zadin.

Halaber izanen da, elizen aldia heldu denean, sarrixago.

Orotako dorpeena baita mezaren emaitako eta Sakramendu Sainduaren atxikitzeak untzi sakratuak han utzi behar izaita. Jinkoak daki zer esku zikinetarat eroriko diren eta nola dituzten erabiliko!

HERRIKO JENDEA

Ikusteko zen Larresoroko herriak semenarioari erakutsi atxikimendua. Handi eta ttipi, oro lasterka jin dire laguntza eskaintzera; batek lan, bertzeak aterbe, itzaingo; orok ahal guzia.

Holakoetan beti diren bezala, han ere aztapar mako krako bakar batzu izan dire, su hiltzeko estakuruan, ea non zer hatzemanen duten dabilzanetarik; behi joare, uhal tresna, parasola, oiha, botoila huts, botoila bete, untzi: jinari lot.

Ez segurki herriaren desohoratzeorik; urrun da. Hainbertze eta gehiago izanen zen non nahi. Ez da errateko baizik badirela orotan orotarik.

Bainan zer dire zenbeit gizon eta emazte jendetasun gabe, herri guziari, Larresoroko herri onari behatu eta!

Nigar onik egin dute zenbeitek; eta madarizione onik aurdiki, oiuhka: *«A bas les voleurs! Vive la liberté! Vive la religion!»*

Gau eta egun han ziren zoin gehiagoka, zer egin zezaketen galdez. Euri uhar zenbeit bizkarrari behera harturik daude gauza karreian ari zirenak, auzoetarat.



JALGITZEA

Soldadoak astezken goizean heldu zirela igorritik Baionako adiskide batzuek hiru ehun Larresoar eta Halzuiar bildu dire goizean goiz, herriko eskila entzun orduko, semenariorat.

Huts-eginik zen igorria berria. Goiz guzia behar egon eta barreiatu zen jendea, emeki-emeki.

Arratsean jin zen segurtamena biharamunekotzat.

Iluntzeari buruz bizpahiru jandarme, gero bertze hainbertze, gau guzian heldu, gero-ta gehiago, preso hartzerat... nor uste duzue?

—Herriko elizako ezkila. Ohoinek ez baitute alabainan harrabotsik nahi. Halere ihiziko tutut eta atabal, ahalak oro egin dituzte Larresoarrek, nahiz adi arazi.

Bezperan hiru ehun, egunean ehun bildu dire, orori ezin adi-araziz.

Kanporateko borta guziak hetsi dituzte; apezak eman dire birazka ganbaretan gako.

Argitu-eta, zazpiak eta erdiak ondoxan jo du komisarioak etxean sartzeko ate handia. Hiru aldiz: «*Au nom de la loi, ouvrez*». Hiru aldiz oiuhuka errespusta Larresoar gizonak: «Non, non; vive la liberté. Fuera! A bas les voleurs! C'est toi, Clerch?...»

Eta gero gizon okaztagarri hari buruz, zer nahi, ahora jinak oro. Zerbeit entzunik dago.

Aizkora, palanga eta zer nahi tresna dorpez joka xehakatua dute, pusketan ezarri Semenarioko borta handia.

Soldadoak zituzten, Frantziako soldadoak, batzu eskualdunak, ohoin-lan horren egiteko.

Heiek zila arau Larresoar gizon azkarrek barnetik tapa, taula zaharrez, leihoz, alkiz, hatzemaiten ahal zituzten guziez.

Hiru oren laurden baino gehiago eman dute, ezin idekiz.

Noizpeit azkenean sartu da bitorios, burua gorarik, kana besoaz han harat bermatuz, Napoleon Clerch, apez, fraide, serora desarmatuen garraitzailea.

Bertze kopetarik zuen Itsasun.

Apezen ganbaretako ateak aise idek zitazketen, ahulak baitziren; bainan aizkora ukaldika hautsi nahiago ukan dituzte; gaitzituak omen gure jaunak, kanpoko borta handia idekitzera ez utzi nahiz lanak emanik

Larresoarrek. Ohoinei erran behar naski: «Sar zaitetzte, jaun onak. Ongi etorri!»

Jandarmek besotik hartu eta ereman dituzte banazka oro kanporat. Jandarme bati segurik eskua daldal ikaratzen zitzaion, hobenik gabeko apezaren besoa hunkituz. Bertze batek nigarra begian erran dio zeraman apezari. «Sinesten ahal duzu, jauna, ez girela oro gogotik ari lan huntan. Badut aneia bat apez», ala ez dakit «*osaba*» erran duen *aneia* orde.

Bertze jandarme batzu aldiz idorrak izandire eta moldagaitzak, ez apezekin, bainan gizon gazte batzuekin, bati ukumila bat gibeletik emaiterainokoan, bertze bati erri batetako larrua jauzarazterainokoan. Lau edo bortz preso alxatu ere dituzte (izitzeko) eta gero izenak harturik, utzi.

Bertzek baino gehiago deus erran ez egin gabe multzotik hartuak zituzten itsura; ez baitziren den gutienik izituak. Izenak hartu eta libratu dituzte, oren baten buruan.

Ithurry, herriko axuanta utzi dute, zagola bakarrik etxe aitzinean, kanporat kendu apezekin. Gaineratikoak oro urrun arazi ditu jandarme kapitainak, frango idorki.

Nahi zuketen etxerat joan semenarioaren eta han gelditu pusken zain utziz oxtian jardamez fuera kanporat jalgi apezak.

Ez baitzuten hauiek halako gutiziarik, behar izan dute ohoinek beren gain hartu ebatsi gauzen zaintzeko lana. Behin lau, gero bi jandarme ezarri dituzte, nahiago ahal baitzuketen bertze zer nahi egin.

Ondoko egunetan ikustekoak ziren eta ditazke oraino jandarmeak Camborat deraman bide bazterreko landa batean, arbi ateratzen ari, behientzat.

Nor nahi da jarri ohoinen mutil? Semenarioaren zaintzeko eskaintzen dituzte ilabeteko ehun libera. Nekez hatzemanen dute herrian, ez kantonamenduan.

Beltzuri onik baluke, Larresoarretarik guziz Eskualduna balitz, Contcho Hazpandarra Ahurtiko beneditanoen etxean zen bezala. Beltzuria baino beltzgorik ere ba.

Eskualdun Ona, 1907-01-03



MURDE DABID

Eskualdunaren irakurtzale onek otoi barka dezatedala, egungo solasa kasik ez-deuskeria batez balinbaderamat. Behar da orotarik.

Barka zuk ere, Dabid, eskualdun zahar altzeiru ezin higatuzkoa, Ezpeletako auzapez gaztea, zure izena, martailu bat bezala, bi eskuz hartzen badut, Eskualdun buru gogor batzuetan sar-arazteko itze bat, orai-kotik aldean bertze.

Hor nonbeit barnago, gazetaren erditsutan ezar banezote, deus baino gutiagorentzat har lezakete; edo utz, behartu ere gabe.

Iduri zaut hemen, haste huntan, Dabid... izen horrek lo daudenei eta orori, nahi eta ez, begiak zabal-araziko dazkotela eta beharriak xut altxaraziko: «zer den hau hemen egun... Dabid? Murde Dabid?»

Murde Dabid hori zuek bezala nik, nik bezala zuek, irakurtua dugu iragan maiatzeko boz-egunetan. Eta non? —Hemen, *Eskualdunean*.

Ahantzia duzue, ez da hala? Nik ez. Ez eiki zuek ere; zoin gizonki jarri den eta dagon gure Dabid, bere adin handian, Ezpeletako gizon zinezko Eskualdun fededunen buruzagi. Bainan egintza on horren gores-teaz bertzerik da ene egungo xedea.

Aitor-azue orok egia: nehor guti zareztela orroit egun hoitan irakurturik *Eskualdunean* bi hitz hauk: *Murde Dabid*.

Murde ala *Jaun* bardintsu zautzue, ez dea hala? Niri ez. Lehen ere erran dut Eskualdun huntan hor nonbeit behin bietan. Bainan badut bel-durra deus erran ez banu bezala den.

Alferretan izan bedi oraino ere, eta nahi duenak bitxi kausi beza: ez nauke oihi egin gabe, gora eta urrun, gorrek eta orok, on bazeie eta ez bazeie, oraikoan adi dezaten *Murde* delako hitz itsusi hori ez dela egun-daino eskualdun izan; ez eta Eskualdun elgarri zu eskuaraz erraiten dute-nek derabilaten hitz bat, non ez dituzten eskuara eta eskualduntasuna, biak ahantziak. Galduak.

Frantsesak du erraiten aitoren sementzat: *Monsieur de* edo *M. De*.

Orotan bezala, Eskual-herrian ere baziren bertze ordutik aitoren semeak, M de Belzunce eta holako. Bainan M de... hori frantsesez zarrai-koten... ez eskuaraz.

Eskuaraz, hori baino ederrago, garbiago, xuxenago, eskuarago zen eta da beti, nahutenek nahutena erranik ere, *Jauna*.

Jainkoak ere ez du eskuaraz bertze izenik Jinko eta Jaun-goikoi, gai-neko Jaun, bat direnaz geroz.

Jesu-Kristo gure *Jauna* erraiten dugu, eta badire halere gutartean «Jauna» baino ederrago baitzeie «Monsieur».

Eskuaraz «Monsieur» erraita bitxi zaienek erranen dautzute *Murde*. Ez dire ohartzen batetara doala: bakarrik *Murde* erraiten dautzuna min-tzo zautzu aitoren seme bazinauzka bezala... iduri trufaz.

Eskualzale arrotz, nonbeiko «basquists», «bascofiles» eta eskuara gaixoaren larrutzaileak mintza ditene hola: Murde harat, Murde hunat, begoite!

Bainan eskualdun odolekoak ez ohartzea *murde* hori ez dela gurea, eta gehiago dena, tuntik ez dugula guk horren beharrik: zer diozue hor-taz? Ez dea bitxi?

Hots, hortik otoi; itsusi ere da eta. Banaki koplan, josta nindake gogotik, aldizkatuz *murde* eta *urde*.

Nahuzue utzi hori bazterrerat. Bederen *Eskualdun* huntarat nehork ez igor gehiago.

Bota *jauna* edo deus ez. Hoberenik, hamarretarik bederatztan, «Jauna» baino ere deus ez. Eskuarago da. Eskuaraz ongi mintzatzeko ez da aski hitzak banazka eskuarazko izaitea. Hura da bakarrik *eskuaraz* min-tzo, nor ere mintzo baita eskualdunak bezala.

Ea bada nor entzunen duzuen erraiten gutartean, edo zoin jaun ttipi ala handi bere izenaz deitzen delarik: «Jaun Oihanburu», edo «Jaun Errekarte»? —Ez eta Errekarte edo Oihanburu jauna. Izenaren aitzinean ala ondotik, bardin gaizki doa *jaun* hori.

Oihanburuko jauna ba; Errekarteko jauna ba; eta etxeko jauna ere ba.

Bainan eskualdunak bere sinaduratzat dakarren izena bera berik aski izen da gehiagoko forradurik gabe.

Ezpeletan orok erranen dautzute Dabid labur. Bertze edo zoin herrian Etxeberri, Larralde, Harizmendi. Nehork ez *jaunik* hor; are gutiago *murde*-rik.

Zertako eman buruari hala ez dena. Izena berik motz dela eta itsusi? Zer du itsusirik berenaz izen batek? Zertako ken eskuari bere begitartea?

Errazue nahuzuen bezenbat: Jaun medikua, Jaun erretora, Jaun notaria, Jaun errienta; Jaun esposa, etxeko jauna.

Den gutienik jaun ez direnen artean ere ontsa doake: «ba, Jauna; ez, Jauna»; bainan hitz hori berik, hutsik, bakarrik.



Izena erranez geroz, aski jaun da izen hura bera eskuaraz, Dabid ala Salomon.

Eta ez da hori zuen ez ene gogotikako zerbait; eskuara da hola. Ez guk egina, bainan aitzinekoetarik ukan bezala beiratu behar duguna.

Baitezpada ezin egona dutenek izen guziak, buruhas agurkatu, muziukatu, murdekatu gabe, erran dezatela «Monsieur» eta ez «Murde». Izpirik ez da berdin hau hura baino eskuarago; eta puska itsusiago da murde. Bata ez bertzea ez erraitea hobe.

Eskuaraz mintzatu nahi direnek erraiten dute eta erranen Jaun jujea, jaun mera, jaun axuanta. Bizipide edo karguaren izenarekin *jauna*.

Familiako deiturarekin, deus ez: Elizalde, Goienetxe, Amezpil.

Gure baitarik orok hola erran ginezake; bainan ez dakit zerk egiten duen: izkiriatzeko luma eskuan hartzearekin, frantsesa doaku burura, eta ordutik debruak ereman du eskuara...

Eskualduna, 1908-07-17

EGUNDAINO

Egundaino ez da izan Frantziako gobernamentua orai den baino esku tzarragoetan. Egundaino ministro buruzagi bat ez da mintzatu gaizkiago, itsuskiago alimalekiago, nola iragan igandean hanxet, Betroniako hiri batera joanik, mintzatu baita bizpahirulau mila jenderen aitzinean, Conbes gure ministro nausi delako hura.

Oren batez han harek erran ez duenik ez da; hitza, blasfemia, trufa, gezurra, gaixtagin-larderia eta herra ahotik zarizkola.

Herrak derabilala bere solas, urrats, gogoeta, xede guzietan, ageri da. Ez du gordetzen ere. Ateraldia tzarrago, itsusiago, eta nahiago duela iduri du. Ez dauke larruaren barnean.

Egiteak nolakoak dituen badakigu engoitik araz, gure gostuz. Bardin da: ez baitire, hurbiltzeko ere, gogoan lituzken tzarkerien erdikalara heltzen. Egintzetan gaindi doakona deus ez da, gizon tzar horren barnea eta horrekilakoena betetzen duen pozoinaren haguna baizik.

Zer derasate hor zenbeitek, onerako zerbeit itxura badugula; eztatuz doala etsaia; ez dela nehor mintzo deusez ja zenbeit egun huntan; serorak ere, soinekoz aldaturik bederen —ori nolazpeit futxo!— haizuko direla herriatarat itzultzer, eta eskola emaitera?... Haizuko ba! Giren bezalako gaixo ahulak, sineskorak gu! Zazpi ahal guzien egitea ontsa da beti; behar ditugu egin ahal guziak oro, gure erlisionearen begiratzeko; ez uzteko gure haurrak, heien galtzea baizik bilatzen ez duen etsaiaren aztaparretarat.

Bainan ikusiko duzue, luzamen handirik gabe, ez baitute utziko nehon nehor nehola bizitzera erlisione haurrei erakats lezoketenik. Serora beltx ala xuri, ala andre xapeldun, eman ditela nahuten bezala; elgarrekin edo elgarretarik berex; hauts dezatela beren ohiko komentuekilakoa; jar ditela beren gain, zu eta ni bezala.

Nik erraiten dautzuet xuti-araziko dituztela berriz, eta berriz, oro kendu, haizatu, suntsitu arte... non ez duten berek lehenago bizkar hezurrak hausten.

Eta ez gira gero hemen gure baitarik mintzo. Ministroak berak, ministro buruzagiak erran du goraki, hatsik hartzerat ez gituztela utziko, lehertu arte.



Eta zer ahopaldiak! Frantzia bezalako herrialde handi, eder, eta lehen hain ona izana den baten buruzagia behar hola mintzatu! Mutiko piltzar bat bera mintzateko ahalge litaken bezen itsuski.

Xede gaixtoak dituela erraitea, hala dituenaz geroz, paso; ahulen lar-deriatzea, indarrez esku deno, paso. Fraiden eta seroren ondotik, apez-eta apezpikuen aldi izanen dela, eta lehenbailehen, oihu egitea, paso. Bainan trufatzea, ororen gainera; eta trufa baino musika gehiago, erlisio-nearen alde daukatenez, irri karkara egin nahi ukaitea oraino sudurrera; ostiko edo sistako emaitarekin, tu egitea begietara, zer ditake handiagorik?

Burrasok nahi lituzketela beren haurrak altxatu girixtinoki? Aita amenak direla haurrak! *Laissez-moi rire!*

Bi eskuak bi hanketara emanik, iduri zuen gure gizonak irriz ezin asea. Zer dire ahur bat serora herbail, ahul, Frantziako armada azkarrari ihardokitzeke? Phé... Deus ez.

Zer nahuzue egin dezaten apezpikuek, beren Aita Saindu berriare-kin, oro lan bati uztarturik ere?...

Hots, ez da deus ez nehor, gure Conbes erro, burutik baduela iduri duenak, zangopean erabili ez duenik Trufa serorez, trufa gizon ala emaz-te fededunez; trufa otoitzaz; trufa Jinkoaz eta haren probidentziaz; trufa goraki elizaz eta elizako buruzagiez; trufa, hitzez hitz, *Jesusen Bibotz Sakratuaz* beraz.

Erraten dautzuet *egundaino* ez duela nehork nehun ikusi, ez aditu, ez Frantzian ez bertzetan, gobernamentuko lehen buruzagi bat horrela mintzo.

Eta non? Noiz eta noren aitzinean! Eta nola? Sei mila gizon solda-dorekin joana zen, beldurrez bertzela zenbeit harri edo makila-ukaldi eman zezoten, Betroniako hirixka ttipi batetara. Eskuin eta ezker, aitzin eta gibel, alde orotarik soldadoz azkarki zaindua, inguratua joan da, den bezalako gizon tzarra hango giristino gaizoei zer nahiren erratera.

Berekin eremanak zituen Parisetik eta bertzetarik nehon diren gazte galdu, gizon hordi, deus onik ez diren batzu; ase truk; eta frango bertzalde, jornal ona pagatuz; zertako?... Ageri ahal da: hango jende on, eztiaren izitzeko, iduri soldadoen harmak ez aski hortako.

Eremanak zituen oraino, haren ateraldi ikaragarriak entzun arau, esku zartaka, oihuka, egin zezaten ahal bezenbat haro eta harrabots; hango bereko jendeak izan balire bezala, hari so, haren alde oro.

Arren, anartean hiriko jende guzia, edo zerbeit onik den guzia, kasik oro, gizon eta emazte, non ziren? Zer ari? Batzu elizan otoitzean, igan-

dea zelakotz, eta nahiz egun hartako eskandalaz Jinkoari barkamendu galdegin.

Bertzeak han, bilkura okaztagarri haren ingurueta oihuka, fueraka, xixtuka. «Zoala handik urrun ministro higuinagarria; ez zutela haren guti-ziarik. Bere onetan huts zitza leku hek!»

* * *

Nahi bezenbat xixtu eta fuera eta tomate edo sagar ustel orok leiho-etarik burura; ezin egona baitu ordean. Zortzi guziez, edo gehienez, han edo hemen behar du horrela bere haguna aurdiki.

Zer nahi estakuru aski zaio. Igandean, hura bezalako apez-gai ohi arnegatu hil baten orroitzapenetan zuten pesta bat gorriek, hiri hartan.

Renan deitu bati ohoreak egin behar zazkotela gogoratu zeie; hola-koak baitire beti hoi enpatroinak.

Hitzik ez du hartaz erran ministroak. Bazuen bertzerik golkoan!

Eleak ele, zer behar da bilakatu Frantzia, holako alimalen aztaparretan?

Eskualduna, 1908-09-18



BOTOILA BAR ARNO

Urteak ditu, bainan atzokoaz bezain orroit, gogoan dakart geroztik beti.

Hantxet, Larresoron, ohinek oraiño ebastekoa zuten semenario maitearen gain-aldeko bideño bati gora nindoalarik (banakike ere norat), igande iluntze batez, buruz-buru egin nuen emazte langile berrogoi bat urte zituzken batekin. Gutxi edo aski elaire ginen. Bidean holatxet solas egina behin edo bertze. —Agur. —Bai zuri ere. —Bezperak luze zituen eiki jaun erretorak? —Eztakit egungo berri; ahal dugunean bagabiltza; bainan ez gitazke beti hel. Alferkeria pixka bat ere lotzen zauku batzutan. Udan bero dela, neguan hotz, oro estakuru gira elizako urrats horri buruz. Halere, bakan gaude, nor edo nor etxetik, meza nausi, bezperetar gabe. Gure gizonaren aldi zen egun; bainan ez da egia bezalakorik; bazkal ondoan etzan-aldiaren egitera joan, eta giza-gaizoa, oheak beretu daut. Badakizu: harrobi hortan akitzen; lan idorra: igandeak behar jasan astelegunetako itzal-eskasa. Ez da, ez, naski ontsa, bainan Jainkoak ikusten ahal du.

Bederen elizari kendu orenak etxean deramatzagu, senar, emazte eta haur, orok elgarrekin. —Ez hatik beti orok; oraintxe zu hemen zirenaz geroz, diot erraiten irriz.

Irriz ihardesten daut: zer da hemendik eta hortxetarainoko joan-jin hau? Hau egiten dut hola, tenortsu huntan, bezperetako aldi ez dutan igande arrastiri guziez, non ez diotan, ezinbertzez, haur bati egin-arazten. Ahal badut haurrak aitarekin etxean utzirik, nahiago dut hau nihaurek egin.

Hainbertzenarekin, esku batez gorderik zeramana zaiapean, iduri nonbeitik zerbeit ebatsia, bet-betan agertzen daut irri on batekin... botoila bat arno, diolarik: Orizu, gero berdin zaut egia zuri den bezala erranik. Igande arratsetan senar-emaztek, gure bortz haurrekin hau husten dugu.

Ez da, ez, nehon ez dena; bainan herriko arno garbi xorta bat hola zortzitik behin gure etxean, bazinaki zer besta den?

Hunen alderat egiten dakot gure gizonari aza-kozina bat ahal bezen ona. Hortarik orok jan, huntarik hurrupa bedera nik eta haurrek jasta, gaineratikoa berak edan, ez baitzauku sobera; gopor edo gatelu, behiak emaiten daukun esnea orok parti; guk solas; haurrek jauzi.

Arratseko otoitza elgarrekin egin eta, loale arau bagoazi oherat. Eta astelehen gozian bat ez da gure etxean burutik minez dagola, errangura denik. Zer zautzu? —Zaut, badela hogoi-ta bortz beren igandea, eta guziz igande arratsaldea, eta gaua, gaizkiago deramatenik.

Ez duzu zeren gorde hola botoila hori. Zu horrekin, hori zurekin, agertzeko on zirezte non nahi.

Ai, balute bazterretan aste guzia lanarekin borroka bizi diren gizon nekatzale guziek beren etxean zu bezalako emazte bat? Bertzela argi lezakete zenbeitek! —Ba ote? —Dakizula. —Nik eztakit bertzen berri; bainan erranen dautzut egia; gure gizona ez da behin ere izan bertze bat baino makurragoa; bainan kalte egiten zion kapoko edanak; osagarria eta oro galtzen ari zituen. Ostua utzirik, huni lotuz geroz, gauek egunera bezalakaturik jarria dut. Agian ez ahal zautala itzuliko, nago. —Zoazi hortik. Engoitik botoilaño hori harantxet berandetsirik dago norbeit. Jainkoak dizula gau on. —Bai zuri ere.

Bagoazi, zoin gure alde. Hura zalu, goait zagozkon senar eta haurretarat Ni ttuku-ttuku nere bideari hantxe ikusi eta entzunak gogoan; hau irakurtu-ta zenbeit behar bada, ez bakarrik Larresoron, bainan *Eskualduna* heltzen den herri baktxean, geldituko diren bezala.

Baten etsenpluak bertze bati baizik ez balitzo ere begiak idek, eta hauts bihotza, ez lakiket egungo lana gal.

Eskualduna, 1909-03-12



JANDARMEAK OHOIN

Jandarmeak ohoin, ohoinak jandarme, nork egindaino ikusi ditu? Egun... *daino*, ez nehork nehun. Egun ba hatik, egun ikusten ditugu Frantzian, ohoinak jandarme, jandarmeak ohoin. Eta gehiago dena, ez edo zoin jandarme gero; jandarme aitzindaririk handienak. Frantziako jandarme guzici manatzen dutenak; soldado eta jandarme, gaixtaginen izitzeko, gu guzien ontasunen eta biziaren zain, gau eta egun, harmaturik daudenak beren eskuko dituzten Jaun handiak ditugu Frantzian presondegiatarat egun guziez deramatzen ohoinik handienak baino ohoinago.

Badakizue hori aspaldian guk bezain ontsa; zenbeit aldi hemenxe hola erranik gaude, garbiki eta goraki, ahoan bilorik gabe. Eta bertzalde, guk erraitearen beharrik ez duzue, zihauren begiz ikusteko, zenbat ohoin-tza eta zoin handiak, zoin itsusiak dauzkuten eginak orotan animale tzar hoiek, ahaleak eta oro zangoen azpian emanik.

Ebats komentu, etxe eta lur eta kapera, zirenak oro; ebats herrieta-ko fabrika berek kendu dituztenetan ontasun guziak: meza sari, hilen ari-mentzat utziak; norbaiten eskuetan, ahalaz esku seguretan utzi nahiz, utziak hilentzat biziek, edo hilek berek hiltzean, gobernamentuaren eskuetan.

Gobernamenduak hek oro ebats, trufa baino musika gehiago, erra-nez: hilek ez dutela hilez geroz, deusen beharrik: hek baino beharragoak direla ezin biziz lanak dituzten pobreak; hek lagunduko dituztela hor eli-zei ebatsi ontasunetarik... Urdeak!

Orizue, lehen aldia duket hitz hori hemen emaiten dudala. Joan da. Eskapatu zaut. Hor da engoitik, bego, hor. Bere lekuan da. Nekez eman zinezakete nehon hor baino hobeki.

Hoik zer diren holakorik! Badea, baditakea, ez bakarrik eskuan, bainan edo zoin mintzaitan ere, frantsesa barne, hori baino hitz xuxen eta zuzenagorik, hots! *garbiagorik*; hoien egitateak ikusi eta gogora, gogotik ahora berehala heldu zautzuenik, egia den bezala erran nahi duenarentzat badea, baditakea?

Hor dire obrak. Debruari eta herkilakoei esker. Lehengoen gainera oraikoak; oraikoen gainera heldu berriz, beti aitzina, sarrixagoak.

Orai beretik erretoarene, apez-etxe ebatsiak saltzera baiteramatzate asko tokitan, berenak balituzte bezala; bertze batzutan, arrandan baizik

ez baituzte nahi utzi apezen eskuko; ebats-eta gozamina urririk zuzenez behar zuenari arranda pagaraz; eta ez nola nahikoa; ahalik eta handiena.

Pagatu nahi ez badu fuera kanporat. Etxea huts, herria huts, non ez duen herriak harentzat eske bat eginik, bertze aterbe bat bilatzen eta atze-maiten; edo egiten etxe berri bat, ontsa gostarik, behar ederrez!... Framazon ohoin hoiek eta hoiekilakoek beren herra ezin aski asez.

Eta gero? Gero azkenean oro herriak jasan. Oro esketik behar, bertzela bazitazkelarik, behar litazkelarik eta bazirelarik. Esketik eskolak, esketik orai holetan apez-etxeak ebatsirik, hustarekin, heien egoitzak berak.

Hauk oro hola, ikusiz jendea zoin den ahul, itsu, bakotxa bere har-taz baizik ez orroit, edo guti kexu, badoatzi beti aitzina. Ohoin batzu direla, egia ez aditu muturrera nahiago lukete; ez baita lakete; den sorraio-enari horren aditzeak halako bat egiten baitio.

Bainan ez daude segur horrengatik gibelerat egitekotan. Baduk hoberik!

Noizpeit azkenean atzar baladi jendea; konpreni balezate orok ontsa, elizari, ospitaleari, eskolari, apezari, bere ogiarentzat, aterbearen-tzat emana gal dela herriarentzat; etsaiak erlisioneari oro ken, oro ebats, oro bahi; harek bahi arau, ken arau, ebats arau, guziak oro edo bederen beharrenak nonbeitik jalgi behar; alegia apezari gerla, herri guziari haren itzalean bidegabe egiten dela, eta bidegabe handi; konpreni baleza jen-deak behin zinez, muturreko bat ederra balukete ba ohoinak goiz edo berant.

Ez gira segurki hartan oraino. Hain guti dire izituak, hain kopeta gorarik dabilta oraino nun *Journal Officiel* gobernamentuko gazeta herri guzietan orok ikus dezaketen hartan, berek zabal-zabala eman baitauz-kute egun... hautan gure departamentuko eliza guzici eta elizetako fabri-kei ebatsi guzien izenak eta xifreak oro listu luze batean lerro, lerro: *liste des Biens ayant appartenu aux établissements publics du culte que avaient leur siège dans le département des Basses-Pyrénées*.

Aste huntan berean gobernamentuko gazetarik jalgia emaiten du zati bat listu luze hortarik, *Bulletin Religieux* izena duen apezpikutegiko gazetarik.

Han dire Hazparneko, Bastidako, Donibane-Lohitzuneko, Uztaritzeko, Iholdiko, bortz kantonamenduetako elizei ebatsi ontasunen xehetasunak.

Ez gure erranetik, bainan ohoinen beren erranetik, iduri trufaz bezala emanak. Bertze ohoinak ebatsi gauzak bederen gordetzen dituzte;



hauek ez. Hor nonbeit beherago emaiten ditugu non zertsu den ebatsirik, herrika. Bada bertze asko herri ere buluzi dutenik; zerbeit zuten guziak zituzten guziez.

Hori ez balinbazautzue biziki dorpe, zuen erlisioneak ez du balio pipa bat tabako. Horrek ez balin bazaituzte hunkitzen, zer zuzenez nahi zinukete sarrixago bertzeak hunki ditzan, etsaia zuen ontasunez jabetuko denean, zuen aldia heldu delarik? —Jinen baita, heldu baita zerbeitdun diren guzien aldia. Zuzen ere baita jin dadin!

Jandarreak batzuentzat jandarme, bertzeentzat ohoin, ez da zuzen. Bakotxa bereaz jabe izan dadin, ororentzat da edo nehorentzat ez.

Eskualdun Ona, 1909-05-07

FEDE ONA

Eskuaraz fede ona baino hobeki doa frantsesez «la bonne foi». Hitz berak direlarik, ez dute bi mintzaietan bardin garbiki gauza bera erran nahi. Bertze askotan ere gertatzen dena da. Frantsesetik eskuararat itzuliaren bortxaz, hartzen dire azkenean; bainan behin eta behin badagoke bat, bertzeak zer deraskon jakin gabe.

Fede ona emagun dela leialtasuna, faltsukeriaren kontrarioa.

Frantsesetik eskuararat, eskuaratik frantseserateko harat-hunata baino nahasgarriago da: mintzai berean ere, batetik bertzera gabe, asko aldiz eta bereziki egungo egunean, ez dena badela nahi bailiokete gizonek hitz askori erran-arazi.

Hala nola hemen; ez federik, ez eta, oraino are gutiago, fede onik ez den tokian ahotaraka mintzatuko baitzauzkitzu fede onaz.

Eskuaraz «fede ona» bezen guti baita frantsesez «bonne foi».

«Il est, ils sont de bonne foi; la bonne foi sauve tout, heureusement». Hogo-ta bortz eta bortz ehun aldiz aditurik gaude gezur hori; frantsesez bezen ardura eskuaraz; horren erraileak berak, noiz edo noiz, fede oneko balinbaziren ere; uste bazuten ere, zinez eta egiazki, nor ere baitzen aipu eta hura «de bonne foi» zela... tuntik ez baitzen egian.

Politika delakoari doazkon urhatsetan da maizenik eta gorenik ahoz-aho ibilki «fede ona», izaitez gutienik ari den lekuetan.

Jende xehea, populua, «guk zer dakigu?» noiz nahi mihian duelarik, beti orok baino xuxenago eta hobeki oro balazki bezala makurrari jarraikiko zautzun populu gaizo hura, ez berak dion eta zuk uste bezen gaizoa... ja, ja! ez eni erran! gaizo edo alegia gaizo hura ez haatik uste gabea, huts eginik, oneko eskualdeari lotuko, bere ez jakinean, bere zozoan. Baduk hoberi, putill!

Onari balinbadago, ikusten duelarik on hura tzarra baino ahulago, errazue populu hura zinez ona dela eta onekoa, bera.

Sinestea: *la foi*; sineste ona: *la bonne foi*. Harek du, harek; makur azkarrari zuzen ahularen alde buru atxikiko dion harek.

Ez dautzu populu harek, nahi bezen gibelatua izanik ere asko zere-tan, erranen, zuk hitz bat jalgi orduko: «Guk zer dakigu?» Badaki tzarra ez dela ona; etsaia, ez adixkide, nahi duen bezenbat ele zuri dariolarik ere.

«Guk zer dakigu?» derasan populuak ez du fede onik; haren fedeak ez du deus balio. Ahula da, hil hurrana da, ez balitz bezalatsu da.



Fede egiazkoa balinbada, bizia, ona, garbiki erranen dautzuet: hanbat gaixtoago! Ezen orduan, ez-azolkeriaz, Jainkoarekilakoa baino haren etsaiekilakoa egin nahiagoz, fede on (?) hura zangopean emanik dauka.

Ezta hor, uste hau eta hura ez uste, zeren estakuru bila ibil. Fede ona egintza onetan da ageri; ona ez dena berriz arabera egintzetan.

Jende xeheaz, populuaz baino are egiago da hau buruzagiez; herrietako auzapez, axuant, boz-biltzale, beren buruei zu errailez.

Gizon zuzena dela holakoa, salbu, horra... politikazko zer hoitan; hoitan ere... ez zuk eta nik uste bezen barna sartua makurrean; hala balitz ere, fede onean dela, *de bonne foi*, zenbat aldiz ez duzue aditzen? —Eta sinesten edo erdi sinetsiaren egiten.

Bardin balio du, adixkide ala etsai, hau irakurtuko duzuenek hartuko duzue nahuzuen bezala: egungo egunean, ba eta ja hogoi-ta gehiago urte huntan, Frantziar nausitzerat utziak eta nausitzen guhaurek lagunduak ditugun gizonak, eta hekilakoa egin nahiz, zer nahi estakuruz, heien alde boz-emaiteak eta eman-arazteak barnea kilikatuko ez dion gizona, izan bedi bonetun ala xapeldun, gizon eskolatu ala ez, engoitik, debrua izanik ere, aitortzen ez duena: *eskualde hau makurra da eta hori xuxena; hau erlisionearen alde, hura kontra...*, hortan orain eta beti ez jakinarena, zozoa-rena eginen dautzuenari errozue den gutieneko dudamudarik gabe, nere partez goraintzi eta gezurra diola.

Daukat ez dela jendea den baino astoagotzat idukitzea baino astokeria handiagorik.

Fede onaz barkantxago mintzatzea ez ote ginuke hobe, eta maizago fede hilaz edo eriaz, merke salduaz, trahituaz?

Datxikola, hor bi gogoeta!

Eskualduna, 1910-10-21

IXIL HADI, JUDAS

Ez dakit zenbat aldiz entzun dukedan solas bat, jasan ez dezakedana. Atzo azkenik, Judasekin solasean buruz-buru nindagolarik. —Nola, nola? Zer? Eta zuk Judasekin egiten duzu solas? —Bai naski, eta nahi nuken baino ardurago halere! —Eta zer erran dautzu Judasek? —Erran daut, orizu, ehun aldiz nik bezala zuk ere Judasen ahotik entzun dukezu-na. Erran daut: gure erlisioneari Frantzian kalterik handiena egiten diotena direla. —Nor ote? Juduak? —Ez. —Framazonak? —Ez eta ere. —Gorriak beraz; ministro gorriak, zenator eta deputatu gorriak eta heien eskualdea dadukaten auzapez eta bertze gorritar guziak? —Ez, gizona. Nor beraz? —Xurien aldeko jaun batzu; herrietako buruzagi bezala edo xurien alde boz-biltzale bezala erlisionearen laguntzerat ari direnak, eta gero berak bakartasunean halaxe-hulaxe bizi. Politikazko gora-beheretan xuri; bozetan eta bozez kanpo ere asko gure etsaien etsai, eta bizkitartean berek erlisione guti izaki, edo bederen bihotzez erlisioneakoak balin badi-re, ondikotz ez erlisionearen arabera bizi...

Urrats publikoetan giristino; ba eta batzu giristino kartsu, eta berek berentzat erlisione egitekoak ez egiten; batek igandetako meza erdietan ez entzunez, bertzeak Pazkorik ez egiten; edo han doi-doia baitezpadako hein hartan egoki. Holako herriko auzapezak edo auzapez ohiak erlisionearen etsaiari azkarki ihardoki du beti. Beti erlisione gizonen alde, lege tzarren kontra egin du indar; bainan ez da berenaz elizatiarra, edo bederen ez debota. Bere bertzenazko harat-hunatetan zerbeit elepideska emaiten duke. Nahi baduzu, emagun itzal handiak badituela. Ordutik harenak egin du, anitzen begietan; xakurrentzat ere ez da on gure gizona, ez duelakotz erlisione osoki pratikatzen. Haren eta zure herritar anitzek erranen derautzute gizon horrek herrian erlisioneari bidegabe handia egiten diola, zeren etsenplu gaixtoa emaiten duen. Eta nola? Erlisionearen alde bere burua erakutsiz eta ordu berean bera erlisioneak nahi ez bezala biziz.

Deusek ez omen du, batzuek diotenaz, kalte gehiago egiten horrelako gizon giristino-ez-giristino batzuen etsenpluak baino.

Gorenik holaxet mintzo dire, nor uste duzue? Hamarretarik bederatzietan Judas ttipi edo handi batzu, ixil-ixila egon behar litazkenak. Judas batzu, beren Jainkoa merke sartzen dutenak. Merke, merke...



Erlisioea pratikatzen, ba; elizan ibiltzen ba; eta ez nola nahi, ez iheska. Erdiz erdi, agerian. Pazkoak ba egiten, eta, nahi baduzu, zerbeit gehiago ere.

Eta gero bozetako egunak etorri direnean, erlisionearen etsaiari boza, edo batetara doana, etsaiaren adiskideari. Hunek bere eretzean halaber. Boz-emaile Judas ttipi, boz biltzale Judas handi.

Mahain saindunik lekora gostuan Jainkoaren etsaitzat ezagutu batzuekin hor gaindi besoz-beso ibilki. Goizean elizan Kredo ta Loria, kantuz errepika; arratsaldean orok dakiguna, debruzko solas eta egintza. Gezur, blasfemio, madarizione; ahora jinak erran, gogora jinak egin. Gutienetik, bederen ez nahi etsaiari jazarri. Beldur, hau edo hura gal, edo ez irabaz. Esku eta laguntza etsaiari, estakuru gutiz.

Horra nor eta zer gizon diren goragoko bertze heietaz gaizkienik mintzo direnak. Nor nortaz behar mintzatu! Gehiago da, ez baitire ahalge beren buruez! Alabainan burua oso duenak ihardets dezokete: «ago ixilik hi, Judas; hik ez duk nehortaz mintzatzeko eskurik holako ez-baietan».

Iduri du egiazki poxolu zaiotela bertzeak erlisioeko aldearen atxikitzen ikustea. Zer nahi lukete beraz, ala bertze gizon etsenplu gaixto emaile direlako hek osoki erlisionearen etsai bilaka ditene? Berak berentzat zer nahi izanagatik, oneko aldea daukaten bezala idukitzen ikusi baino nahiago ote lituzkete gure etsaiarekin bateratuak ikusi, berak bezala? Gaineratiko «pratika» onik ez duenarentzat, ez ote da zerbeit (eta ez guti!), etsaiari esku emaite orde, jazartzea, gure zuzenen begiratzeko?

Nahi dut, eta erran gabe doa, hobeki egin lezaketela, bai beren eta bai bertzeen onetan, aipu ditugun gizon heiek osoki erlisioneari jarraikiak balire. Indar gehiago lukete, eta azkarkiago laguntzen ahal gintuzkete. Bainan halere diot obra on bat egiten dutela, erlisionearen alde gudukatuz.

Gezur bat ederra derasate bertzela mintzo direnek. Ez dutela pratikatzen; hori ere hein batez gezurra. Ezen erlisioeko pratika, eginbide baitzepadakoenetarik bat da etsai gaixtoaren ez laguntzea, ihardokitzea etsaiari. Eta bertze guziak eginik ere, hori egiten ez duena zer gizon da? Zer giristino da?

Harek dio, harek erlisioneari kalte handia egiten; eta ez goragoko bertze heiek. Gaizok aski erakusten dute beren baitan erlisionearen eskasa kausitzen dutela, haren etsaia higuin dutenaz geroz...

Bereziki egungo egunean eskerrak diozkategu; bai, goraki eskerrak, elizatik kanpo bezala bizi diren gizon zuzen urrikalgarri ohoragarrieri. Alde batetik urrikari ditugu; eta bertze aldetik dadukagu beren buruak ohoratzen dituztela, denik ere oneko aldea beti atxikiz.

Ez duzuea uste Jainko onak bere zeruan xokoño bat begiratzeko duela xede oneko gizon heientzat? Egin dezake eta iduri zaut eginen duela hortakotzat behar dena. Heriotze on batek asko makur xuxen detzazke. Sineste hori dugu adiskide hilentzat; hori badaukagu bihotzean, bizi direnentzat.

Ororen buruan, ez da Judasen egitekoa, giristino egiazkoetarik hala ez direnen berextea. Berex beza bere burua eta gero dagola ixilik. Bekatorosik handienak itzularazi zituen bertze orduz, bereganat gure Salbatzaileak.

Judas bakarrik utzi zuen bere buruaz etsiturik leher egitera. Urkatutik hil zen dohakabea; debruaren aztaparretan hik, zenbat ere baitzen apostolua; ederki mintzo zen gizona, bere Nausiaren urratsei jarraikia... bertzenaz. Mahain sainduan jarria zen, Pazkoak eginik edo berehala egitera joaki, Nausia trahitu, saldu zuenean.

Pratikanta zen beraz Judas; erlisioea pratikatzen zuen, bertze zenbeitek geroztik bezala. Zer irabazi gelditu zitzaion? Heriotze ditaken izigarrienaren egitea. Bertze deus ez.

Ohoi ona urrikitan sarturik zerurat; zerurat Madalen eta bertze asko gaizki bizi izanak. Judas infernurat. Orroite ote dire hortaz haren ondokoak?

Ez diotegu zorigaitz bera desiratzen? Bainan ez dezatela nehoren bizkarrerat harririk artik, baldin ez badute nahi sudurrera berei eror dakioten.

Ixil, Judas, ixil, eta apal buru hori; eta sinets ongi, behin betikotz elizatik kanpo egonez elizaren begiratzera ari direnek miletan kalte gutiago egiten diotela erlisioneari, ezen ez eliza barnetik etsaiaren laguntzen, hari indar emaiten ari direnek.

Emak hori sakelean, Judas, eta ez eni berriz ele zozorik erran!

Eskualdun Ona, 1910-10-27



MOZKORREN ERRETRETA

Erran behar dautzuet zer ikusirik nagon atzo arratsalde apalean.

Aste huntako solas-aldian hemenxe zertaz mintza egonik nere buruari galdez behin alferretan, banoa leihora: zeru edo lur, gainetik beheiti edo petik goiti, nonbeitik zerbeit burura dakikedanez. To! Zer ikusten dut?

Bi gizon mozkor, besoz-beso, batek bertzea deramala: bi, hiru urrats oldarrez aitzinerat, gibelerat; eskuin, ezker, sigi-sagaka, noiz nahi biak lurrerat elgarrekin tanpez erortzera doazila iduri. Ba eta baitzoazin erroz gora, baldin ez balitu nerearen parreko etxe-ezkina batek xutik atxiki.

Han egon apur bat biak eta berriz lot bideari. Karrika guzia ez zuten aski zabal berentzat.

Biak bardin hordi arrail; zoinek zeraman bertzea, ez baitzinuen eza- gutuko ez eta elgarren laguntzale ote ziren, ala poxolu?

Ikusi orduko, jauziz heldu zaut gogora: «la retraite ouvrière».

Moxkortzea orori gerta dakiguke: aberats ala pobre; lanetik edo lanik gabe bizi. Nik bezen ongi badakikezue, ardurenik mozkor ikusten direla eske dabilzan batzu; bertze deus egitekorik ez baitute alabainan, bil eta edan baizik.

Ene gizonak bi langileren itxura zuten, eta ez nola nahikoena. Jauntzuratik eta orotarik ageri, lan dorpean ari bide direla, mozkorrak ez direnean: harozgo edo zerbeit holakotan.

Berrogoira urte edo gutixago biek; larru beltz, sorbalda zabal, beso lodi, zangoz bakarrik ahul.

Zerk halakatuak ote zituen, astearte lan egun betean? Jainkoak dakil!

Nor ote da egun hartako, eta biharamuneko lanarentzat heien erretetari doakona pagatu behar duen nausia? Zer lan on egin dezake holako langileak nahi bezen gizon azkarra eta bertzenaz osasunekoa izanik ere?

Nausia, nausi, bederen berak orroit ote dire langile hoik eta hoi en iduriko guziak, hainbertze baita! —sarrixagoko erretretaz, hiruetan hogoita bortz urtetarik goiti gozatu ahalko duten erretreta hartaz orroit ote dira berak?

Orroit ote dire, harentzat oraidanik nausiarekin erdizka emaiteko duketen diruaz? Urtean bederatzi libera, debrua izanik ere, frantsesa diona, «ce n'est pas la mer à boire».

A boire, hitz hori entzutearekin, iduri zaut ene gizonak erretreta gose baino aguardient egarriago direla.

Diren bezalako dohakabeak! Hobe lukete heiek eta heien idurikoek orok, edanak errerik ehortzirik dauzkan langile gaizoko, noiz nahi mozkortzeko, dituzten eta dituzten sos en xahutzeko, lanaren, lan onaren, osasun eta guzien galtzeko parada, okasione tzar gutiago balute; hobe lukete miletan, geroko erretretazko ele eder guziak baino.

Hordikeria madarikatu hori, langilearen eta bertze askoren etsaia, bainan oroz gainetik langilearena, ez balu duen bezen aihar, hobe luke miletan, berantegiko erretretaren esperantza baino.

Sakela hutsik, hertzeak errerik, lurrean ihauzka, herrestan bizi den langileak zer esker dioke sekulan ikusiko ez duen erretretari, edo munduko gorena zonbeit urte bakar-bakarrez baizik gozatuko ez duenari?

Eskerrik ez; eta gehiago dena, irabazi guziak edaritan xahutu-ta non duke geroko, noizpeiko erretretari buruz, orai sos emaitekorik? Ez balinbadu, nola eman?

Erranen dautazue, nausiak askiko duela bien izenean emaita. Beretzat erretretarik ez holetan nausiak; langilearentzat behar eman, ez bakarrik erdia, bainan emaiteko den guzia, ahal badu eta ez badu?

Hunen erraitea errexago da, ahal ukaitea baino. Ez badezake, nausiak? Hel ez baditake bere egitekoetarat, lan-sariaren gainera erretretako behar den guzia bertzalde pagatuz, zer nahuzue bilaka dadin?

Nahi eta ez, uko egingen dio lanari.

Alta, nausia lanari uko geldituz geroz, non litake lana, eta lanik gabe, zer bilaka langilea? Goseak hilen du, erretretaren adinera gabe. Eta ez du bildu ahalko ere, ez bortxaz ez amodioz, erretretarenik, nausi langileak gelditzen badira elgarri mutur. «Hik emak —nik ez—. Nik ere ez».

Garbiki erraiten dautzuet; nahiko nukeen atzo arratsaldeko bi mozkor heiekin solas egin hautaz rotaz, onez onean, samurtu gabe.

Zer ateraldiak, arno zorta bat aitzinean, baso bedera eskuan jarri eta ostatu zoko batean, buruz-buru biak, ni edo zu, irakurtzalea, hirugarren.

«Eh bien!... mais ces retraites ouvrières, qu'est-ce que vous en dites, mes bons amis? —Emak hunat edatera. Hiruetan hogoita bortz urtetan ez diagu edanen».

Izaitez hamarretarik bederatziak, eta guziz langile gaizo edanak beretuak hilen dire adin hortara gabe.

Bana bertze langile xuhurak, mozkortzen ez direnak dire biziko, denik ere, aski, erretretaren gozatzeko, ez luzaz, bainan guti bada guti, hartarat heldu direla erraiteko doia.



Edalek nekez pagatuko dute, pagatzen badute oraino; eta nekezago, bakanago, laburkiago dute gozatuko erretreta, zahartu gabe higituko baitira eta hilen.

Errazu bertzen onetan izanen dela heien hiltzia, hek adinera gabe hilez bertzentzat gozatzeko diru gehiago geldituko baita.

Zonbat eta zonbat edale ez da ordea, edari pozoinak xutik errerik dauzkan zonbat?

Hek eta bertzeak oro zahartu ondoan erretretarik gabe urrikalgarri anartean?

Nork zer egiten du Frantzian hordikeriaren kontrako legerik, edo zerbeit, jende xehea, langilea ez uzteko edanak hiltzerainokoan gal-araztera?

Ostalerei behar den larderia, bederen gauazkoa, eman nahi lioketen herrietako buruzagi onek berek dituztea ikusten beren ahal eta borondarte on guzia politikero nahasi batzuek hausten?

Hausten edo eskutik atxikitzen, boz truk ezeztatzeko, larderia on, behar litakenarentzat egin prozerberbat eta guziak.

Nondik nahuzue jende xeheak bere burua zain dezan, deusek, ez nehork ez badio bide galgarriak galgarri direla, keinu egiten ere?

Erretreta guzietarik hoberena litake, oraindanik ororentzat on handia lakarkena, igande eta merkatu arratsetako erretreta edo erretiraño hura.

Eta nork erranen duen, hau ez dela egia?

Eskualduna, 1911-06-09

GAIZKIAK

Geroago eta beti ahulago, beldurtiago, ez-deusago agertzen da gure gobernamendua, beren aitzindarien kontra altxatuak ziren, ba eta oraino egunetik biharrera berriz ere altxatzekotan diren errientera buruz.

Ja erran duguna, eta egia, mundu huntan diren eta ditazken burraso kalipurik gabekoenak iduri.

Frantzia guziaren eta bazterretarik hunat so dauden auzo erresumen irriekingarri.

Hastapenean behin harrituak, ez jakin zer egin ala ez egin, ez norat itzul. Alegia ez ohartuarena egiterat entseaturik zonbeit astez, trufatu nahi zitazkotela ikusirik azkenean, hasi ziren zerbeit norapeit egitekotan bezala, larderia izpika baten erakusten.

Gogoa eman zezatela errient horiek, beren onetan; beren zedarrietan ez bazauzken, etzakitela, zeri zauden; aiher zela Gobernamendua gerla bilatzalen gaztigatzeko; hoben arau, tokiz alda, paga ken edo ttipi; azken beltzean, erreboka. *Cuidado, amigos!*

Errienteak ihardets: mehatxu hoien eta handiagokoen bardin direla beldur, nola jazko haizearen: sendikaturik oro elgarrekin jar, ala nahi dutena egin, orai eta gero, axolarik eztutela ministro eta izpektor guzien beltzuriez, sudur-hixtuez, larderia darioten paper ostoa xarrez.

* * *

Nausi edo mutil, norbeitek behar baitzuen uko egin —etsenplu ona eman nahiz, dudarik gabe—, ministroek uko. Lehenbailehen, eztiarazteko, hitzeman diote orori pagaren emendatzea: emendio horrentzat bereziko dituztela urtean berrogoi miliun.

Bertze orduz herrietako apezten pagarentzat aski zituzten 40 miliun. Orai erriente *emendatzeko*, ja dutenaren gainera gehiagoren emaiteko deramate diru soma hori.

Bertze orduz apez batek bere burua, zuzenez ere, den gutiena agertzen zueneko, berehala paga guzia kentzen zioten. Jaun errientera, —a contrario— emenda. Zertako? —Zeren ez baitziren apezten beldur, hauien bezala.



Ikaran daude, hauien beldurrez. Beren falta dute; peka hor. Zertako dituzte gastatu, purifikatu, erranez: jaun errientek dutela beren eskuko Frantzia, bozen medioz, eta are gehiago eskolaren.

Gertatu behar zena da hor gertatzen; eta orainokoak deus. Gero, gero ikusiko hautaz bertzerik.

Alabainan zerk nahuzue izi ditzan errientak? Horra non diren, erre-boltatzeko keinua egin dutelakotz, berehala *saristatnuak*.

Apezak izan balire, kenduko zioten paga, Elizaren ontasun lehen ebatsien ordain, zorraren intres kondu bezala emaiten zutena. Oro ken; berriz ebats.

Geroztik hunat hirugarren aldikotz egundainokoetan berriz, eba-tsiak, bertzalde.

Eta oro jende xehearen bizkarrera doazila azkenean. Apezen paga orai, nahi eta ez, bertze zergen gainera, jasan behar, edo erlisionerik gabe bizi eta hil.

Jo aitzina, beti aitzina. Huna berrogoi miliun gehiago pagatzeko, zeren gobernamentua errienten beldurrez dagon ikaran.

Erranen dautzuetee: den baino handiago egiten dugula hor den makurra; ez direla jaun errient guziak batzu bezen diru gose; ez eta ere nahaskeria gose; maltso, ezti, zuhur, prestu gehiago badirela, bertzelako zalapartari hoitarik baino; sendika, oro hautsi nahizko hoitan sei mila bai-zik ez zela sarturik; *amicales* direlako lagungoetan gehiago, bainan ez oro; bakezko gizon anitz badela errientetan oraino.

Beharrik! bainan urtetik urtera, gero-ta gutiago. Gaizki altxatzen baititu gobernamentuak, erlisione izpirik gabe; sinestearen etsai, berak makur eskoletan; urguluz hanturik eta nehork ezin asezko heinera berak ezartzen gutiziaz, anbizioez, jaun baino jaunago beharrezko errabiaz beterik. —Ondorioak? —Horra non dituzten.

Errienten *sendika* gehientsuak barreiatu zirela, gobernamentuari obeditzeko. Behinik behin, ez oro. Eta barreiatu edo barreiatzekotan zirenetarik ere, ja badire berriz biltzen hasiak, ikusiz gobernamentuaren ahulezia.

Ahulezia, hanbatenaz bitxiagoa, ahalge-garriagoa, zonbatenaz ere gutiago baitziren holetan oraino bihurrian jarriak.

Guti zirela, diote berek, ministroek; ez dela hor geroari buruz, izi-tzekorik. Eta futxo guti heien aitzinean dute uko egin. Zer behar ginuen ikusi gehiago izan balire? Ja belauniko ministroak hoin gutiren oinetan; izialdurak odola osoki gatz-araziko zioten gehiago izan balire.

Eta sekulan hartaratzen bagira, noren gainean konda, erreboltatuen larderiatzeko, beren ozkan ezartzeko?

Barkatu. Zer derasagu? Alegia ez jakin Gobernamentuak zer duen eginik aste huntan berean! —Eta zer! —Oh! *Gaizkiak* igorri errierter, jaun inzpektorren medioz. Gaizkiak *des réprimandes*.

Erran, ez dabiltzala xuxen.

Gure gizonak hasten direnean errienten larderiatzeko, nork atxik?

Zure mutilaz ez zira *satifos*. Badakizu zer egin, bereziki jasan-gaitz, oro manatu nahi lituzkena balinbada, edo nehork ezin ase? Emenda zozu, dobla soldata, eta gero *gaizkiak erran*. Ondoko urtean ez baitzaitu zure etxetik kanpo ezartzen, gizon urusa, zu.